# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2014-01-24
EGUBAKOITZA
582. ZENBAKIA
14. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM


## "Orain 40 urte ikasleak guardia zibilekin sartu ziren"



**Iñaki Galdos** | Hamaikabat-eko presidente ohia | 7

## Garajean aparkatzeak, hobaria: %75

Bergarako Udalak bonifikazioak emango ditu | 18

Antzuolako argiteria berritzea lan garrantzitsua izango da aurten | 25



Aloñaren eta Aretxabaletaren arteko derbia domekan | 28



Elizate, Euskara eta Kirol sailetarako diru gehiago Eskoriatzan | 23



# Erabakitze eskubidea, baita Debagoienean ere

Oñatin, Bergaran eta Antzuolan taldeak sortu dituzte Gure Esku Dago dinamikaren barruan. Ekintza sorta antolatu dute datorren asterako. Bestalde, Durango eta Iruñea batuko dituen giza katea Debagoienetik ere pasatuko da. | 4

Jon Odriozola, Pello Zabala, Elena Laka, Lierni Olmedo (Oñatiko Gure Esku Dago), Jon Ugarteburu (Antzuolako GED) eta Aitor Eraña (Bergarako GED), Arantzazun. | JULEN IRIONDO



GOIENA

## Erraldoiak gidatzeko txanda iritsi zaie Bergaran gaztetxoei | 11






**SINADURAK** MARTIN CALVO | 8 · IKER IRAZABAL | 27 · AGURNE BARRUSO | 40


DEBAGOIENA 3 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 30 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38




Matrikula epea zabalik
**OTSAILAREN 3tik 14ra**

## HAUR HEZKUNTZA 0-6 URTE

### INFORMAZIO BILERAK

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| OLARTE | urtarrilak | **28** | 18:00 | Arrasate |
| SANTA TERESA | urtarrilak | **28** | 17:30 | Arrasate |
| URIBARRI | urtarrilak | **29** | 18:00 | Arrasate |
| UMEZAINTZA | urtarrilak | **30** | 18:00 | Arrasate |
| BASABEAZPI | urtarrilak | **30** | 18:00 | Aretxabaleta |

### ATE IREKIAK

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| OLARTE | urtarrilak | **28** | 18:00 | Arrasate |
| URIBARRI | urtarrilak | **29** | 18:00 | Arrasate |
| UMEZAINTZA | urtarrilak | **30** | 18:00 | Arrasate |
| BASABEAZPI | otsailak | **4** | 18:00 | Aretxabaleta |
| SANTA TERESA | otsailak | **4** | 17:00 | Arrasate |
| JOSE ARANA | otsailak | **6** | 18:00 | Eskoriatza |

## LEHEN HEZKUNTZA 6-12 URTE

### INFORMAZIO BILERAK eta ATE IREKIAK

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| GAZTELUONDO | urtarrilak | **29** | 17:00 | Arrasate |
| ARIMAZUBI | urtarrilak | **30** | 17:00 | Arrasate |
| ALMEN | otsailak | **1** | 11:00 IDZn | Eskoriatza |
| SANTA TERESA | otsailak | **4** | 17:00 | Arrasate |

## DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA 12-16 URTE

### INFORMAZIO BILERAK

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| SANTA TERESA | urtarrilak | **28** | 17:30 | Arrasate |
| ALMEN | otsailak | **1** | 12:00 IDZn | Eskoriatza |
| GAZTELUPE | otsailak | **4** | 18:00 | Arrasate |
| gaztelaniaz > | otsailak | **6** | 18:00 | Arrasate |

### ATE IREKIAK

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ALMEN | otsailak | **1** | 11:00-14:00 | Eskoriatza |
| GAZTELUPE | otsailaren | **3tik 7ra** | 17:00 | Arrasate |

GIZATASUNA LANEAN | MONDRAGON

ikastolenelkartea

informa zaitez

**943 77 20 25**
**www.arizmendi.eu**

# Hilabeteren ostean igartzen hasi da loteriaren eragina

Batez ere, etxeen salmentan igarri dute gorakada

UBANE MADERA | ARRASATE

Datorren eguaztenean, urtarrilaren 22an, hilabete izango da Loteria Nazionalak Arrasaten sari potoloa utzi zuela: 180 milioi euro gordin, 62.246. zenbakiari esker.

Momentuko euforiak atzean utzita, eta herritar askoren aldarte edo animoan aldaketa nabarmena igarri den arren, urte hasiera honetan hasi da, batez ere, sari potoloaren eragina modu praktikoan igartzen gure inguruan.

Ez, ordea, orain hamar urte tokatu izan balitz igarriko litzatekeen modura: kapritxoetara edo lehen mailako beharrak ez diren produktuetara bideratutako kontsumora. Noski , halakorik izan badagoen arren, etorkizun beltza eta segurtasunik eza horren gertu ikusi ostean, jokabide zuruna da nagusi; are gehiago, hausnarketa prozesuan dabiltza oraindik horietako batzuk. Eta beste askok, berriz, etorkizunean lagunduko duten inbertsioak aukeratu dituzte.

## Kontsumoaren garrantzia

**Diru kontuetan adituak diren Laboral Kutxatik argi ikusten dute loteriak utzitako diru horiek kontsumora bideratzea oso garrantzitsua dela. "Ekonomia, sektoreak eta negozioak eta merkataritza bultzatu nahi baditugu, era bakarra hori da. Noski, ez kontsumo basatia, baizik eta kontsumo arduratsua da egokiena".**

**Etxeen ezaugarri aldaketa**

Hori egunerokora itzulita, etxebizitzen salmentan ikusi da joera hori, batez ere. Gorakada nabarmena igarri dute. Eta gorakada, batez ere, etxebizitza berrien merkatuan. Arrasateren kasuan, adibidez, salmenta kopurua handitzeaz gainera, merkaturatzen hasi diren etxebizitzen ezaugarrietan aldaketa ekarri du loteriak: bigarren eskuko eta etxebizitza merke samarretatik, garestiago diren etxebizitzetara pasa da merkatua.

Baina, batez ere, herritarren animoa da loteriak eraldatu duena. Krisiaren eta, batez ere, Fagorren itxieraren ondorioz erabat deprimituta zeuden herritarrak apur bat piztu egin ditu. Azukre koskor bat uretan urtuko balitz bezala. Zerbait, sikiera.



Zenbakí irabazlea. | IRATI GOITIA

**JOSE INAZIO AGUERO** | LOTERIA NAZIONALEKO SARIDUNA

## "320.000 eurok eman ematen dute, baina ondo inbertitu behar da"


U.M.

Dezimo eta erdi tokatu zitzaion loterian Jose Inazio Aguerori (Arrasate, 1961). Dirutan itzulita 480.000 euro. Hala ere, eta hilabeteren ostean, Renault Mecan lanean aurkitu dugu gizona, askok uste izango ez luketen moduan:

**Hori tokatuta ere, lanean?**
Hiru seme-alaba ditut, eta konpondu beharreko gauza asko.

**Hilabeteko perspektibak ematen duen *lasaitasunetik*, zela bizi da loteria saridun izatea?**
Oraindik hausnartzen dihardugu zer egin, lasaiago. Pozik gaude, hori bai. Momentu zailak bizitzen genbiltzan lan kontuengatik-eta... Eta orain askoz lasaiago gaude, jakina.

**Beraz, inbertsio/gastu askorik ez duzue egin oraindik?**
Ez dugu ezer egin. Gauzak begiratzen gaude,

**Izan ere, badirudi bizimodua konponduta duzuela, baina ez da horrenbesterako, ala?**
Nik uste dut ezetz. Dela gehiago euforia kontua. 320.000 eurok eman ematen dute, baina ondo inbertitu behar da.

**Hala ere, betiko izango duzu gogoan non zeunden tokatu zitzaizula jakin zenuenean...**
Bai, gosaltzen nengoen... oraindik ere oilo-ipurdia jartzen zait. Gizon bat sartu zen mugikorrarekin esanez Arrasaten tokatu zela. Katxondeoan zebilela pentsatu nuen. Baina bost minutura lankide batek deitu zidan, hortik gutxira beste batek...Urduri jartzen hasi nintzen... *Shock* handia izan zen.

**Zer da egin zenuen lehena?**
Etxera joan zenbakia begiratzera. Interneten ikusi genuen, baina, hala ere, begiratzera joan ginen, egia zela ziurtatzera. Eta bai. Oso -oso urduri geunden. Zuzenean jaitsi ginen San Andresko Administraziora. Eta bai. Han ere ospatzen zebiltzan! Gau hartan ez genuen ia lorik ere egin.

## Zer egin diruarekin?

Laboraleko Iturriotz kaleko zuzendariak gako batzuk eman dizkigu.


Iñaki Goñi. | U.M.

- Inbertitzera animatuko nituzke saridunak. Eta inbertsio motak aukeratzeko orduan, aholkularitza zerbitzuak izaten dira. Laboral Kutxan, adibidez, aholkularitza finantzario eta fiskalak ditugu: Banka Premium eta Banka Pertsonala.
- Adibidez: profil ausarta duten bezeroendako inbertsio fondoak eta era guztietako fondoak daude, mundu osoko gestoreekin: AEBetan, suspertzen ari diren herrietan...
- Burtsan, dibisetan: dolarrekin. Orain merke dago, baina, agian, garestituko da, eta irabazi batzuk lor daitezke. Edo eurotan...


**OLATZ ZUBIA**
ANBOTO ETXE AGENTZIA

"Igarri da, bai. Nabarmen. Hirukoiztu egin zaigu salmenta kopurua. Eta gainera, beste estilo bateko etxeak saltzen hasi gara: erdigunean, handiak, nahiko berriak, berri-berriak... Azkenaldian, beste etxebizitza mota bat saltzen zebilen: 90.000-100.000-120.000 euro ingurukoak. Orain, bueltatu gara 250.000-300.000 eurokoetara. Guk asko igarri genuen Fagorren kontua: gutxi gorabehera, %40 jaitsi zen gure salmenta kopurua, eta urtarrilean %50 igo da. Mugimendu handia igartzen da; sekula ez da geldi egon sektore hau, baina orain salmenta mota aldatu egin da eta mugimendua handitu".


**ZIGOR AGINAGALDE**
BIBAI AGENTZIA

"Asko igarri dugu. Abenduaren 23an bertan etorri zitzaigun jendea. Datuak: 16 etxebizitza saldu ditugu Gelman (gazteak dira erosle gehienak). Datu gehiago: abenduaren 23tik 31ra (bi jaiegun tarteko) 13 bisita egin nituen. Eta urtarrilean 23 egin ditut. Oso gorakada handia da hori. 2008tik hona ez dut halako salmentarik izan. Egia da, baita ere, prezioak inoizko baxuenak direla, eta hori ere igartzen da. Adibidez, etxebizitza erosi duten 16etatik bosti ez zaie loteriarik tokatu. Etorri dira prezioak igoko ote diren beldur. Horren harira, oraingo prezioak otsailaren 28ra artekoak izango dira".


**MIKEL LOITI**
CITROEN CHAPIME

"Mugimendu handiagoa igartzen da, bultzadatxoa eman dio merkatuari, bai. Fagorreko kontuarekin bazirudien bailara geratu egin behar zela guztiz, eta honek bultzadatxoa ekarri du eta espero dugu bultzadatxoa baino gehiago izatea. Fagorrenak demaseko eragina izan du kontsumoan, nahiz eta esperotako zerbait izan. Eta jendea beldur handiarekin dago. Zenbat eta birkokatze gehiago egin, orduan eta txikiagoa izango da eragina, baina hori normalizatu bitartean zailtasunak izango ditugula argi dago. Loteriak, sikiera, bultzadatxoa emateko balio badu, horrela izan dadila".


**RAFA ETXABE**
FORD MUGARRI

"Zerbait igartzen dugu, baina gure sektorean ez da nabarmentzeko moduko zerbait. Matrikulazioak zelan doazen ikusita, adibidez, ez dago daturik erakusten duenik lehenagoko martxarekin alderatuta egoera asko aldatu denik. Bat edo bi gehiago salduko dira, baina... Nik uste dut gehiago dela transmititzen duen animoa beste ezer baino. Baina, argi eta garbi, gehien igarri duen sektorea da etxebizitzena. Jendeak arazo handiagoak ditu kargekin, etxebizitzekin... nik badakit jendeak egin duena dela etxe berria erosi eurendako eta zaharra eman seme-alabendako edo alderantziz...".



# Gure Esku Dago abian da bailaran ere, erabakitzeko eskubidearen alde

- Oñatin, Bergaran eta Antzuolan sortu dira taldeak
- Ekintza sorta antolatu dute datorren asterako
- Durango–Iruñea giza katea Debagoienetik pasako da



Gure Esku Dago dinamikan dihardutenhainbat debagoiendar, beste askoren artean ekimena

**JULEN IRIONDO** | OÑATI

"Gure Esku Dago dinamika herritarra da, erabakitzeko eskubidearen alde Euskal Herrian lan egingo duena". Hala hasten du bere buruaren gaineko azalpena iazko ekainean aurrenekoz jendaurrean –Irungo Ficoban– aurkeztutako ekimenak. Hiru ardatz, beraz, aurreneko definizio horretan: "Erabakitzeko eskubidea", "dinamika herritarra" eta "Euskal Herria".

"Besteak zu baino gutxiago ez direla uste duzun momentutik, erabakitzeko eskubidearen alde egon behar duzu", dio Antzuolako Gure Esku Dago lantaldeko kide Jon Ugarteburuk erabakitzeko eskubideari buruz; "Mugimendu honetan lanean hasteko motibatu ninduen Angel Oiarbidek *Gazta zati bat* filmean esaten duenak, alegia erabakitzeko eskubidea gauza inportanteegia dela politikarien esku bakarrik uzteko. Herriak egin beharreko lana dela iruditzen zait", Lierni Olmedo oñatiarrak Gure Esku Dagok bere buruari aitortzen dion izaerarekin bat eginaz; eta Bergarako taldeko Jokin Biainek, Euskal Herria ahotan: "Kataluniakoa ikusita, Eskoziakoa ikusita, nik uste gure momentua ere heldu dela".

**Jendea aktibatu nahi**

Duela ia zortzi hilabete Gure Esku Dago dinamika abiatu, eta Euskal Herriko beste hainbat herri eta eskualdetan bezala Debagoienean ere martxan dira taldeak –hiru; Arrasaten ere eman dituzte lehen urratsak, eta taldea jendez gizentzea nahi dute orain–. Martxan dira, erabakitzeko eskubidea gauzatu ahal izatea ahalbidetuko lukeen egoera batera igarotzeko helburuz, euskal herritarrak aldarrikapen horren inguruan aktibatu nahian: "Euskal Herrian egoera berri bat bizi dugu; egoera berri horretan aurrera egiteko garrantzitsua da elkarbizitza lantzea, eta iruditzen zait elkarbizitza hori lantzeko ezinbestekoa dela ideia eta jende desberdinen arteko errespetua", dio Antzuolako Jon Ugarteburuk, bere azalpenarekin honela jarraituz: "Erabakitzeko eskubidea hori da; erabakitzeko eskubidea ez da independentzia, nahiz eta jendeak hori pentsatu, ziur aski geuk ere nahastu izan ditugulako urteetan, independentistek egin izan dutelako autodeterminazioaren aldarrikapena. Baina erabakitzeko eskubidea da errespetua". Aldaketarik nahi ez duenarentzat ere erabakitzeko eskubidea gauzatu ahal izatea onuragarri dela dio Ugarteburuk, aldaketarik ez egitea erabakiko balitz ere erabaki horrek herritarren nahia lukeelako oinarri.

Eta planteamendu hauetara, erabakitzeko eskubidearen aldeko lanera, dagoeneko batu dira Debagoienean hainbat eta hainbat gizon-emakume, gazte, heldu eta nagusi, askotarikoak: "Politika kontuetan ez naiz inoiz ibili, eta gizarte arloko erakundeetan ere ez naiz orokorrean parte hartzekoa izan, baina gaur egun ilusio momentu bat bizi dugu, eta igartzen da jendeak baduela parte hartzeko gogoa, eta neuk ere badut", dio Bergarako Jokin Biainek; Oñatiko Lierni Olmedok, berriz: "Bildu garen jendea esparru desberdinetako jendea gara, eta horrek ere motibatu egiten zaitu. Horrek aberastu egiten du proiektu hau, eta horren beharra dago gainera". Eta Antzuolako ordezkariak, horri gehituz: "Gure Esku Dagoren filosofia desberdina da, ideia eta esparru desberdinetako jendea elkartzea. Horregatik sartu naiz taldean, zabala eta heterodoxoa delako". Aitor Erañak –bergararra hau ere– azken hitza, honi dagokionez: "Ezin duguna egin da gu pasibo geratu eta utzi politikariek erabaki dezaten gugatik".

**Garaiari dagokionez**

Erabakitzeko eskubidearen aldeko lanean dihardutenentzat oraintxe da garaia, garai aproposa da hau, kontuan hartuta Europan bertan Kataluniak eta Eskoziak jarrita dituztela 2014 urte honetan euren etorkizunaren gaineko iritzia emateko datak: "2014a urte garrantzitsua izango da Eskozian eta Katalunian, baina ez han bakarrik, baita hemen ere, ikusiko dugulako egin daitekeela, badagoela modua egiteko, eta horrek ilusioa eragingo du Euskal Herrian ere", dio Jon Ugar-

### Horrela definitzen du dinamikak bere burua

**ZER DEN**
Erabakitzeko eskubidearen alde Euskal Herrian lan egiten ari den dinamika herritarra. Herrietan dinamika honen inguruan garatzen dabiltzan ekimen ezberdinei erreferentzia eta aterkia eskaintzen die.

**HELBURUAK**
Herri aktibazioa. Atxikimendu pertsonalak metatu eta antolatuz, gehiengo sozial, sindikal, politiko eta instituzionalak lantzea, erabakitzeko eskubidearen norabidean.

**ZERGATIK**
Erabaki ezina delako Euskal Herrian bizi den gatazka politikoaren iturburua. Aldarrikapen pre-politikoa delako, oinarri demokratiko bat sortzearen alde.

**PRINTZIPIOAK**
Aniztasuna eta askotarikotasuna. Ezberdinen arteko gogo-kidetasuna bilatzea, ekintza bateratu eta eraginkorrerako jokaleku egoki eta erosoa sustatuz.

**KONTAKTUA**

**'debagoienakogureeskudago@gmail.com'**

Oraingoz, Oñatin, Bergaran eta Antzuolan daude martxan Gure Esku Dago lantaldeak. Haiekin harremanetan jartzeko, Arrasaten hasten ari den taldeko kide izateko, gainerako herrietan talde berriak sortzen laguntzeko edo beste edozertarako, helbide hori jarri dute eskura.

### ESKUTIK ESKURA EGITARAUA

**URTARRILAK 29**

**19:00** Ekonomia mahai ingurua Arrasateko Kulturaten: Joseba Barandiaran, Adrian Zelaia (Ekai Center) eta Oskar Arantzabal.

**URTARRILAK 31**

**22:30** Kontzertua Oñatiko gaztelekuan: Carles Belda eta Gose.

**OTSAILAK 2**

**12:00** Giza katea Lizargaraten. Mendira irteera oinez Bergaratik –09:00, plazan–, Antzuolatik –09:30, plazan– eta Oñatitik –09:30, Errekalde eskolan.

**PELLO ZABALA**
FRANTZISKOTARRA

### "Oso ondo deritzot Gure Esku Dago ekimenari; ilusio handia daukat"

"Bada garaia gure eskubideen jabe egiteko, elkarri lagunduz, eskuz esku auzolanean lan egiteko. Oso ondo deritzot Gure Esku Dago ekimenari. Beharra sentitzen nuen, eta asko pozten nau hau dena etortzeak. Gustura lagunduko dut, ilusio handia daukat honekin, eta gazte jendea ere hala ikusten dut. Denok ez gara pentsaera berdinekoak izango, baina alor guztietakoak kabitzen dira hemen. Erabakitzeko eskubidea gauzatu ahal izatea pixka bat kostako da agian, ze herri itxi baten menpeko gara. *Una, grande y libre* delakoarekin hainbeste urte daramatzagu... Kosta egingo zaigu. Politikaren zain baldin bagaude luzeegi joango da, ze ikusten dugu zenbat kostatzen den bakearen ingurukoetan ere. Herriaren aldetik behar da bultzada handi bat, eta horren kontra zailagoa da".

**ELENA LAKA**
ABOKATUA

### "Behe-behetik hasita, elkartuta presioa eginez, gauzak lor daitezke"

"Uste dut herritar moduan, gizarte moduan eta herri moduan dagokigun eskubide bat dela, oinarrizko eskubidea dela eta gauzatzeko eskubidea daukagula. Guri dagokigu erabakitzea zein nahi dugun izatea gure etorkizuna, modu ekonomikoan, modu politikoan eta herritar bakoitzaren zoriontasuna eta ongizatea lortzeko maila horretan. Euskal Herrian badaukagu herritarrok biltzeko eta denok batera egiteko tradizio luze bat; azken urteetan, ikastolak, kooperatibak eta euskararen mugimendua horren erakusle izan dira. Uste dut alderdi politikoetatik kanpo presio eta indar handia egin daitekeela, herritarrok nahi duguna lortu ahal izateko. Behetik hasita, elkartuta presioa eginez, gauzak lor daitezke. Ez dakit iritsiko den, baina horren alde tinko egin behar dugula ez dut zalantzarik".

**JON ODRIOZOLA**
KIROL ZUZENDARIA

### "Kirolean ere beti izan da nire helburua eskubide horiek munduari azaltzea

"Uste dut momentua dela, behingoz, herritarrok eta herriak aurrera egiteko eta erabakitzeko eskubidea gauzatu ahal izateko. Denok elkartuta, aterako dugu aurrera gure aldarrikapena. Gure Esku Dago dinamikari oso ondo deritzot. Kirolean ere beti izan da nire helburua gure nortasuna zabaltzea eta euskaldun denok batu eta eskubide horiek azaltzea mundu osoaren aurrean. Horregatik, ados nago eta oso pozik, hau aurrera ateratzeko eta parte hartzeko gogoz. Euskal talde bat ateratzeko dudan proiektuari asko lagunduko lioke erabakiak guk hartu ahal izateak; elkar lagunduko lukete. Izan ere, txirrindularitzan izan dugu orain arte euskaldun denok batu gaituen proiektu bakarra, eta hori berreskuratzea oso garrantzitsua da. Elkartzeko behar bat badago, eta erabakiak geuk hartzekoa".



babesten duten Pello Zabalarekin, Jon Odriozolarekin eta Elena Lakarekin batera. | J.I.

teburuk. "Jendearen pentsaeran aldaketak" egon daitezen lagunduko duela uste du Erañak, eta, hori horrela, Euskal Herrian ere "helburu horretara iristeko baliabide guztiak" jartzea proposatzen du Olmedok.

Britainia Handiaren jarrerari eredugarri deritzo Antzuolako lantaldeko ordezkariak –aurtengo irailaren 18an izango da independentziari buruzko erreferenduma–: "Argi dago ingelesek ez dutela gogorik Eskoziak Britainia Handia izateari utz diezaion, baina izaera demokratikoa dute, eta onartu egiten dute. Zertarako eduki behar duzu menpean zure menpeko izan nahiz ez duen bat? Hobe da zure taldekide izan nahi duen bat izatea zure taldean, ez behartuta dagoen bat". Batera jarraitu edo alde egitearen artean erabakitzeko aukera ematen badio estatu batek bere barneko lurralde bati, "pragmatikoak" izan eta geratzea erabakitzea gerta litekeela dio Ugarteburuk: "Baina behartzen duzun momentutik, jendea ez dago gustura".

Eskozia eta Kataluniaren urtea izango da, beraz, 2014a, eta ikusteko dago ze eragin izango duen herrialde haietan gertatzen denak gurean. Baina kanpotik letorkeenaren zain egon gabe, jendea martxan jartzeko zita nagusi bat ere ari da antolatzen Gure Esku Dago aurtengo ekainaren 8rako: Durango eta Iruñea lotuko dituen 123 kilometroko giza katea –Arrasate, Bergara eta Antzuolatik pasako da–; gutxienez 50.000 lagun batzea da intentzioa. Parte hartzeko izena eman beharko da, eta eguna bitartean egingo diren ekintzetan edukiko du jendeak horretarako aukera.

"Giza kateak izugarrizko ilusioa eragiten dit. Oso egun polita izango da; jende desberdin pila bat elkartuta, eskutik helduta, aldarri oso sinple baina polit batekin: erabakitzeko eskubidea dugu eta denon artean egin behar dugu bidea". Egun horren gainean Jon Ugarteburuk duen iritzia da, Aitor Erañak konpartitzen duena, ondo irtengo den ziurtasuna agertuz. Baina giza katearekin ezer ez dela amaituko ohartarazten dute Jokin Biainek eta Lierni Olmedok: "Egun inportantea izango da, baina erabakitzeko eskubidearen aldarrikapenak jarraitu egin beharko du aurrera. Baina bai izango da egun berezia, aldarrikapena eta jaia batuko dituelako. Hor ikusiko da babesa zenbaterainokoa den".

Eta asmoa dute Gure Esku Dagokoek ekainaren 8tik aurrera ere erabakitzeko eskubidearen aldarria are eta are gehiago gizarteratzeko ekintzak antolatzen jarraitzeko, datorren asterako antolatu dituzten moduan. Zentzu honetan, *Euskal ekonomiaren erabakimenaz* izenburupean mahai-ingurua egingo dute urtarrilaren 29an Arrasateko Kulturaten, Joseba Barandiaran, Oskar Arantzabal eta Adrian Zelaia (Ekai Center) ekonomialariekin. Urtarrilaren 31n, berriz, kontzertua izango da Oñatiko gaztelekuan; bertan, Carles Belda ariko da soinu txikiarekin. Belda kataluniarra da, baina Zugarramurdin bizi da, eta bere emankizunean katalana eta euskara uztartzen ditu –Mikel Laboaren doinuak katalanez kantatzen ditu, besteak beste. Gose arrasatearrek joko dute Beldaren ostean. Azkenik, otsailaren 2an mendi irteera izango da Lizargaratera, Antzuolatik, Bergaratik eta Oñatitik oinez irtenda, eta giza-katea egingo dute eguerdian hiru herrietako lurrek bat egiten duten inguru hartan.

**Aurpegi ezagunen babesa**

"Aniztasuna eta dibertsitatea" dira, esan bezala, Gure Esku Dagok aintzat hartzen dituen ezaugarrietako bi. "Ideologia eta eremu desberdinetako jendea" batu nahi dute dinamikara; eta norbanako anonimo asko eta asko elkartu dira dagoeneko Euskal Herriko luze zabalean, eta aurpegi ezagunagoak ere bai tartean. Debagoienean, badira gehiago baina, Pello Zabala, Jon Odriozola eta Elena Laka dira hiru adibide, Gure Esku Dagoren aldarriarekin bat egin dutenak.

Ezagun eta ezezagun, denentzat dituzte irekita ateak bailarako lantaldeetan. "Jende denari" egiten diote dei. "Merezi du eta lan egin behar dugu helburua lortzeko", dio Lierni Olmedok, eta itsaropen irmoa agertzen du Jokin Biainek: "Ezinezkoa da modu baketsuan aldarrikapen bat egiten duen herri bat betiko blokeatzea".

**ESANAK**

### "Askotariko jendea bildu gara, eta horrek ere motibatu egiten du, aberasgarria da"

**LIERNI OLMEDO** | OÑATIKO GED

### "Eskoziakoa ikusita, Kataluniakoa ikusita, gure momentua ere heldu dela uste dut"

**JOKIN BIAIN** | BERGARAKO GED

### "Giza kateak ilusio handia eragiten dit: jende desberdin pila bat eskutik helduta"

**JON UGARTEBURU** | ANTZUOLAKO GED

**OSKAR ARANTZABAL** | EKONOMIALARIA

## "Krisitik ongien atera direnak erabaki propioak hartu dituzten ekonomiak dira"

Ekonomialari eibartarra izango da datorren eguazteneko mahai-inguruko parte-hartzaileetako bat.


OSKAR ARANTZABAL

**Ekonomiaren ikuspegitik, komeni zaigu gure etorkizuna erabakitzea?**

Noski. Krisitik ongien atera direnak erabaki propioak hartu dituzten ekonomiak izan dira.

**Bideragarri al litzateke euskal estatu bat?**

Bideragarritasunaren zalantza gainditura dago, Europan badira sei estatu gurea baino txikiagoak eta munduan hirurogei inguru. Beste kontu bat da ekonomia orekatuak diren ala ez, herritarren bizimaila hobetzeko. Euskal Herrian baldintza hori ere ematen da.

**Entzun izan dugu, adibidez, pentsioak ordaintzeko arazoak leudekeela.**

Pentsioak Europako estatu askoren buruhauste bihurtu dira. Gure sistema propioak hobeto funtzionatuko luke. Ikusi osasunaren eta hezkuntzaren adibideak.

**Europatik kanpo geratuko ginatekeela ere bai.**

Hutsune juridiko bat dago Europako Batasunean horri dagokionez; beraz, espekulazio hutsa da. Batzuk Eskoziarekin eta Kataluniarekin gertatuko denaren zain daude. Badira euroa darabiltenak barruan egon gabe, eta alderantziz. Eta Batasunetik kanpo ere bada bizitza.

**Diozu txikiak direla estatu zoriontsuenak.**

Sei arrazoi nagusigatik: barne-kohesioa, kulturala eta ekonomikoa; irekitze eta hazkunde tasa altuak; espezializazio lehiakorra; malgutasuna; defentsa gastu txikiagoa; eta esperimentaziorako *laborategi* izatea.

# "Herri gisa erantzuteko garaia" dela uste dute Libre Plataforman

Madrilen egiten diharduten epaiketen "izaera politikoa" salatu eta ekintza gehiago iragarri dituzte

**JOKIN BEREZIARTUA** | DEBAGOIENA

Auzitegi Nazionalean 35/02 sumarioan –herriko tabernen aurkakoa– eta Segiko kide izateagatik auzipetuta dauden epaiketen "izaera politikoa eta antidemokratikoa" salatu du asteon Libre Plataformak prentsaurreko baten bitartez. Bi epaiketak hasi zirela lau hilabete bete direnean, Espainiako Estatuaren "itxikeria" salatu dute: "Espainiako Estatua deseroso dago Euskal Herrian irekitzen ari den aro berriaren aurrean. Espainiako Estatuak uste du errepresioaren bidez aldaketa eragotz dezakeela, zapuzketa eraginez, ilusioak itzaliz eta etsipena zabalduz. Zorionez, Espainiako Estatua bilatzen ari



Libre Plataformako kideak Bergaran, Artatsen, prentsaurrekoan. | J. BEREZIARTUA

zena ez da lortzen ari, eta ez du lortuko", adierazi zuen Libre Plataformako Ana Jauregik. Halaber, gogora ekarri dute Espainiaren "blokeoa" gainditzeko "aurrerapauso oso esanguratsuak" izan direla: tartean, Estrasburgoko sententzia, presoen agiria eta urtarrilaren 11ko manifestazio "bateratua".

Eta horren harira, Artatse elkarteko arduradun Roberto Martinezek mezu "argia" zabaldu gura izan zien herritarrei: "Herri gisa erantzuteko garaia da, pertsona libreak herri librean bizi nahi dugulako. Elkartasunetik konpromisora, lortuko dugu".

**Hitzaldia eta bertso saioa**

Epaiketok Debagoienean zein eragin izan duten ere ekarri zuten gogora: "Hiru herriko taberna, hainbat lokal, hiru elkarte gastronomiko, tartean prentsaurrekoa ematen ari garen hau, eta eskualdean lan egin eta bizi den gaztea, Irati Muxika".

Eta hori guztia salatzeaz gainera, datorren astean hasiko diren ekintza iragarri dituzte Arrasaten zein Bergaran; tartean, hitzaldiak, kontzertuak eta goi mailako bertso saio bat.

**Informazio gehiago:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

# EKI proiektu digitala ezagutzera, Jaurlaritzatik

**EDURNE BALTZATEGI** | DEBAGOIENA

Hezkuntza Saileko hiru arduradun (Mikel Agirregabiria, berrikuntza zerbitzuetako zuzendaria; Josi Sierra, IKT arduraduna Hezkuntza Sailean eta Txabi Perez, Berritzegune Nagusiko IKT arduraduna) eta EHIko beste hiru ordezkari Arizmendi Ikastolako Gaztelupen izan ziren astelehe-



Hezkuntza Saileko arduradunak eta ikastolakoak, Arizmendin. | EDURNE BALTZATEGI

nean, EKI digitalaren inplementazioa bertatik bertara ezagutzen. Ikastolen Elkarteak sortuta, konpetentzietan oinarrituta dagoen egitasmo bat da EKI, eta integrazioaren pedagogian uztartua dago. Gainera, euskal curriculuma dauka abiapuntutzat.

Ikastolen Elkartekoek EKI egitasmorako sortu duten materiala paperean ez ezik digitalean ere sortu dute, eta modu esperimentalean lau ikastolak jarri dute martxan aurtengo ikasturtean digitalizazio bidez. Horietako bat da Arizmendi Ikastola. Hezkuntza Sailak interes handia dauka ikasleek modu horretan lanean has daitezen, eta horregatik bisitatu dute Arizmendi Ikastola.

# Debagoieneko eskaintza turistikoa Fitur azokan

**U.M.** | DEBAGOIENA

Eguaztenean ateak zabaldu zituen Fitur Nazioarteko Turismo Azokak Madrilen, eta haraino eraman dute Debagoieneko eskaintza, Euskadiko *stand*-era, hain justu ere. Gipuzkoa barrualdeko eskualdeen eskaintza biltzen duen gunean eskuratu ahal izango da gure herrietako aukeren berri. Adibidez, Arrikrutzeko kobak, Debagoieneko ibilbide eta bisitak, otordu eta lotarako aukerak eta Inaziotar Lurraldearen gainekoak jaso ahal izango dira.

# Labeldun txerrikiak gutizia izango dira gure bailaran

**JON BEREZIBAR** | ARRASATE

Jardunaldi Gastronomikoen atal berrian txerriki gutiziak dira oraingoan lehengai. Hilaren 27tik (astelehena) otsailaren 2ra bitartean Eusko Labela duen txerria izango da ardatza Debagoieneko Jardunaldi Gastronomikoetan. Menuak eskainiko dituzte jatetxeek, aurrekoetan baino merkeago; ohiko dastatzeak egongo dira eta errezeta lehiaketa ere antolatu dute Debagoieneko Mankomunitateak eta Deba Garaia landa garapenerako elkarteak.

**Mikel Olabe** | Ordaindu Elkarteko bozeramailea

# "Gure ekarpenek izaera preferentea izan dezatela gurako genuke"

▶ Astelehenean egin zuen Ordainduk elkarte modura sortzeko batzarra

▶ 30-35 milioi euro arteko ekarpen eta bestelakoak ordezkatzen ditu

**UBANE MADERA** | ARRASATE

Astelehenean eratu zen Ordaindu Elkartea ofizialki. Mikel Olabe ordezkariarekin izan gara:

**Ze ezaugarri ditu Ordainduk?**

700 bazkide inguru gara. Dirutan, 30-35 milioi euro arteko ekarpen boluntario eta merkataritza maileguak ordezkatzen ditugu. Hori bakarrik da kapitala, aparte daude interesak. Elkartea astelehenean sortu genuen arren, oraindik norbaitek kide izan nahiko balu gure helbidera idatzita nahikoa luke: *ordaindu123@gmail.com*. Hiru hiletik behin 25 euroko kuota da ordaindu beharrekoa. Bestalde, Edesakoek ere antolatu dute beste elkarte bat: Eskuratu. 300 bat bazkidek osatutakoa da. Elkarrekin dihardugu lanean.

**Zeintzuk dira aurrera begira emango dituzuen pausoak?**

Nahi dugu gure ekarpenen izaera aldatzea. Orain arruntak dira (ordinarioak) eta gura dugu epaileak lehentasunezko izaera ematea (preferenteak), eta kobratu ez ditugun interesak aintzat har ditzatela. Horrez gainera, abokatuek aukera ikusten dute erantzukizunak eskatzeko. Mondragon Taldearen, Fagorren Eta Laboral Kutxaren gain eroriko beharko lirateke, gure ikuspuntutik.

> **"Mobilizazioekin segituko dugu, eta haiek gogoratzea ez dugu baztertzen"**

**Gisasolak dimititu egin du...**

Azpimarratuko nuke, hasteko, seguru asko, Fagor Etxetresnak erortzea izan bazen arrazoi nagusia, urrian dimitituko zukeela. Hala ere, nahiko nuke gogora ekarri Fagorreko bazkideek Gisasolaren gainean presioa egin dutela, eta sindikatuek ere bai. Bestetik, hainbat puntu badaude aztertzekoak. Adibidez, uste dut askok ikusi dutela MCC ez dela



Mikel Olaben. | U.M.

kanpotik zirudiena; besteak beste, erabakiak hartzeko organo gorenetan ez dagoelako Kontseilu Sozialaren ordezkaritzarik. Hortik aparte, badakigu eztabaidatzen ari direla MCCk ze orientazio izan behar duen. Horren harira, MCCren bazkide guztiok parte hartu beharko genukeela uste dut. MCCk zer izatea nahi dugun denon artean eztabaidatu. Eta gizarte demokratiko batean gaudenez, nahi duenak MCCko presidente izan aurkez dezala programa bat eta sufragio unibertsal bidez denok aukeratu. Horren harira, bazkideek kooperatiban parte hartzeko gaur egun erabiltzen diren metodokoak 50eko hamarkadakoak dira, eta gizartea aldatu den moduan (geroago eta eredu parte-hartzaileagoak eskatzen dira) uste dut kooperatibaren funtzionamendua ere aldatu egin beharko litzatekeela. Eta azkenik, uste dut kooperatibak, kapital soziala duten neurrian, asmakizun ona direla. Baina zenbat eta tamaina handiagoa izan, orduan eta nabarmenago distortsionatu egiten dela haien izaera.

**Besterik nahi baduzu gaineratu...**

Mobilizazioekin segituko dugu, eta haiek gogortzea ez dugu baztertzen. Bestalde, elkartasuna gurako nieke adierazi aurre-erretiratu behar izan direnei, eta behar badute, gure laguntza eskaini. Eta birkokatzeekin lotuta, haiek erabakitzeko irizpideak aldatzeko eskatu nahiko nuke, irizpide objektiboak gailendu daitezela test psikoteknikoen aurrean.

Iñaki Galdos | Hamaikabat alderdiko presidente ohia

# "Guardia zibilekin sartu ziren duela 40 urte Oñatira etorri ziren ikasle iparramerikarrak"

- Dokumentala eta liburua prestatzen dihardu Galdosek gazte haien gainean
- 'Basque Tribune' aldizkari digitala da oñatiarrak esku artean daukan beste proiektua

ENEKO AZKARATE | OÑATI

Hamaikabaten "porrotaren" ostean politika beste modu batera jarraitzen du orain, besteak beste, *Basque Tribune* proiektu komunikatiboaren bitartez. Baina beste proiektu bat badauka esku artean: duela 40 urte Oñatira etortzen hasi ziren gazte unibertsitario iparramerikar haien gaineko liburu eta dokumentala prestatzen dihardu. Horri buruz jardun dugu Iñaki Galdosekin (Oñati, 1966) bere herrian.

**Ameriketako Estatu Batuetatik, Boisetik, Oñatira hainbat ikasle etorri zirela 40 urte betetzen dira aurten, ezta?**

Bai, 1974-75 ikasturtean etorri ziren Oñatira. 9 hilabeteko egonaldia egin zuen lehen talde hark. Izan ziren aurrekariak, egonaldi laburragokoak, Ustaritzen edota Arantzazun, baina Oñatira etortzen hasi zirela 40 urte dira.

**Zer dela-eta, zela, etorri ziren Euskal Herrira eta, zehazki, Oñatira?**

Bueno, Arantzazu ezagutzen zuten, Oñati oso herri euskalduna zen eta, bestetik, Carmelo Urzak kontatzen du kasualitatea ere izan zela. Esaterako, ETEO eskolaren lehengo eraikinean agustindarrek bazuten abadegaiak hartzeko tokia, baina Elizaren krisiagatik-eta hutsik zen; hortaz, tokia bazen han... Oro har, orduko testuingurua ulertu behar da, gakoak, eta 70eko hamarkadaren ezaugarri bereziak: Euskal herriko egoera politikoarekiko jakingura berezia zegoen, Burgosko epaiketa... Diaspora aldatzen zihoan, folklorea, sukaldaritza, elkartasuna.. ziren haren ezaugarriak, baina elementu berriak ere sortu ziren, bereziki, politikarekiko berpizkundea, belaunaldi berriak, euskal kultura eta euskararekiko interes berria. Eta erabakigarria izan zen unibertsitatearen inplikazioa. Renon sortua zen ordurako Basque Studies, gero Boisen... Gaur egun Ameriketako Estatu Batuetan indartsua zen unibertsitate programa bat, USAC, sortu zen Oñatiko esperientzia honetatik eta horren sortzailea izan zen Oñatin egon zen Renoko ikasle bat.

**Zeure blogean diozu lehergailuak -eta ipini zizkietela hasieran.**

Bai, hori hala da, ETEOn bertan jarri zituzten aste batzuk lehenago eta horrela aitortzen du Xabier Zumalde *El Cabra*-k. Bestetik, guardia zibilek eskoltatuta sartu ziren gazte hauek —20 bat urteko 60 bat lagun ziren— Oñatira. CIAkoak zirela ere zabaldu zen, drogak zekartzatela Euskal Herrira... Hasieran, beraz, arazotxo batzuk izan zituzten, baina berehala integratu ziren eta, batzuek bikotekidea ere aurkitu zuten Oñatin.

**Euskara ikastera etorri ziren?**

Berez, horretara, zehazki, ez. Batzuk bai, beste batzuk ez... Euskal kultura ezagutzera bai. Euskararekin lotuta, aipatu nahi dut euskara ikasteko metodo bat sortu zuela 1968an Ameriketako Estatu Batuetan Joe Egigurenek.

**Oñatira etorri zirenen artean zegoen Billy Petersen, CSI telebistako saioko protagonista?**

Bai, haren alaba, Maite, hemen jaio zen. Gure asmoa bada harekin ere berba egitea. Etorri zen besteetako bat Boiseko telebista bateko aurkezle famatua da, Carmelo Urza USAC programaren sortzaile izan zen, Chris Bieter epailea da, haren anaia alkatea. Hau ez zen hona etorri, baina familia hartakoa da. Oñatira zazpi bat urtez etorri ziren eta, ondoren, Donostiara egin zen jauzia, EHUra, USAC programaren bitartez...

**Noiztik dituzu harremanak Boiseko euskaldun jatorrikoekin?**

Aspalditik, ordutik, Oñatira etorri zirenez geroztik. Gure familiak beti izan du harremana Ameriketako Estatu Batuetako euskaldunekin, batez ere Boiseko batzuekin eta, bereziki, Bieter familiarekin. 1974ko irailean ateratako argazki baten agertzen naiz Oñatira etorritako batzuekin, Chris Bieterrekin ere bai, artean 8 urteko mutikoa nintzela. Gaur egun, haren anaia Dave Bieter da Boiseko alkatea. Bietertarrak oso ezagunak dira Boisen. Esaterako, bi hauen aitak sortu zuen handik gurera ikasleak ekartzeko programa. Aitzindaria izan zen, gaur egun ezagutzen dugun Erasmusen antzekoa.

**Zein zen Chris eta Dave-ren aita?**

Pat Bieter. Irlandar jatorrikoa. Unibertsitateko irakaslea, baina baita politikaria ere, Demokrata, Idahoko Kongresuaren izenean, senataria. Haren emaztea, Eloise Garmendia, euskal jatorrikoa zen. Istripu tragiko baten hil ziren biak, 1999an.

**Eta zerbait berezia izan nahi izan duzu 40. urteurrenaren harira?**

Bai, beti izan dut gogoan data hori. Boisen, euskaldunen jaialdi handi bat izaten da bost urtetik bost urtera eta 2005ean, 30. urteurrena bete zenean antolatu zituzten erakusketak, hitzaldiak, eta abar. Eta jabetu nintzen bazegoela materiala zerbait berezia egiteko. Hortaz, hango jendearekin-eta berba egin ostean, erabaki nuen lan honi heltzea. Hasierako asmoa liburua egitea zen, baina, hemeroteketan-eta arakatu ostean, ohartu ginen ikus-entzunezko baterako ere bazegoela materiala. Jarri gintuen harremanetan Asier Altuna zinegile bergararrarekin, eta hura oso lanpetuta zegoenez, Koldo Almandozekin egitea erabaki dugu. Gidoiarekin lanean dihardugu, finantzazioa topatzen, dokumentazio lanetan...

**Bete-betean sartu zara, hortaz, liburua eta dokumentala egiten.**

Bai, horretan dihardut eta Ameriketako Estatu Batuetara joango naiz aurki. Hainbat faktore daude interesgarri egiten dutenak proiektua, eta, gainera, gutxi idatzi da honi buruz. Liburua baliatu nahi dut, era berean, euskal diasporaz jarduteko, momentu bereziak gogoratzeko eta pertsona konkretu batzuen gainean berba egiteko; horien artean, Joe Egiguren Pat eta Eloise Bieter, Yon Oñatibia...

**Aurki zoaz Boisera, hortaz?**

Bai, hilabete batzuk emango ditut han, 2015erako dena gertu izan nahiko nuke, bai liburua eta baita dokumentala ere. Esan dudan moduan, bost urtetik behin jaialdi berezia egiten da Boisen eta 2015eko uztailean egingo da berriro. Testuinguru horretan, 40. urteurrenaren amaieran, aurkeztu nahiko genuke dena.

**Badira urte bi eta erdi alderdi politikoetatik eta erakunde publikoetatik urrun zaudela. Zer duzu esku artean une honetan aipatu dugun proiektu horrez gain?**

Komunikazio proiektu baten murgilduta nago buru-belarri: *Basque Tribune*. Ingelesez idatzitako aldizkari digital bat da, Euskal Herriari buruzkoa. Ez daukagu erredakzio edo kazetari lantalderik eta kolaboratzaile sare zabala daukagu. Kontseilu editorial bat daukagu eta gai jakin batzuen gainean idazteko enkargatu egiten dizkiegu artikuluak kolaboratzaileei: Mikel Alonso futbolari izandakoa, Juanjo Alvarez, Sixto Jimenez, Jule Goikoetxea, Daniel Innerarity, Aingeru Epaltza... Urtebete daroagu horrekin, ilusio handiarekin gabiltza. Ameriketako Estatu Batuetan ezagutarazten gabiltza eta hango hainbat jende batu nahi dut proiektura. Bestetik, hainbat hedabidetan kolaboratzen ere badihardut. Alderdi politikoetatik aparte, baina politika gertutik jarraitzen dut. Mutikoa nintzenetik gustatu izan zait politika eta modu asko daude politikan jarduteko. Esaterako, zapatuan aurkeztuko da Oñatin *Gure Esku Dago*. Parte hartzeko gonbita egin zidaten eta han izango naiz. Alderdi politiko askotariko jendeak, kiroletako jendeak... deitzen dit aldiro hainbat gairen gainean nire ikuspuntua jasotzeko...



Iñaki Galdos, martitzenean, Oñatin. | ENEKO AZKARATE

**"Gaur egungo Europako Erasmus modukoa izan zen esperientzia hura"**

**"Ikasleak CIAkoak zirela zabaldu zen eta lehergailuak jarri zituen ETAk"**

**"Dokumentala zuzenduko du Koldo Almandozek, orduko ikasleen gainekoa"**

**"Aurki Boisera (Idaho) joango naiz hainbat testigantza jasotzera"**

**Elkarrizketa osoa:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

## ZABALIK

**MARTIN CALVO**
http://goiena.net/iritzia/



# Jabego intelektuala kolokan

Jabego intelektualak arerio boteretsuak izaten jarraitzen du; garrantzitsuena, teknologia berriek ahalbidetzen duten legez kanpoko eskuratzea. Estatuko biztanleen kontsumo ereduak neurtzen dituzten txostenek pirateriaren egikeran potentzia mundialtzat jotzen gaituzte, Txina, Hego Korea edo Vietnamekin parekatuz. 28ko Europan legez kanpoko *on line* jaitsieren zerrendan lehenak gara.

Askatasuna lapurreta hutsarekin nahastu da; atzean sekulako hezkuntza eta kultura gabezia ezkutatzen da. Honakoa etengabeko eraldaketara behartuta dagoen kultur industria (Barne Produktu Gordinaren %6 Euskadin) suntsituz doan errealitatea dugu. Milaka lanpostu desagertzen dira urtero liburugintza, zinemagintza eta musikagintzaren sektoreetan pirateriaren ondorioz.

Indarrean diren arauen erreforma proiektuek, beharrezkoak izanik, ez diote arazoari errotik helduko jabego intelektualaren eta autore eskubideen alde benetako pedagogia bideratzen ez badute, eskoletatik bertatik hasita. Giza Eskubideen Deklarazioak badu kontzeptu bi hauen aldeko aipamenik (17 eta 27.2 artikuluak), baina aitorpenek eta legeek ekarritakoa gutxi izan da.

Jabego intelektualaren aurkako beste fronte bat fiskalitate eredua dugu. Gobernu kontserbadoreek, norbanako fisiko eta juridikoek irabazitakoaren zerga zuzenak era progresiboagoan aplikatu ezean, kontsumoa mugatzen duten zerga ez zuzenak indartzen dituzte. Estatuan ezarritako BEZaren %21 kontsumo kulturala itotzen ari da, baita ekoizpen eta autoretza kulturala ere. Autore eta Argitaratzaileen Elkarte Nagusiaren arabera, 2008tik arte eszenikoen ikuslegoa %28 jaitsi da Euskadin.

Jabego intelektualaren funtsa den autore eskubidea adierazpen kulturalaren bermea da. Autore eskubiderik gabe ez dago kulturgintzarik, ezta ekoizpen kulturalarekin batera joan ohi den gizarte heldu eta kritikorik ere.

**"Autore eskubidea adierazpen kulturalaren bermea da"**

## GUTUNAK

# Palmerakletan parte hartu duzuenoi eskerrak

**Unai Ziarsolo**
Bergara

Joan zen asteburuan Palmerakuak mendi bizikleta zale kolektiboak antolatutako ekintzetan parte hartu zenuten guztioi gure esker ona adierazi nahi genizueke.

Egubakoitzeko Etiopiako bideo emanaldian 80 lagunetik gora izan ginen, zapatuan plazan izandako erakusketa hainbat jendek ikusi zuen eta domekako mendi bizikleta irteeran 55 lagun izan ginen, Bergarako eta kanpoko mendi bizikleta zaleok lokatz artean disfrutatuz.

Guztiei gure esker ona.

Bereziki, Markel Uriarteri zapatuan egin zuen erakustaldi bikainagatik, Alberto Bolañosi bere bizikleta bilduma herritarroi gerturatzeagatik, Irazabalbeitia Garraioei logistikagatik, Agorrosingo futbol zelaiko tabernakoei domekan eman ziguten hamarretako bikainagatik, Juan Arbeloa eta Dabid nafarrei beraien bizipen afrikarrak gurekin elkarbanatzeagatik, M. Altuna Institutuari aretoa uzteagatik eta, oro har, Palmerakleta arrakastatsua izaten lagundu duzuen guztiei.

Bukatzeko, mendi bizikleta hartu eta gure bazterrak ezagutzera etorri nahi duzuen guztiei gogoratu Ibargaraiko Palmeratik irteten garela domekero 09:00etan.

Gonbidatuta zaudete.

# Konfiantza berreskuratu nahi dut?

**Oier Etxebarria**
Aretxabaleta

Egunero bezala arratsaldea da eta gure seme-alabekin kalean gaude; pilotarekin jolasean ari diren gazteei begira eta eguneroko elkarrizketaldiaz gozatzen.

Mutil gazteak jolasten ikustean poza sentitu dut, guk ere horrelakoak egiten genituenekoak gogoratuz.

Ilundu du, eta tenperatura jaisten sentitu arren, etxerako ordua luzatu dugu, denok gustura gaudelako.

Gutxitan bezala, gaur motxila ekarri dut lanetik eta etxera joan garenean, ahaztuta utzi dut. Portalean sartu aurretik gogoratu eta bere bila joan naiz, norbaitek hartu duen beldur.

Motxila jaso baino metro batzuk lehenago, jolasean ari zen mutil taldeaz topo egin dut, eta, beldurra arintzearren, atzera begiratu azkar batez, gainean ez zeramatela ikusi dut; lotsa ere eman dit eta euren begirada ere sumatu dut, garrantzirik eman ez diodan arren.

Heldu naizenean ez dago inor jolastokian, baina motxila ikusi eta dena barruan zeukala iruditu zait.

Jolastokitik ateratakoan mutilen arrastorik ere ez dago, baina horrek ez dit konfiantza galarazi eta pozik noa, eguna bukatzera doala eta gaurkoa ere egun ederra izan den sentsazioaz.

Pozak ez du askorik iraun, dena den; etxera heltzean, kanpoko poltsiko batean neukan diru poltsaz gogoratu eta aurkitu ez dudanean, pilotarekin jolasean ari ziren mutilak etorri zaizkit gogora.

Ezagutzen ditut, aretxabaletarrak dira eta elkarrekin herriaz gozatzen egon gara, baina eurengan dudan konfiantza galtzear nago.

Dirua berreskuratu nahi dut eta betiko gogoratuko dudan keinuaren zain nago, dirua bueltatuko didaten esperantza eta konfiantza daukat; ikusten ditudanean eskatu egingo diet, baina ausartuko dira bueltatzera? Baietz espero dut; lerro hauek irakurtzen dituzuenerako nire konfiantza berreskuratuta izango dudala espero dut.

Eskerrik asko aldez aurretik, mutilak, Aretxabaletan konfiantzaz eta lasai bizitzen jarraitu nahi baitugu denok.

# Paliatibokoen lana baloratu eta eskertu

**Mari Karmen Irazabal Bolinaga**
(Eugeni Bolinagaren seme-alaben izenean )
Arrasate

Azken bi hilabeteak bereziak izan dira Eugeni Bolinagarentzat eta bere etxekoentzat.

Bizirik zegoela beti familiaz eta lagunez inguratuta egon zen eta bere azken ibilbidea horrelakoa izatea nahi izan zuen.

Une berezi horretan bidelagun berriak sartu ziren gure etxera, Jesus Millas eta Magda Cuesta paliatiboko kideak. Berari entzun, bere nahia errespetatu eta behar zuen momentu guztietan bere ondoan egon ziren.

Laguntza paregabea izan da Eugenirentzat eta etxekoentzat.

Eskutitz honen bidez, egindako lana eskertu nahi dizuegu.

# Aulki hutsaren esker ona

**Maite Aristegi Larrañaga**
(Etxekoen izenean)
Bergara

Lurrean eman beharreko argi guztia emanda, itzali berri da gure ama, kandelatxo bat bezala.

Eta sentimendu mordo bat pilatzen dira gure barrenean.

Baina hutsune eta tristuren gainetik, bada bat gailentzen dena: esker onekoa.

Bizitza maldan behera abiatzen denean, ingurukoen zaintza, laguntza, konpainia eta gaitzak arintzeko ahalegina zelako inportanteak diren orain konturatzen zara.

Horregatik, lerrotxo hauen bitartez gure eskerrik sentikorrena eman nahi diegu urteetan izandako anbulatorio eta ospitaleetako ibilbidean goxo eta hurbileko izan dituen sendagile, erizain, langile eta bereziki azken urtean zaintza aringarrietan lagun izan dituen Jesusi eta Magdari.

Sufritzen egonda ere, amak egiten zizuen irribarre hura gure gogoan, zuen lanaren balio neurrigabearen ikur.

Garaiotan, pertsonen beharrei erantzuteko zerbitzuetatik kendu eta kapitalaren mesedeetan etengabe neurriak hartzen ari direnean, gogoratu beharra dago zerk beharko lukeen lehentasuna: pertsonen osasuna eta duintasuna babesteak.

Osasungintza, zaintza eta horretarako ikerkuntzan behar besteko aurrekontuak izatea.

Era berean, zahartzaroan, gaixoaldian, inguruko eta lagunen bisita eta laguntza ere zenbat eskertzen diren, orain konturatzen zara.

Beraz, eskerrik asko amari egonaldia arintzen lagundu diozuen guztiei eta gu ere izan gaitezela gai beste batzuei hala laguntzeko.

Musu bat denoi.

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.**
**Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa, 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
**Argazkilaria** Imanol Soriano
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

**Igor Loiti** | Almacenes Arrasate saltokiko ugazaba

# "Lehentasuna beste marka batzuei eman behar izan diegu"

**22 urtean Almacenes Arrasateko salmenten %90 Fagor izan ostean, BSH Taldera (Siemens, Bosch, Balay...) aldatzeko erabakia hartu behar izan dute; erabaki mingarria baina beharrezkoa izan da eurendako**




Igor Loiti, Almacenes Arrasate dendako ugazaba dendan bertan.

**Almacenes Arrasate 1992ko ekain-uztailean zabaldu zutenetik (Arrasateko Kataide industrialdean) Fagor Taldearen produktuak izan dituzte izar. Beste marka batzuekin lan egin arren, salmenten %90 Fagorreko produktuenak izan dira. Orain arte. Orain, BSH Taldera (Bosch, Siemens, Balay, Ufesa...) pasatu behar izan dute, halabeharrez, Igor Loiti (Arrasate, 1977) bertako ugazabak azpimarratu digun moduan.**

**Halabeharrez; zergatik diozu hori?**

Guk beti saldu izan ditugu beste marka batzuk. Adibidez, Bosch taldearekin hasieratik dihardugu lanean bai Arrasaten eta baita Durangon ere, eta bietan saldu izan dugu ondo. Baina Arrasaten saldu izan dugun %90 Fagor izan da, eta Fagorrekin geneukan tratua zen guretako "neurrira egindako jantzia", baldintza bereziekin-eta. Orain, baina, gure zoritxarrerako Fagorrek ez digu produkturik zerbitzatzen. Fagorren azkeneko kamioia urrian sartu zen hona. Biltegian genuen generoa (labeak, indukzioak, mikrouhin-labeak, kanpaiak...) saldu egin dugu, eta ez dizkigute berririk ekartzen. Eta ezin duguna da dugun potentzialitatea izanda, denda itxi. Orduan, egin duguna da Fagorreko salmenta guztiak Bosch taldera aldatu.

**Erabaki mingarria izan da?**

Ba, pentsa ezazu: batetik, 22 urtean batez ere Fagor saltzen ibili ostean, produktua goitik behera ezagutzen genuen. Hori galdu egiten dugu. Baina mingarria izan da Fagorrekiko dugun sentimenduarengatik. Azkenean, marka batekoa edo bestekoa izan, garbigailu bat saltzeko ez dut arazorik; Fagor edo Bosch, irabazi aldetik, kopuru bera irabazten dut... baina saltzen genuen Fagor Arrasatekoa zelako, hemengoa. Fagor salduta dirua hemen geratzen zen. Eta guk badugu sentimendu berezia Fagorrekiko. Aita izan zen Fagorreko 86. bazkidea, gero zerbitzu teknikoko burua... Baina aldatzea beste erremediorik ez dugu izan.

**Bosch taldea, BSH Taldea... aurkez iezaguzu, bada.**

Oso talde ona da. Lehen marka da Siemens, bigarrena Bosch eta hirugarrena Balay. Baina nahiz eta Balay markarik baxuena izan, prezio aldetik, askotan Siemens hobeto irteten da. Zergatik jotzen dugun, bereziki, talde bakarrera? Bakarrean zentratuz gero, beti zerbitzu hobea eman ahal diogulako bezeroari. Horrek ez du esan gura beste marka batzuekin lanik egiten ez dugunik. Adibidez, AEG, Zanussi, Otsein, Candy, Indesit... ere saltzen ditugu. Baina asmoa da zentratzea kalitate/prezio aldetik ondo dagoen eta erantzuten duen marka batean. Eta Boschekin hasiera-hasieratik lan egin dugu eta ikusi dugu marka ona dela.

**Boschek, baina, badu garesti fama...**

Hozkailuetan, adibidez, Fagor baino merkeago dago. Eta garbigailu, labe eta indukzioetan prezioak dira antzerakoak edo 10-15 euro garestiagoak bakarrik. Uste dut alde hori ez doala inora. Horrexegatik erabaki dugu Boschekin lan egitea. Eta kalitate-prezio aldetik oso marka ona da, zerbitzu teknikoak (SATak) ondo funtzionatzen du...

**"Fagorrek ez digu produkturik zerbitzatzen"**

**"Hasieratik ikusi dugu Bosch marka ona dela"**

**Hala ere, oraindik badituzue Fagor markako tresna batzuk...**

Bai, bai. Eta alde horretatik gure bezeroei lasaitasunerako mezua helarazi gurako nieke. Izan ere, marka guztiek moduan, Fagorrek ere badauka bi urteko garantia legez, eta legeak, baita ere, fabrikatzailea behartzen du zazpi urtean piezak eta osagaiak izatera. Eta zerbitzu teknikoak jarraitu egingo du.

**Izan ere, oraindik badaude bezeroak Fagor nahi dutenak, ezta?**

Bai. Kasu batzuetan ez dute beste aukerarik. Sukalde guztia Fagor baldin baduzu, horrek ezaugarri bereziak ditu dekorazio aldetik, eta, adibidez, Bosch jarriz gero, igarri egingo litzateke.

**Orain zuek izango zarete BSH Taldearen hornitzaile nagusia?**

Gu Tien 21 katearen barruan gaude. Berori da Espainiako katerik garrantzitsuenetakoa eta horri esker marka guztietan oso baldintza onak lortzen ditugu. Beraz, ez diogu beste marka batzuk saltzeari lagako. Baina bai zentratu gura dugu BSH Taldean. Almacenes Arrasaten 800 m2-ko biltegia dugu. Eta horrek aukera ematen digu beste denda askok baino produktu gehiago erosteko eta merkatuan dauden beherapenak hobeto aprobetxatzeko. Adibidez, dendan aukera dugu beherapen onak daudenean horiek aprobetxatu eta produktu kopuru handia erosteko eta dugun biltegia goraino betetzeko. Eta gure biltegiari esker, aukera dugu guk eskuratutako beherapenei luzaroago eutsi eta bezeroari aplikatzeko. Eta horrez gainera, bezeroarendako inportantea ere badena: biltegiak aukera ematen digu erositako produktua egunean bertan entregatzeko.

**"Sentimendu berezia dugu Fagorrekiko, hemengoa da"**

**"Mingarria izan da markaz aldatu behar izatea"**

**Besterik nahi baduzu gaineratu...**

Nahi duguna da bezeroei esplikatu orain arte Fagor erosi badute eta erosi gura badute, lasai egoteko. Bermea baduela. Baina guri gertatzen zaiguna da ez digutela produkturik zerbitzatzen. Eta egin duguna da ikusi ze marka dagoen ondo guretzat eta bezeroentzat, eta Fagorreko salmentak marka horretara aldatu. Ahaztu barik Tien 21 katean egonda pluraltasunerako aukera ematen digula horrek, eta horri esker beste marka batzuk ere baditugula. Laburbilduz, beraz, bezeroei esan gura diegu ez gaudela hilda, ezta gutxiago ere. Beti egin dugula Fagorren alde, harekiko dugun sentimenduarengatik, baina beste marka batzuk izan ditugula hasieratik eta izaten segituko dugula.

## DUELA 10 URTE

2004-01-23

### Tranbiaren ibilbidea finkatu zuten

Debagoieneko tranbiaren lehen zatia egiteko lanak 2005ean esleitu nahi zituztela iragarri zuten eta ibilbidearen gaineko argibideak ere eman zituzten Arrasaten eginiko prentsaurrekoan. Bertan izan zen, besteak beste, Alvaro Amann, Herrilan eta Garraio sailburua. Agerraldi berean adierazi zuten AHTrako ibarretik "hurbil" legokeen lotura bat lortzen saiatuko zela Eusko Jaurlaritza.



Proiektuen argibideak ematen. | LEIRE KORTABARRIA

2004-01-23

### Garibaiko aparkalekua egiteko lanak

Arrasaten, Garibaiko lur azpiko aparkalekua egiteko lanak hasi zituzten. Orduko *Goienkaria*-n aurreratzen zen hurrengo bi urteetan eraldaketa handia ikusiko genuela Garibai inguruan, besteak beste: zuhaitzak botako zituztela, jarlekuak kendu eta gorde eta kioskoa lekuz aldatuko zutela. Aurreikusten zen 18 hilabete iraungo zutela lanek; eta hala, 2005eko udarako erabilgarri egongo zela aparkalekua.

## DUELA 5 URTE

2009-01-23

### 'Merkatua.net' webgunea

Debagoieneko 75 denda txiki elkartu eta *merkatua.net* webgunea aurkeztu zuten, Goienarekin batera. Internet bidez erosketak egiteko aukera ematen zuen webgune horrek eta bezeroak 48 orduan jasotzen zuen produktua etxean. Bada, aukera on moduan ikusten zuten bailarako denariek sarea.

## HERRITARRAK

OÑATI

**Natxo Santos** Askok entzun izan dute haren izena EiTBko *Eguraldia* saioan, argazkiak bidaltzen ditu–eta; pertsonalki, baina, jende gutxik ezagutzen duela dio. Horretarako tartea hartu dugu. | IRATI GOITIA

# "Jendeari herriko argazkiak telebistan ikustea asko gustatzen zaiola uste dut"


Natxo Santos argazki-kamera eskuetan duela eta atzean Oñati eta Aloña. | IRATI GOITIA

Soldatzailea da izatez Natxo Santos, baina soldagailuarekin baino gehiago, argazki-kamerarekin ikusten dugu hainbat ekitaldi eta txokotan eguneko irudi onena ateratzeko gertu.

**Beti daroazu kamera gainean?**

Bai; izan ere, gertatu izan zait kamera ez eramatea eta objektiboaz harrapatu beharreko zerbait ikustea. *Mekaguenka* hasten naiz. Emaztearekin ibilaldi bat egitera irteten naizenean, txantxetan esan ohi diot 'hirurok' goazela. Eta hark askotan esaten dit lehenago utziko nukeela hura etxean, kamera baino. Txantxa izaten da, ordea. Hark ere gogorarazten dit kamera hartzeko; bestela, arraro ikusten nau.

**Nola hasi zinen argazkigintzara afizionatzen?**

Oñati ikaragarri polita den herria da eta beti gustatu izan zait ikusten dudana jasotzea. Hasiera batean bideokamerarekin hasi nintzen. Familian izaten genituen bazkari edo gertakizunak jasotzeko ondo zegoen, baina ez zidan gehiagorako ematen. Hala, argazki-kamera analogiko bat oparitu zidaten, baina argazki asko ateratzen nituen eta erdiak gaizki ateratzen nituen. Izugarri garestia zen errebelatzea, gainera, eta irudien erdiak gaizki... Argazki -kamera digitalak irten zirenean bat erosi nuen. Ikaragarri kostatu zitzaidan, 1999. urtea zela uste dut eta 68.000 pezeta ordaindu nituen. Oraindik etxean dut gordeta, ezertarako balio ez duen arren. Kamera harekin sartu zitzaidan benetako harra.

**Nola joan zara ikasten?**

Nire kabuz joan naiz ikasten, poliki-poliki. Hasieran, ez nuen ulertzen eguzki betean ateratzen nuen argazki bat zergatik erretzen zitzaidan edo ez nekien ezer angeluaren edo azkartasunaren inguruan. Nik tematuta jarraitzen nuen, ordea. Akatsetatik ikasten joan naiz. Oraindik ere egiten ditut, egunero ikasten da zerbait. Egun, gainera, Internetekin oso erraza da. Zerbait tekleatu eta bertan duzu erantzuna.

> **"Emazteari askotan esaten diot 'hirurok' goazela kalera, txantxetan"**

> **"Zuhaitz batetik zintzilik gelditu nintzen, putreak hegaz atera nahian"**

**Paisaiei eta baserri inguruei ateratzen dizkiezu argazki asko...**

Bai, baserriek liluratu egiten naute. Argazkietan kontrasteak jasotzea gustatzen zait eta Oñatin badaude argi aldaketa ikaragarriak dituzten baserri inguruak. Gainera, eszenak ezberdinak dira egunero. Ehun bider joan zaitezke baserri berera, baina argiak egunero aldatuko dira.

**Ze harrera egiten dizu jendeak?**

Argazkiak ateratzera joaten naizenean baserrietara, etxeko ateak irekitzen dizkidate. Amaitu izan dut gazta eta txorizoa jaten. Jendea oso irekia da. Ez nau jende askok pertsonalki ezagutzen, baina ikusi izan dituzte nire argazkiak telebistan. Beraz, argazkikameraz ikusten nautenean, galdezka etortzen dira ea Natxo Santos naizen. Txerri-hilketa ere tokatu izan zait baserrian, erreportaje bat egiten egon nintzen eta gozamena izan zen niretzat. Atsedenean, txokolatea hartzeko batzen zen familia osoa, eta han nengoen ni ere, familiako beste kide bat bezala.

**Milaka anekdota izango dituzu...**

Gertatu izan zait errekara joan eta erabat bustita amaitzea. Hori bai, kamera beti lehor. Edo zuhaitz batetik zintzilik gelditzea. Putre bat hegan zebilela atera nahi nuen eta zuhaitz batera igo nintzen. Bertan izan nintzen bi orduz eta jaitsi behar nintzenean motxila korapilatu zitzaidan zuhaitzean eta han gelditu nintzen zintzilik. 20 minutuz edo egon nintzen han; azkenean, askatu nintzen. Beste batzuetan, iratzargailua gaizki jarri eta goizeko ordu batean iratzarri izan naiz. Asko gustatzen zait egunsentia harrapatzea. Jende askok harrituta begiratzen dit goizeko bostetan ikusten nauenean. Haiek lanera joaten dira eta ni, berriz, disfrutatzera. Merezi izaten du goiz iratzarri Aloñara joateko argazki bat ateratzera eta berriz jaistea.

**Internetera igo ohi dituzu argazkiak; erakusketarik egiteko asmorik?**

Bai, blogera eta Facebookera igo ohi ditut; batez ere, ekitaldi sozialetakoak. Asko gustatzen zait jaietan edo Inauterietan argazkiak ateratzea, adibidez. EiTBko *Eguraldia* saiora ere bidaltzen ditut. Jendeari asko gustatzen zaio herria telebistan ikustea, letxuga batzuk izaten badira ere. Erakusteari dagokionez, badut proiektu bat, baina ez dakit... Izan ere, niri gustatzen zaidana gauza bat da eta jendeak gogoko duena beste bat. Jendea harrituta geldituko litzateke erakutsiko nituzkeen lanekin.

## NIRE HERRIAN

### :) PAISAIA ETA TXOKO POLITAK

Herri bakoitzak bere txokoak eta bere historia ditu, baina Oñati ikaragarri polita da. Nik ez ditut herriko toki asko ezagutzen, baina, argazki-kamera eskuan hartuta, banabil txoko gehiago ezagutzen. Zoragarriak dira, eta ditugun mendiak oso ederrak. Oñati alde guztietatik da polita; agian, Oñatikoa naizelako diot.

### :( KARTELAK PARETETAN

Zaila da herriko alderdi txar bat nabarmentzea. Agian, eskatuko nuke kartelak jartzeko adierazpen-guneak errespeta daitezela; bestela, eraikinak itsusi izaten dira–eta. Horretaz gain, herri zein mendietan kartel indikatiboak faltan igartzen ditut. Kanpotik etortzen den jendea galduta ibiltzen da batzuetan.

# HERRIAK

BERGARA

# Erraldoiak gidatzeko txanda iritsi zaie gaztetxoei

Bergarako Erraldoi Taldeak domekarako egin die hitzordua ume eta gazteei Zabalotegiko pilotalekuan

MIRARI ALTUBE | BERGARA

Inor jaietan gustura ibiltzen bada, erraldoiak eta buruhandiak dira horiek. Jairik jai topatuko ditugu edozein herritara joanda ere, baita Bergaran ere. Inauterietan lehenengo, Pazkoetan gero, San Martzialetan eta San Martinetan, gaitari eta txistularien atzetik, dantzan beti. Erraldoi horien atzean –barruan hobeto–, baina, herritarrak behar dira, eta hori jakinik eratu zuten Bergarako Erraldoi Taldea orain dela ia 14 urte. Orain, ume eta gaztetxoak gura dituzte taldearen bueltan, eta azken urtean horretan dihardute. Hala, domekarako, hilaren 26rako, 6 urtetik gorako neska-mutikoak elkartzeko asmoa dute, Zabalotegiko pilotalekuan (11:00): "Denboraldi berrirako ateak zabalik daude erraldoiak gustatu eta taldean parte hartu nahi duten guztiendako", diote taldekideek.



*Elhuyar anaiak*, iazko San Martin jaietan, txistularien atzerik kalejiran. | GOIENA

**'Elhuyar anaiak' umeendako**

Iaz deitu zieten lehenengoz umeei eta gaztetxoei, eurendako moduko bi erraldoi egin ostean: *Elhuyar anaiak*. "Oso esperientzia polita izan zen; hiru egunean deitu eta horietako batean 50 bat agertu ziren. Pentsa zer zen hura, ume mordoa eta erraldoi gutxi; baina nekatu ere samur egiten direnez, txanda asko egiteko aukera izan zuten", argitu du Bergarako Erraldoi Taldeko kide Ibon Unamunok. Izan ere, a ze ohorea bizkar gainean erraldoi bat eraman ahal izatea: "Guraso batzuek bezpera arte ez diete esaten umeei erraldoiekin aterako direnik; bestela, lorik ere ez dutela egiten diote", dio.

Iaz maiatzean, Pazkoetan, aurkeztu zituzten jendaurrean umeendako egindako bi erraldoi horiek. Mikel Ibartzabal bergararrak egin zituen, eta 6 urtetik gorako neska-mutikoek eroan ahal izateko modukoak dira: 2,5 metro dituzte eta 10 eta 15 kilo artean. Bergarako historian zeresan handia izandako pertsonaia bi aukeratu zituzten, gainera, erraldoiok egiteko: Juan Jose eta Fausto Elhuyar. Eguraldiak ez zien lagundu aurkezpen egun hartan, baina etxean geratzeko asmorik ere ez zuten, ez erraldoiek, ezta txikiek ere: "Beirazuntzarekin egindako pertsonaiak dira eta ez da komeni izaten bustitzea. Hala ere, 13 urtean behin bakarrik egin digu euria, iazko jaietan, hain zuzen ere. Pilotalekuan elkartu ginen orduan, eta zelan ez, jaiarekin jarraitu", argitu du Unamunok.

**40 inguruko taldea**

2000. urtera arte ez zegoen erraldoi konpartsarik Bergaran: "Ez da egon tradiziorik gurean". Bi erraldoi bai, *Joxe Bixente* eta *Mari Kattalin* bazeuden –33 urtetik gora dituzte–, baina haien ardura zuen talderik ez. Beste bi erraldoi egiteko asmoa agertu zuen Udalak orduan, eta zortzi lagun elkartu ziren haien ardura hartzeko gertu. Orain, ostera, 26 lagunek jarduten dute hiru metrotik gora dituzten pertsonaiok gidatzen, 18 eta 40 urte artean dituzten bergararrak; eta inguruan beste horrenbestek jarraitzen diete kalejira guztietan: "Bazkari bat egin dugu oraintsu lanotan ibiltzen garenok, eta 40 bat lagun elkartu ginen", dio Unamunok; izan ere, ez da komeni lanerako bakarrik elkartzea, harremanak ere zaindu behar dira: "Halako talde batek luzaroan iraun dezan eta indartsu manten dadin ezinbestekoa da giro ona, eta hori ere zaindu beharra dago".

Umeak taldera ekarrita jarraipena ziurtatu gura dute, "txanda hartuko duten herritarrak izango direla jakin". Hori buruan izanik sortu zituzten *Felixin* eta *Guti* erraldoi txikiak 2011n, eta, era berean, herriko saltsa eta perrexila diren Felix Iñiguez eta Luis Mari Gutierrez omendu guran. "Umeendako zerbait egin gura genuen, eta erdibideko zerbait dira, ez handiak, ezta txiki-txikiak ere". Izugarrizko arrakasta dute, gainera, ipotx txikien antza dutelako-edo. Orain arte, baina, nagusiek erabili izan dituzte horiek biak, 2 metroko garaiera izanik eta begiendako zuloa goiko partean, umeek, gutxienez, metro eta erdiko garaiera behar dutelako erabili ahal izateko: "Asmoa da umeak *Elhuyar anaiekin* hastea lanean, lehenengo; gaztetutakoan, *Felixin* eta *Guti* eroatea, eta gero, erraldoi handiak. Hala, kate osoa egingo dute eta bitartean ikasi erabiltzen", azaldu du Unamunok.

**Irailean Bartzelonara**

Herriko jaietan bakarrik ez, kanpoko ospakizunetara ere joan izan da Erraldoi Taldea; Bilbora, Donostiara, Azpeitira eta Soraluzera, esaterako. Bakarrik ez, gaitariekin ibiltzen dira hara eta hona, eta, herrian ez dagoenez talderik, Elgoibarkoak "adoptatu" dituzte. Aurten, gainera, Bartzelonako erraldoi konpartsa batek bidalitako gonbidapena jaso dute elkartrukea egiteko: "Irailean hara joateko proposamena egin digute, eta ezetzik ez dugu esan. Pentsatzen gabiltza, eta baliteke animatzea", dio Unamunok.

**DATUA**

**20**

UME

Iaztik 20 bat dabiltza erraldoien inguruan; orain, berriro egin dute deia.

**ESANAK**

**"50 ume agertu ziren iaz; zer zen, ume mordoa eta erraldoi gutxi!"**

**"Bartzelonara joateko gonbidapena dugu irailerako"**

IBON UNAMUNO | BERGARAKO ERRALDOI TALDEKO KIDEA

## "Ilusioarekin" gidatzen diren erraldoiak

Hamar erraldoik osatzen dute Bergarako taldea. Sei dira handiak: *Joxe Bixente* eta *Mari Kattalin* –bakoitzak, 20 kilo eta 3,50 metro– (1980); *Madalena* – 48 kg eta 3,60 m– eta *Ximon* –44 kg eta 3,65 m– (2000); eta *Peru* eta *Marixa* –bakoitzak, 38 kg eta 3,55 m– (2003). Ertainak bi dira: *Felixin* eta *Guti* –bakoitzak, 2 m eta 10 kg– (2011); eta txikiak beste bi: *Elhuyar anaiak* – 2,5 m eta 15 kg– (2013). Eta horiei beste bi erraldoi txikik egiten diete lagun jai guztietan, Jon Errasti bergarar gazteak egindakoak (2012).

Erraldoi horiek erabiltzeko ez da aparteko dohainik behar, samur gidatzeko modukoak direlako. Taldekideen esanetan, "gogoa eta ilusioa izanez gero aise gidatzen dira". Dantzan jakin beharrik ere ez dago, oinarrizko lau pauso ikasita samur gida daitezkeelako kalean gora, kalean behera, Elgoibarko gaitarien atzetik.



Bergarako Erraldoi Taldeko kideak iazko jaietan. | IMANOL SORIANO

**Udane Uribarren** | Kaonbi elkarteko kidea

# "Katuen janaria, albaitaria... Kaonbin gastu ugari ditugu"

Kaleko katuen zaintzaz arduratzeaz gain, elkartean haien adopzioez ere arduratzen dira

**I.G.** | ARRASATE

Duela urte batzuk hainbat katu hilda agertu eta gero sortu zen Kaonbi elkartea. Bada, katuen eskubideak zaintzeko asmoarekin elkarteko kide egin zen Udane Uribarren.

**Ze behar du katu batek ondo bizi izateko?**

Ura, janaria eta aterpea edo babes daitekeen lekua eta herritarren errespetua behar ditu. Etxe batean bizi izateko aukera izanez gero, hobeto.

**Herritarren babesik jasotzen duzue?**

Bai, bi albaitarik (Altamira eta Zarugalde) laguntzen digute. Horiez gain, Lagun erraustegiak eta Nebraska tabernak ere babeste dute elkartea. Nebraskan, adibidez, eskuz egiten ditugun eskumuturreko eta belarritakoak saltzen dituzte.

**Zuen ekintzetarako aurrekontu handia behar duzue?**

Katuen janaria, harea, albaitaritza, medikamentuak, katakumeentzako esnea... gastu ugari ditugu. Dirua lortzeko, azaroan adibidez, bigarren eskuko azoka bat antolatu genuen eta martxoan beste bat egingo dugu. Norbaitek azokarako gauzaren bat eman nahi badigu, guk pozik hartuko dugu. Horrez gain, *Teaming* izeneko webgune baten bidez hilean euro bat emateko aukera ere badago.

**Diruaz gain, badago laguntzeko beste modurik?**

Inork etxean mantaren bat edo katuen ohetxoren bat, janlekuren bat... badauka, horiek guztiak ongietorriak dira Kaonbin. Norbaitek boluntario lan egin edo katutxoren bat denbora baterako hartzea ere oso aukera ona da.

**Katu asko ematen dituzue adopzioan?**

Irailetik hona, 20 katu adoptatzea lortu dugu; dena den, beste askok etxe baten beharra dute. Errazena zuzenean elkartearekin harremanetan jartzea da. Facebooken eta Tuentian *Asociacion Kaonbi Arrasate* izena dugu eta *kaonbi.blogspot.com* bloga ere badaukagu.



Udane Uribarren. | Z.V.D.M.

## Gabonetako sariaren ostean, Garai Garai administrazioak beste sari bat banatu du

**I.G.** | ARRASATE

San Andres auzoko Araba etorbideko Garai Garai loteria administrazioak, Gabonetako Loteriaren sari nagusia saldu ondoren, zapatuan beste sari potolo bat banatu zuen.

Miguel Angel Zubillaga izan da Loteria Primitiboaren bost zenbaki eta osagarria asmatu dituena; bada, 40.283 euroko saria lortu duen arren, %20ko zerga ordaindu eta gero, Zubillagak 32.226 euro jasoko ditu.

**Zorte bolada ona**

Gabonetako sariaren ostean, saridunak ez ezik San Andres auzoko loteria-saltzailea ere oso pozik dago. Azken asteetan loteria gehiago saltzen ari da eta aurreko astean banatutako bigarren sari horrek ere beste bultzada bat emango dio administrazioari. Jose Mari Garai Garai loteria administrazioko arduraduna pozik dago: "Ea sari gehiago banatzeko aukera dudan", esan digu.

## San Felipe Apostol elkarteak urteko batzar nagusia egingo du domekan Kulturateko areto nagusian

San Felipe Apostol elkarlaguntzako kideek urteroko batzar nagusia egingo dute Kulturateko areto nagusian. Lehenengo deialdia eguerdiko hamabietan da eta bigarrena, 15 minutu geroago. Ohiko gai-zerrendaren barruan, azken batzordeko akta onartu eta gero, aurtengo memoria eta diru kontuen balantzea irakurri eta bozka bidez onartuko dute. Batzarra bukatzeko, gastuen aurrekontua aurkeztu eta Zuzendaritza Batzordeko karguak berrituko dituzte.

# Mugikortasun zentzudun eta orekatuaren bila

Udalak urte honetan TAO zerbitzua erdigunerantz hedatzeko asmoa dauka

**IMANOL GALLEGO** | ARRASATE

Hilabete eta erdi igaro da Arrasateko Arimazubi inguruan TAO zerbitzua jarri zenetik. Lehen hilabetean proba modura egon ostean, urte hasieratik hona zerbitzua oso-osorik martxan dago. Adituk eta Udalak adierazitakoaren arabera, zerbitzua bide onetik doa. "Dena aurreikuspenen arabera doa", zehaztu du Maider Morrasek, Udal Gobernuko bozeramaileak. Dena den, zerbitzua eraginkorragoa izan dadin, Udaletik hasi dira bizilagunen, merkatarien eta unibertsitatearen ekarpenak jasotzen.



Arimazubi inguruan jarritako TAO eremua. | JOKIN BEREZIARTUA

Zerbitzua martxan ipini zenetik, Arimazubi eta Uribe auzoetan auto kopurua txikitu egin da eta inguruetan, aldiz, ugaritu. "Adituek adierazi bezala, 2-3 hilabeteren buruan auto kopurua egonkortu egingo da", aipatu du Morrasek. Auto kopurua jaitsi dela azaltzeko, baina, Arrasateko Udaletik beste arrazoi bat ere eman dute: "Zerbitzuari esker, batzuek autoa etxean uzteko erabakia hartu dute".

Data zehatzik ez dagoen arren, TAO sistema ez da Uribarri-Loramendi gunera mugatuko, urte honetan "erdigunerantz hedatuko da", esan du Morrasek. Hala ere, TAO ez da herriko mugikortasunaren inguruan Udalak garatu duen plan bakarra.

**Hurrengo erronkak**

"Herritarren bizi-kalitatea hobetu gura badugu, eguneroko zenbait ohitura aldatu behar ditugu", zehaztu du Morrasek. Horren adibide Udalak mugikortasunari dagokionez azken hilabeteotan hartu dituen zenbait erabaki ageri dira.

Arrasateko mugikortasuna hobetzeko asmoarekin hainbat aldaketa egin dira: batetik, alde zaharra oinezkoentzat jarri da; bestetik, zirkulazioaren ordenantza berria ipini da martxan; gainera, Ospitale inguruko aparkamendu arazoak txikitzeko, Fagorrekin beste hitzarmen bat sinatu du Udalak.

Duela 15 egun eskualdatutako Takolo-Goiru korridorea izango da mugikortasunaren arloan Udalak aurten egingo duen proiektu nagusia. Hauxe esan du Morrasek: "Errepidea estutu, eta oinezko nahiz bizikletei lehentasuna emango diegu".



**AGURNE JULDAIN**
MERKATARIA

"Egia da unibertsitateak aparkaleku pribatua duela, baina autoak ez ezik, TAO sistemak jende fluxua ere txikitu du".



**ANDER OÑEDERRA**
IKASLEA

"Ez zait neurri egokia iruditzen. Ikasleok ez dugu diru askorik izaten eta guk pairatu beharko dugu zerbitzu honen alde txar handiena".



**AINTZIRA DALMAU**
AUZOTARRA

"Orain, aparkaleku gehiago dago. Autoa uzten duzun gunearen arabera ordaintzen denez, nahasi samarra da, baina ondo dago".

## Hollywoodeko izar handien edertasun sekretua

Angela Estetika Zentroak izarrek erabiltzen duten %99,9ko oxigeno garbia duen burbuila ekarri du aurrenekoz gurera. "Edertasun tratamenduak horrelako atmosfera batean eraginkorragoak dira", aipatu du zentroko arduradunak. Astebetez egon da burbuila Arrasaten, eta probatu duten bezeroek *zoragarri* hitza baino ez dute aipatu.



IMANOL GALLEGO

# Berriro urbanizatuko dute San Josepe, uda ostean

**IMANOL GALLEGO** | ARRASATE

Azken tokiko gobernu batzarrean onartu zen moduan, uda ostean hasiko dira San Josepe auzoa berriro urbanizatzen.

Lan horiekin, San Josepeko auzotarren aspaldiko eskaera bati erantzungo diote. "Higigunetik hurbil gauden arren, Udalarentzat oso urrun gaudela dirudi", aipatu du auzotar batek. Beste auzotar batzuek ere antzeko iritzia dute: "Errepide eta espaloien egoera penagarria da eta industria artean gaudenez ez digute kasu handirik egin".

**Lau fasetan**

San Josepe auzoa berriro urbanizatzeko lanak lau fasetan egingo dira. Gobernuak onartu duen zatiaren barruan, auzora iristeko dagoen aldaparen goiko zatian bidea pitzatuta dago eta puntu horretan errepidea egonkortzea aurreikusten da.

Proiektuan azaltzen den moduan, lanok uda ostean hasiko dira 2015. urte hasieran amaitzea espero dute. Errepideaz gain, bertako espaloiak ere konponduko dituzte.

Azpifase horretarako aurreikusten den aurrekontua, guztira, 415.000 eurokoa da eta bi urtean zatituta ordainduko da. Aurten 250.000 euroko partida aurreikusten da azpifase horretarako eta datorren urtean, aldiz, 165.000 eurokoa. Gainontzeko faseak onartu eta idazten diren heinean esleitu eta egingo dituzte.

## Gaurtik domekara bitartean ospatuko dituzte San Baleixo jaiak Meatzerreka auzoan

Meatzerreka auzoa jaietan murgilduko da asteburuan; arratsaldeko seietako suziri jaurtiketarekin emango diete hasiera jaiei. Egitarauan ez da nobedade handirik egongo; ez dute hutsik egingo programako izarra den mus txapelketak –aurtengoa 33. edizioa da–, baserri arteko patata-tortilla txapelketak, Gorritiren animaliek eta txerri-harrapaketak, besteak beste. Animaliekin jarraituz, zapatu gauean (01:00) txerri-harrapaketa izango dute eta domekan Lore Gazteak dantza taldeak saioa eskainiko du.

## Zumarraga ingurura txangoa

Arrasate Herri Eskolako Guraso Elkarteak antolatuta, mendi irteera egin zuten domekan; Zumarragako Beloki mendian izan ziren lehenengo; ondoren, Antioko ermita bisitatu zuten. Goizean hotz zen arren, "etxera pozik" bueltatu ziren "egun polita pasatuta", kontatu dute irteeran egon zirenek.



ARRASATE HERRI ESKOLAKO GURASO ELKARTEA



GOIATZ ARANA

## Danbor hotsak Iturbide egoitzan

San Sebastian egunean, txapela buruan, danborra gerrian eta makilak eskuetan, Arizmendi Ikastolako Umezaintzako 5-6 urteko neska-mutil kuadrillak danborrada egin zuen Iturbide egoitzan egoiliarrekin batera. Elkarrekin jo zituzten egun berezi horretako pieza batzuk eta txandaka beste batzuk.




*"Eta zuk… zer egingo zenuke?*
*Egoera kritikoei aurre egiteko baliabideak"*

**0-18 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoentzako tailerra**

**EDUKIAK**:
- Gure seme-alabekin berba egiten ikasi
- Gatazkei aurrea zelan hartu
- Estres eta arrisku egoeretan jokabide eraginkorra izaten ikasi
- Dolua eta galera-prozesuak nola bizi

**ORDUTEGIA**
- 0-6 urte: astearteetan 14:45-16:15
- 7-12 urte: astearteetan 18:00-20:00
- 13-18 urte: astelehenetan 18:00-20:00

Ikastaroa ERAIN Aholkularitzak gidatuko du
**Lekua:** Kulturateko Loramendi gela

**IZEN-EMATEA:**
Otsailaren 7a baino lehen, utzi ezazu izen-emate orria BAZen, deitu 943.25.20.07 telefonora edo bidali mezu bat *prebentzio@arrasate-mondragon.net* helbidera.

**Oharra:**
Taldea sortzeko gutxieneko kopurua 10 pertsonakoa izango da.

Antolatzailea:
ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

## ZALDIBAR

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Betrayer - Fidel & Discipulos. | **5-0** |
| Ostantz - Dribling | **1-5** |
| Cantauri - Iluntz | **4-4** |
| Abokajarro - Birigarruak | **17-0** |
| Haizea´s Weah - Lasagabaster | **5-6** |
| Jibaros F.C. - Sport in tus bragas | **3-5** |
| Aldatz - Sonografos | **6-5** |

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | J | P |
|---|---|---|---|
| **1** | Dribling | **7** | **21** |
| **2** | Aldatz | **7** | **18** |
| **3** | Lasagabaster | **7** | **18** |
| **4** | Betrayer | **7** | **16** |
| **5** | Haizea's Weah | **7** | **14** |
| **6** | Iluntz | **7** | **11** |
| **7** | Sonografos | **7** | **10** |
| **8** | Abokajarro | **7** | **9** |
| **9** | Sport in tus bragas | **7** | **7** |
| **10** | Ostantz | **7** | **6** |
| **11** | Jibaros F.C. | **7** | **6** |
| **12** | Fidel & Discipulos | **7** | **4** |
| **13** | Cantauri | **7** | **2** |
| **14** | Birigarruak | **7** | **0** |

**PARTIDUAK**

HILAK 25, ZAPATUA

**10:00** Ostantz - Sport in tus bragas
**Cantauri**

**11:00** Cantauri - Lasagabaster
**Sport in tus bragas**

**12:00** Haizea's Weah - Aldatz
**Lasagabaster**

**13:00** Jibaro F.C. - Fidel & Discipulos
**Haizea's Weah**

HILAK 26, DOMEKA

**10:30** Sonografos - Betrayer
**Sport in tus bragas**

**11:30** Abokajarro. - Iluntz
**Sonografos**

**12:30** Birigarruak - Dribling
**Iluntz**

### Izen-emate epea

Jokalari berrien izen-emateko epea domeka honetan amaituko da.



*Hamlet* antzezlanaren une bat. | ARTEDRAMA

# Gaur egungo 'Hamlet' ezagutzeko aukera etzi Amaia antzokian

Domekako emanaldia 19:30ean hasiko da; otsailaren 2an, ostera, Oñatin egongo da ikusgai

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

William Shakespeare idazlearen obra famatua da *Hamlet*, eta domeka honetan, urtarrilak 26, Amaia antzokian Artedrama taldearen bertsioa ikusteko aukera egongo da, 19:30ean hasita.

Xabier Mendigurenek egokitu du gidoia eta Ximun Fuchs da antzezlanaren zuzendaria. Antzokiko publikoaren aurrean, ostera, zazpi aktore izango dira: Ander Lipus, Ainara Gurrutxaga, Manex Fuchs, Maika Etxekopar, Iñaki Ziarrusta, Miren Tirapu eta Urko Redondo.

Eta horietariko bakoitzak, gainera, bakarra barik, lauzpabost pertsonaia interpretatzen ditu *Hamlet* lanean.

**Publiko guztiendako**

"Jatorrikoaz gainera, munduan hainbat *Hamlet* egon dira, moldaketa ugari egin dira-eta. Eta euskal *Hamlet* egiteko ideia egia bilakatu da". Hala eman du aditzera Ander Lipusek. "Nolakoa izango litzateke gaur egun Euskal Herrian kokatutako *Hamlet?*". Ideia horren bueltan moldatutako antzezlana da Amaiara ekarriko dutena.

Antzerkia gustuko dutenentzat aukera bikaina da domekako emanaldia. Argumentu nagusi bati jarraituko dio, gainera: bidegabekerien aurrean zer egin, ekintzara pasatu ala ez?

Baina Lipusek aitortu duenez, azpigai garrantzitsuak ere baditu domekan Arrasatera ekarriko duten lanak. Traizioak, familiak eta eromenak ere tokia dute antzezlanean. "Nahiz eta gai transzendentalak jorratu, publikoak oso ondo pasatzen duela argi ikusi dugu, orain arteko emanaldiek izan duten erantzunagatik".

**Euskalkiak entzungai**

Eszenografia aldetik nahiko sinplea da *Hamlet;* aipatutako zazpi aktoreen esku geratzen da ikus-entzulea hainbat egoera eta tokitara eramatea. "Aktoreon gorputz mugimenduarekin, ahotsarekin eta keinuekin egin behar dugu lan hori". Bada, Lipusek gaineratu du ikus-entzuleek eskertu egiten dutela aktore horiek Euskal Herriko hainbat lekutakoak izatea eta, era berean, euskalkian berba egitea.

# Emakumeari eta literaturari buruzko mahai-ingurua

Z.V.D.M. | ARRASATE

Datorren egubakoitzean, urtarrilak 31, mahai-ingurua egingo dute Arrasateko Emakume Txokoan, Sareinak taldearen VII. urteurrenaren harira. *Emakumea eta literatura (1987-2014)* izeneko tertulian, hainbat emakumek hartuko dute hitza: Aurelia Arkotxa, Nerea Azurmendi, Tere Irastortza, Gema Lasarte eta Laura Mintegi izango dira urtarrilaren 31ko gonbidatuak.

Emakume horiek guztiek 1987an *Jakin* aldizkariak argitaratutako *Emakumeak eta literatura* monografikoan hartu zuten parte. "Gai bera izango dute hizpide, baina orduko eta egungo errealitatearen artekoa alderatuz".

Emakumeak, feministak, euskaldunak eta literaturazaleak biltzen ditu bere baitan Sareinak. Bi asmo nagusi ditu: euskararen munduan literatura eta metodologia feminista uztartzea, ezagutaraztea eta praktikan ipintzea, alde batetik; eta emakume idazleen lanak ezagutzera ematea ere Sareinak taldearen helburuen artean dago.



Arrasatearren azken partidua. | X.U.

# Iruñea izango du bihar aurkari Kanpazar ARTk

Iruñeko eta Arrasateko taldeak lehen eta bigarren postuan daude sailkapenean, hurrenez hurren

Z.V.D.M. | ARRASATE

Helburu garbiarekin irtengo dira Kanpazar ART taldeko errugbilariak Mojategiko zelaira bihar, zapatua, 16:30ean. Hain zuzen ere, Iruñearen aurkako partidua irabaziz gero, jarraian lortzen duten laugarren garaipena erdietsiko dute. "Orain arte ez dut zifra horretara iristea lortu eta bolada onari eustea bilatuko dugu biharko partiduan". Hala eman du aditzera Igor Isasik, Arrasateko taldearen entrenatzaileak.

**Taldea, ilusioz**

Iruñearen aurka urte hasieran ere jokatu zuten. "Lehenengoak dira sailkapenean, eta gu bigarren goaz. Gogorra izango da, ziur. Baina, halere, gogotsu irtengo gara zelaira". Taldea ilusioz ikusten du Isasik. "Bigarren joateak laguntzen du sentsazio hori izaten, noski". Urtea hasi zenetik partidu gogorrei egin diete aurre Isasiren mutilek. "Biharkoaren ostean, astebeteko atsedenaldia hartuko dugu, merezita!".



ENAITZ BALANZATEGI

## Mus txapelketan aurrera

Euskal Herriko Mus Txapelketako partidak jokatu ziren Monte tabernan hilaren 18an. Luken Azkarragaurizarrek eta Mikel Larrañagak osatutako bikoteak irabazi zuen; Julen Zaitegi eta Aitor Lezamizena izan ziren bigarren. Otsailaren 14ko asteburuan Oriora joango dira laurak.

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta
arrasate
beinke

### Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsako zozketaren zenbaki saritua 197 izan da

Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsak urtero-urtero poltsikoko egutegi bat ipintzen du salgai. Egutegi horrek, gainera, zenbaki bat izaten du, ondoren konpartsak berak egiten duen zozketan parte hartzeko baliagarria dena. Aurten, ordenagailu eramangarri bat zozkatu dute, eta eman dute aditzera zein den zenbaki saritua: 197. Hori horrela, irabazleak konpartsarekin jarri beharko du harremanetan. Gogoratu beharra dago erlojuaren eraikinean dutela egoitza Erraldoi eta Kilikien Konpartsako kideek.

# Auzolana, auzoetako itxura eta harremanak berritzeko

Udalak Auzotasuna programa jarri zuen abian iaz, herriko 16 landa-auzori diru laguntzak bideratzeko

IRATI GOITIA | OÑATI

Ohitura ezaguna da auzolana gurean. Tradizioz batu izan dira auzotarrak arekak garbitzeko edo belar-sastrakak kentzeko. Horretaz gain, auzolanak auzotarren harremanak sustatzeko ere balio izan du. Urtetan errotuta egon den ohitura, baina, indarra galduz joan da eta gero eta auzo gutxiagok egiten dute.

**Auzotasuna programa**

Bada, Auzotasuna izeneko programa jarri zuen abian Udalak 2013an, landa-eremuetan dauden auzoei bideratuta. Helburua da landa-auzoetako bizilagunen bizi-kalitatea hobetzea eta auzotarren harremanak sustatzea, auzo bizitza indartuta.

Horrela, iazko aurrekontuetan partida bat onartu zuen Udalak Auzotasuna programa sustatzeko. Hau da, auzo-batzordeek kreditu lerro bat izan dute eurek lehentasunezko jotzen dituzten gastuak finantzatu ahal izateko, betiere auzotar guztientzako erabilgarri izango diren gastu edo inbertsioetarako. Kontzeptu finantzagarriak dira, esaterako, auzotarrak biltzeko erabiltzen den lokala eraberritzeko lanak, jaietako gastuak, hitzaldiak eta auzotar guztiek erabiltzeko erositako materiala.

**16 landa-auzo**

Oñatiko 16 landa-auzo dira programa horren onuradunak: Zubillaga, Santxolopeztegi, Garibai, Torreauzo, Zañartu, Murgia, Garagaltza, Urrexola, Berezao, Uribarri, Araotz, Arantzazu, Larraña, Olabarrieta, Goribar eta Lezesarri.

Zehazki, 100.000 euroko partida izan zen iaz 16 auzo horien artean banatu zena. Auzo bakoitzari dagokion kostu saila kalkulatzeko honako hauek hartzen dira kontuan: auzoan erroldatutako pertsonak eta familia bakarreko edo bi familiako etxeen kopurua aurrekontua onartu aurreko urtean.

2014ko aurrekontuan ere onartu berri du Udalak programa horretarako diru partida. Orain, auzo-alkateek eskaera egin beharko dute prozedura jarraituta.

**Auzo-alkate foroa**

Auzoetako bizi-baldintzak hobetzeaz gain, auzotarren arteko harremanak sustatzea ere bada programa horren helburua. Ildo horretatik, baina auzotarrenak izan beharrean auzoen arteko harremanak sendotzeko asmoz, auzo-alkate foroa jarri zen martxan Udaleko Auzoak eta Landa Garapena batzordetik 2012an. Hala, bi hilabetean behin, auzoetako ordezkariak Udaleko ordezkariekin batzen dira, auzoaren berri zuzenean eman eta jasotzeko eta beste auzoetako errealitatea lehen eskutik ezagutzeko.



Araotz auzoko pilotalekua, sare eta foku berriekin. | IRATI GOITIA

## Araozko pilotalekuan sarea eta fokuak

Aitor Uriarte Araozko auzo-alkateak zehaztu digu Udalak emandako partida zertarako erabili duten auzoan: "Pilotalekuan sarea jarri dugu, eta baita foku batzuk ere. Horretaz gain, bolatokiko teilatuaren inguruan itxitura jarri dugu. Izan ere, baloiak eta pilotak bertara joandakoan, umeak teilatu gainera igotzen ziren horiek berreskuratzeko". Zehaztu digu horretan 1.792 euro erabili dituztela. 3.000 euro plazan apurtuta zeuden adokinak konpontzeko eta 3.222 euro jaietako egitaraua osatzeko.

"Auzotasun programak lana errazten digula esango nuke; izan ere, lehen udaletxera eskean joan behar izaten genuen proiekturen bat egin nahi genuen bakoitzean. Orain, diru kopuru bat dugu ditugun beharrei aurre egiteko", dio Uriartek.



Olabarrietan zabaldu duten bidean, neskatila eta gizona. | OIHANA ELORTZA

## Oinezkoen bidea hobetu Olabarrietan

Olabarrieta auzoak 17.000 euroko laguntza jaso zuen iaz eta dirua hainbat hobekuntza egiteko aprobetxatu dute. "Ugarte baserriaren atzean dagoen harraskatik Simonena baserriraino doan bidea zabaldu dugu eta itxitura egin, umeak erortzeko arriskua zegoen-eta", zehaztu digu Mikel Lizarralde auzo-batzordeko kideak. Horretaz gain, elkartetik Kortabarria baserriraino doan bidean, urak eginiko hainbat kalte konpontzeko ere erabili dute jasotako diruaren zati bat. "Jai hobeak egiteko ere aprobetxatu dugu. Izan ere, beti egiten digu euria, eta karpa handi bat ekarri genuen", dio Lizarraldek.

"Orain, beste lasaitasun bat dugu. Lehen, gauza asko atzera botatzen zizkiguten", dio Auzotasun programaz.



Garagaltza auzoan berreskuratzen dabiltzan bidea. | O.E.

## Garai bateko gurdi-bidea berreskuratu dute Garagaltzan

Garagaltzan 7.800 euro inguruko partida jaso zuten. "Galtzada zahar bat berreskuratzeko erabili dugu gehiena, garai batean Oñatitik Leintz bailarara joateko gurdi-bidea zena", azaldu digu Asier Olalde auzo-alkateak. Lan handia egin behar izan dutela esan digu: "Auzoan hargina dugu, Jabier Bikuna, eta berak eta bere langileek lagunduta auzolanean aritu gara. Urteetan alboratuta egon den bidea da eta zati asko lurrez estalita daude. Bederatzi traktorekada lur atera ditugu lanak egin ditugun lehen zatitik". Zehaztu digu zati bat egin dutela, baina oraindik lan handia dagoela egiteko eta datorren urteko partida ere horretara bideratuko dutela. "Diru laguntzak ematen dizkiguten bitartean, galtzada berreskuratzen joango gara". Bestalde, diruaren zati bat jaiak antolatzeko ere erabili dutela esan digu.

Olaldek dio auzolanerako gero eta prestutasun txikiagoa dagoela eta tradizioa galduz doala, baina ideia ona iruditzen zaio Udaletik martxan jarritako programa. Bestalde, auzo-alkate foroaren gainean dio oso mahai-inguru politak izaten dituztela auzoko eta Udaleko ordezkariek.



Sagarra prentsatzen, Larrain Gain kanpoaldean. | KIKO MARTINEZ

## Sagar-jardunaldiak Larrañan

Larraña auzoan Laharri izeneko auzo-elkartea eratzeko hainbat kudeaketa egin behar izan dituzte eta horretarako erabili dute Udalak emandako partidaren zati bat. Guztira, 4.719 euro jaso zituzten. "Ganorazko jaiak antolatzeko ere erabili genuen dirua; tartean, 100 urte bete zituen Bixenta Agirrebengoari omenaldia egin genion", esan digu Kiko Martinez auzo-alkateak. Bestalde, sagardoaren gaineko jardunaldia ere egin zuten. Sagarrei buruzko hitzaldia, txalaparta erakustaldia, gaztaina-jana eta afaria izan zituzten, besteak beste. "Jende asko batu ginen. Auzoa murgildu egin zen jardunaldian, hitzaldian 150 pertsonatik gora izan ginen eta afarian, 116". 2014rako ere hainbat ideia dituztela esan digu Martinezek; esaterako, fruta-arbolen gaineko hitzaldia.



Elkar Heziko jolastokia. | ELKAR HEZI

## Elkar Hezik batez bestekotik gorako emaitza kanpo espazioan

I.G. | OÑATI

Mondragon Unibertsitatearen eskutik eta Hazitegi ikertaldeak lagunduta, ikastetxeetako kanpo espazioaren erabileraren gaineko ikerketan parte hartu du Elkar Hezi ikastetxeak.

**Batez bestekoaren gainetik**

Bada, ikerketa horren arabera, Elkar Hezik batez bestekotik gorako emaitza lortu du. Azterketa horretan Gipuzkoako 20 ikastetxek hartu dute parte, borondatez (hamar eskola publiko, Ikastolen Elkarteko zazpi eta Kristau Eskoletakoak hiru). Ikerketan erabili duten neurria Poems eskalaren araberakoa da eta 20 ikastetxeen emaitzen batez bestekoak %63,83ko emaitza jasotzen du. Poems eskalaren arabera, bost dimentsio hartzen dira kontuan: ingurune fisikoa, elkarrekintzak, jolasteko eta ikasteko agertokiak, programa eta irakaslearen rola, hain zuzen ere.

Azterketan zehazten da, besteak beste, Elkar Heziko kanpo espazioak elementu natural asko dituela (zuhaitzak, landareak, lursailak...), jolasteko toki zabalak eta euria egiten duenerako aterpea. Elkar Hezitik adierazi digute hobetzeko alderdi batzuk proposatu dizkieten arren, lortutako emaitza %70,04 dela eta oso balorazio ona egiten dutela.

# Zazpi kultura proiektu diruz lagunduko ditu Udalak

Lehenengoz egin du Udalak laguntza ekonomikoak eskuratzeko deialdi irekia

IRATI GOITIA | OÑATI

Aurten lehen aldiz egin du Udaleko Kultura Sailak diru laguntzak eskuratzeko deialdi irekia herriko irabazi asmorik gabeko eragileen artean. Horrela, talde horiei laguntza eskainiko zaie egingo dituzten jarduera eta egitarauak aurrera eramateko.

Orain arte, proiektuak aurkeztu ahala baloratzen ziren eta horretarako bideratutako diru partida gastatu arte eskaintzen zen laguntza ekonomikoa. Horrenbestez, 2013an beste urrats bat egin dela esan du Nerea Zubiak, Kultura zinegotziak.

**UDALAK LAGUNDUKO DITUEN PROIEKTUAK**

| EGITASMOA | DIRU LAGUNTZA |
|---|---|
| Oñatiko bertsolaritzaren inguruko bilduma liburua | 1.400 |
| Antonino Ibarrondoren biografia | 1.400 |
| Oñatiko euskaran 'Kontzejupetik'-en argitaratutako testuak | 1.400 |
| 'Eko de Bull' disko grabaketa | 1.200 |
| 'Zingira' disko grabaketa | 1.200 |
| Sagastaren biografia | 1.000 |
| Tindayari buruzko dokumental grabaketa | 1.000 |

**Zazpi eskaera**

Deialdia azaroan kaleratu zen eta zazpi taldek aurkeztu zuten eskaera. Guztiak babestea erabaki da [ikus taula]. Guztira, 8.600 euro banatuko dira, partida handiagoa zen arren (10.400 euro). Diru laguntza oinarrietan proiektu bakoitzak jasoko lukeen diru kopurua mugatu egin zen, 1.400 euro. Aurkeztutako egitasmoen artean, hiruk jasoko dute gehienezko laguntza hori.

Onarpenarekin batera jaso dute diru laguntzaren erdia talde edo norbanakoek eta likidazioa aurkeztu ondoren emango zaie gainerakoa. Proiektuak 2014. urtean zehar egin beharko dituzte. "Epeetan berandu ibili garenez, lanak 2014an betetzeko aukera emango dugu", zehaztu du Zubiak. Behin lana eginda, argitalpenen hamar ale Udalaren esku utzi beharko dituzte.

**Askotariko lanak**

Lanak hiru multzotan banatzen dira: batetik, proiektuaren egilea oñatiarra edo lana Oñatiri buruzkoak direnak daude. "Iruditzen zaigu gure herriaren ondarearen inguruko lanei bultzada berezia eman behar diegula", dio Zubiak. Bestetik, disko grababetak daude. "Orain arte Gazteria Departamentutik aplikatzen den irizpide bera erabili da; hau da, gehienez 1.200 euroko laguntza eman zaie". Eta, azkenik, egilea oñatiarra izan baina proiektuak Oñatirekin zerikusirik ez duten kasuak daude.

2014ko aurrekontuetan ere aurreikusi da helburu bererako partida bat. Zehazki, 20.000 euro.

## Hansel eta Gretel-en istorio klasikoa, elementu berritzaileekin taula gainean

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Familia guztiarendako moduko antzezlana egingo du Glu Glu taldeak bihar, zapatua: *Hansel eta Gretel txokolatezko etxean*. San Ana antzokian izango da, 17:00etan.

Istorioa oso ezaguna da; Grimm anaien ipuin klasikoan oinarrituta dago. Hansel eta Gretel anai-arrebek, basoan galduta ibili ondoren, txokolatezko etxea aurkituko dute. Bertan, sorgin maltzurrak umeak giltzapetuko ditu, gero haiek jateko asmoz.

Egokitzapen horrek ohiko narrazioa jarraitzen du, baina gaur egungo osagai eszenikoak eta musikalak eransten dizkio.



*Hansel eta Gretel* antzezlanaren une bat. | JOKIN BEREZIARTUA

## Misio Taldekoek elkartasun afaria egingo dute gaur, egubakoitza, Bidaurretan, 20:30ean

Misio Taldeak duen ohitura da elkartasun afariak egitea eta gaur, egubakoitza, egingo du beste bat Bidaurretako fraidearen saloian, 20:30ean. Beti bezala, patata-tortilla eta letxuga izango dituzte afaltzeko eta sagardoa edateko. Maliko Saint Paul ikastetxerako izango da batuko duten dirua eta Joxean Larrañaga parrokoak proiektuaren gaineko argibideak eskainiko ditu. Hain zuzen, afari horrekin emango diote amaiera proiektuari.

**Jose Antonio Urteaga** | Hermansoloñako kidea

# "Egoera onean dagoena ezin da bota; emango diogu erabilera"

Hermansoloña gobernuz kanpoko erakundeak 32. edukiontzia bidali berri du Argentinara

I.G. | OÑATI

Hermansoloñak joan den astean ontziratu zuen 32. edukiontzia Argentinara bidean.

**32.a eta aurrera?**

Sasoi baten, urtean hiru edukiontzi bidaltzen genituen; orain, erritmoa jaitsi beharko dugu. Izan ere, diru gutxiago dugu eta horrelako edukiontzi bat bidaltzeak kostu handia du. Aurten, bi bidaliko ditugu, bat orain eta bestea ekain inguruan.

**Nora iristen da zuen laguntza?**

Jose Clemente Paz herrira bidaltzen dugu edukiontzia. Oñatirekin senidetuta dagoen herria da. Zubillagako Jose Vicente Altubek sortu zuen herria, 1890. urte inguruan. 350.000 biztanle inguru ditu. Alboan beste bi herri ditu: San Migel eta Malvinas Argentinas. Orain dela 40 bat urte, herri bakarra osatzen zuten hirurek (General Sarmiento). Ondoren, hiru zatitan banatu zen eta guk jarraitzen dugu oñatiarrak fundatu zuen tokian, Jose C Pazen. Bertan zentro bat dugu. Oso herri txiroa da, txaboletan bizi dira herritarren %60 inguru. Buenos Airestik 40 kilometro ingurura dago eta oso jendetsua da. Ez dago ur korronterik, hotelik, kaleen %30 bakarrik daude asfaltatuta, langabezia oso handia da... Bertan 50 laguntza zentro inguru daude eta guztiekin dugu harremana, baina birekin egiten dugu lan: Euskal Etxearekin eta San Jose Providente elkartearekin. Hala ere, edukiontzietako materialaren %20 Argentinako iparraldera joaten da. Zehazki, Jujuy aldera. Bertan Oñatiko agustindarrak daude eta haiek egiten digute banaketa. Horretaz gain, beste probintzia batzuetara ere eramaten dugu materiala, baina ez guk batutakoa. Izan ere, Euskal Herriko beste talde batzuek ez dute baliabiderik batzen dutena hara bidaltzeko, eta geuk eramaten diegu materiala gure edukiontzietan.



Jose Antonio Urteaga. | GOIENA

**Oraingoa 32. edukiontzia izan da; oraindik behar handia dago?**

Bai; askotan esaten da Argentira hoberantz doala, baina gorantz doazenak aberatsak dira. Gune txiro asko daude; adibidez, Buenos Aires ingurua oso txiroa da.

**Bertan ere gelditzen da batutako materialaren zati bat...**

Hala da, gauza guztiak ez dira Argentinara bidaltzen, herrian ere gauza dezente gelditzen dira, esaterako, Caritasi emanda. Azkenengo urtean Kubarako ere lan handia egin dugu, Acesmakoei laguntzen ibili gara. Gu edozeini laguntzeko prest egoten gara.

**Zerbait eman nahi duenak nora joan behar du?**

Guk lokala dugu Bidebarrietako 22. zenbakian. Egunero egoten gara bertan. Lokalaren kanpoaldean edukiontzi zuri bat ere badugu. Herritarrei esango nieke erabiltzen ez duten zerbait izanez gero, eta ondo badago, hona ekar dezatela. Ondo dagoena ezin daiteke bota.



Zubikoako kantxan egindako II. spinning maratoiko parte-hartzaileak. | JOSETXO ARANTZABAL

# 'Master class' zirkuitua, Oñatiko spinning maratoia prestatzeko

Antzuolan, Arrasaten, Oñatin, Zumarragan eta Legazpin egingo dituzte

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

*Master class* saioak egingo diren herrietako udalek E-goitek enpresarekin elkarlanean *master class* zirkuiturako deialdia egin dute. Bost saio egingo dituzte eta helburua apirilaren 5ean egingo den spinning maratoia prestatzea izango da. Ordu eta erdiko bost saio, bina irakaslerekin: hilaren 25ean Antzuolan, otsailaren 8an Arrasaten, 22an Legazpin, martxoaren 8an Oñatin eta 22an Zumarragan.

**Ordu eta erdiko eskolak**

Apirilean egingo dute Oñatin IV. spinning maratoia, eta, herritarrak animatze aldera, amua bota diete spinningeko irakasleek: ordu eta erdiko eskolak. Erresistentzia landuz, maratoiari aurre egiteko gai izatea lortu gura dute.

Bada, irakasleak aldatu egingo dituzte; saioak egingo diren herrietako spinning irakasleek bikoteka jardungo dute.

**Izena emateko**

Dagoeneko egin dute *master class* zirkuituan parte hartu gura dutenendako deialdia. Interesatuek bi bide dituzte izena emateko: euren herrietako kiroldegiko harreran edo *erronka2014@gmail.com* helbidean. Izena eman ostean, bi egunen barruan, bost euroko fidantza ordaindu beharko da, bestela *master class* saioko lekua galdu egingo da-eta. Fidantzaren ordainketa da lekua gordetzeko bermea.

**Spinning maratoia**

Aurtengoa laugarren spinning maratoia izango da. Iaz, spinning eskolak ematen diren gelan egin zuten maratoia. 35 bat lagunendako.

Aurten, baina, hasierako formatua berreskuratu gura dute, eta Zubikoa kiroldegiko kantxan egingo dute. Oraindik ez dute zehaztu zenbat lagunek parte hartu ahal izango duten. Era berean, ez dute zehaztu zer-nolako formatua izango duen: iraupena, irakasle kopurua, dinamika... Oraingoz aurreratu duten gauza bakarra data da: apirilaren 5ean egingo dute, Zubikoan.

Zuhaitz Gonzalez | Natra Oñatiren entrenatzailea

# "Ohore handia da Natra Oñatiren entrenatzaile izatea"

- Natra Oñatik liderraren kontra jokatuko du bihar, zapatua, Zubikoan
- Azken bi partiduak galdu ostean, bilbotarrak menderatzeko gogotsu daude

M.B. | OÑATI

Maila autonomikoko liderra hartuko du Natra Oñatik bihar, zapatua, Zubikoan, 18:00etan. Azken bi partiduak galdu ostean, garaipenari heldu gura diote Zuhaitz Gonzalezen mutilek. Entrenatzailearekin berba egin dugu biharko partiduaz eta orain arte egindako lanaz.

**Omega Peripherals La Salle da maila autonomikoko liderra eta zuen kontra jokatuko du bihar. Gogotsu zaudete?**

Bai. Jokatutako 11 partiduetatik bakarra galdu dute bilbotarrek. Guk dakigun moduan jokatzen badugu, irabazi egin dezakegu. Taldeko 12 jokalariek %100a ematen badute, ez dugu arazorik izango. La Salle lehenengo mailan jokatu izan duen taldea bada ere, lehia aurrera atera dezakegu, gure lana ondo egiten badugu.

**Lau partidu jarraian irabazi ostean, azken biak galdu egin dituzue. Nola baloratzen duzu hori?**

Aurten partiduak apurtzea kosta egin zaigu askotan, baina erasoan ondo jokatu dugu eta horrek eman digu irabazteko aukera. Azken bietan, huts gehiegi egin ditugu erasoan. Epaileekin berba gehiegi egin dugu, eta, era berean, ez dugu patiduen irakurketa egokia egiten jakin izan.




Zuhaitz Gonzalez, eguazteneko entrenamenduan. | MIREIA BIKUÑA

**"Goiko postuetan, igotzeko lehian, egon gaitezke lana ondo eginez gero"**

**Nolakoa da aurtengo Natra Oñati taldea?**

Oso ezberdina. EBAko ibilbidearen ostean, saskibaloi sailak etxeko jokalarien aldeko apustua egin zuen. Asier de la Iglesia da gure erreferentea, eta kluba oso ondo ezagutzen duten jokalariak daude harekin: Iñigo Zabaleta, Eneko Blanco, Miel Biain, Iban Lizarralde... Jokalari gazte asko ditugu. Gozamena da eurekin lan egitea. Talde polita da, langilea. Ohorea da Natra Oñatiren entrenatzaile izatea.

**Orduan, gustura jaso zenuen Aloñaren deia?**

Azpeitian, entrenatzaile hasi berritan izan zuen lehen hartu-emana Gorka Judezekin. Hori horrela, gure artekoa atzeratzea erabaki genuen.

Iaz, udan, Azpeitikoa bukatuta, berriro elkartu nintzen Judezekin. Natra Oñati entrenatzeko eskaera egin zidan. Astebetez pentsatu ostean, onartu egin nuen. Taldeko jokalari asko ezagutzen ditut, euren kontra jokatu izan dudalako. Gainera, Aloña Mendi beti izan da elkarte serioa, eta horrek asko erakarri ninduen.

**Zeintzuk dira aurtengo helburuak?**

Mailari eustea zen zuzendaritza batzordeak egindako eskaera. Baina nik uste dut goiko lekuetan egoteko taldea daukagula eta igotzeko lehian egon gaitezkeela. Gogor lan egingo dugu hori lortzeko.

## Mikel Goñik domekan jokatuko du Oñatin

M.B. | OÑATI

Mondragon Unibertsitateko Jump In! taldeko kideek –Leinn graduko ikasle direnak– pilota partiduak antolatu dituzte zapaturako (Zubikoa, 19:00). Bi partidu egongo dira: lehenengoan, Aloña Mendiko kadete mailako pilotariek jokatuko dute: Ander Biain-Manex Urrutia bikotea Xabi Aiastui-Markel Txintxurreta bikotearen kontra; eta bigarrenean, Mikel Goñi eta Iñarra bergararra Uriarte eta Azkarate oñatiarren kontra.

Pilota jaialdiko sarrerak aldez aurretik eros daitezke Aloña Mendi, Pako eta Ongi tabernetan 8 eurotan, eta Zubikoan lehia hasi aurretik, 10 eurotan. 16 urtetik beherakoek prezio erdian erosi ahal izango dituzte.

### Disko festa zapatuan gaztelekuan Sound Proyect bikotearekin

Gaztetxoek disko festa izango dute bihar, zapatua, gaztelekuko topalekuan, 18:00etatik 21:00etara, Sound Proyect taldearekin. Topalekuak hilero antolatzen du disko festa, musikarekin eta alkoholik gabeko doako barrarekin. Txandaka jarduten dute herriko DJek, eta, oraingoan, Juan Carlos eta Juan Carlos lagunak ibiliko dira lan horretan.

### Gaur banatuko dira bertso-paper lehiaketako sariak

Gaur, egubakoitza, egingo du bertso eskolak bertso-paper lehiaketako sari banaketa ekitaldia eta jaialdia. 18:00etan izango da, gaztelekuan. Aurten bosgarren urtea du lehiaketa horrek eta, batetik, Lehen Hezkuntzako ikasleek eta, bestetik, DBHkoek eta Batxilergokoek jasoko dituzte sariak. Alaia Martin bertsolaria izango da bertan.

### Bi Bala taldearen bertso eta musika emanaldia domekan

Bi Bala taldeak bertso eta musika emanaldia egingo du etzi, domeka, Pako tabernan, 19:30ean. Letrak, batez ere, "umorezkoak, oso ironikoak eta probokatzaile samarrak" dira, egileen esanetan, eta euskaldunon kontraesanei buruz kantatzen dute, batez ere, doinu ezagunak eta eurek sortutakoak tartekatuta.

# Garajean aparkatzen duenak %75eko hobaria izango du kontribuzioan

▸ Udalak garajeak erabiltzera animatu nahi ditu herritarrak ekimenarekin

▸ Kaleetan aparkatuta dagoen auto kopurua txikitzea da helburua

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Udalak hainbat ekimen bultzatzen dihardu Bergara udalerri jasangarriagoa eta herritarrendako bizileku atseginagoa izan dadin. Horren barruan kokatzen dira, esaterako, herri barruan pertsonen mugikortasunari lehentasuna ematea edota autoen kale-okupazio tasa txikitzea.

Bada, helburu hori lortzeko, *Kotxea garajean* programa sortu du Udalak, bergararrak herrian dauden garajeak erabiltzera bultzatzeko asmoz, eta asteon aurkeztu dute. Programa horrekin, ibilgailua garajean sartzen dutenek %75eko bonifikazioa izango dute garajearen OHZn (IBI).

Behaketa baten du jatorria programak, Jaione Isazelaia alkateak azaldu zuenez: "Elurra edo izotza iragartzen dutenean, autoak desagertu egiten dira kaleetatik. Jendeak autoa bere garajean sartzen du. Behaketa hori askotan egin izan da eta hortik abiatuta hausnarketa egin dugu: zergatik ez azpiegitura berriak egin beharrean, ditugunak erabili?".

Proba modura abiatuko dute programa: "Urte bukaera aldera balorazioa egingo da eta ikusiko dugu aurrera jarraitu edo eten", azpimarratu zuen Isazelaiak.

Herritarren artean kontzientziazioa zabaldu nahi dutela gehitu zuen, "konturatzeko batzuetan azpiegiturak baditugula eta erabiliz gero, ba igual ez dagoela zertan diru gehiago gastatu". Bestalde, pedagogia lan hori "positibotik" egin nahi izan dutela ere argitu zuen: "Isuna jarri edo herritarrak ondorio oker batera eraman beharrean, kontrakoa egin nahi izan dugu, ondo egiten dena saritu".

**393 aparkaleku libre**

Joseba Ezpeleta errenta teknikariaren arabera, "datuek justifikatu egiten dute programa". Eta herriaren erdiguneko zenbait datu eman zituen: "6.762 auto eta ibilgailu misto daude herrian; 4.189 garaje partikular eta 2.966 aparkaleku kalean, hau da, guztira 7.155 aparkaleku; hortaz, 393 aparkaleku gehiago dago ibilgailu baino". Eta espazioa irudikatzeko bi adibide eman zituen: "Ibargaraiko aparkaleku publikoak 60 leku ditu; bada, izango litzateke 6,5 aldiz hura; edo 2,5 aldiz kanposantu ondoko aparkalekua, 160 leku daude -eta han".

## Sei gune, sei kolore, sei pegatina




**DATUA**

**393**

APARKALEKU

Autoa garajean sartuta, aparkaleku kopuru hori geratuko litzateke libre.

**Pegatina itsatsiko dute**

Programa martxo amaieran jarri nahi dute martxan eta interesatuek Udaltzaingora jo beharko dute etxean jasoko duten gutunarekin. Otsailaren 10etik 21era bitartean jo daiteke Udaltzaingora, 08:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Alfonso Alonso Udaltzainburuak aurkezpenean azaldu zuenez, "programan parte hartzen duenak hartzen du konpromisoa garajea duen gunean autoa kalean ez lagatzeko". Eta hori guztia aurrera eramateko sistema sortu dute: herria sei gunetan banatu dute, bakoitzari kolore bat eman diote eta kolore bakoitzeko autoan itsasteko pegatina atera dute –goian ikus daitezke–. Hala, interesatua dagoen garajearen jabea Udaltzaingora doanean, garajea dagoen gunearen koloreko pegatina itsatsiko diote autoaren aurreko kristalean. Pegatina duen unetik aurrera, ezingo du autoa pegatinaren gunean kalean aparkatuta laga bost minutu baino gehiago –zamalanak egiteko denbora–. Bestalde, ez da bateragarria izango programan parte hartzea eta, era berean, TAOko egoiliarra izatea, eta bien artean aukeratu beharko da.

**Parte hartzeko baldintzak**

Programan parte hartzeko zenbait baldintza bete behar dira: garajean sartzen den ibilgailua turismoa edo ibilgailu mistoa izatea; ibilgailuaren titularra eta garajearen edo parkinaren titularra pertsona bera izatea eta Bergaran erroldatuta egotea; ibilgailuaren eta garajearen titularrak pertsona bera ez badira, biak Bergaran eta etxebizitza berean erroldatuta egotea; garajean sartzen diren ibilgailuen zerga helbidea Bergarakoa izatea; eta egoera horiek guztiak 2014ko urtarrilaren 1ean indarrean egotea.

Udaltzainak izango dira kontrola eroango dutenak. Autoa pegatinaren koloreari dagokion gunean aparkatuta dagoela ikusiz gero, jakinarazpena lagako diote bertan eta hamabost eguneko epea egongo da alegazioetarako. Ez balira onartuko, %75eko hobaria galduko litzateke.

Gauzak ondo bidean, urtearen bukaeran, abenduan, Udaltzaingotik pasa beharko da erabiltzailea pegatina itsatsita duela erakusteko; hori egin ondoren, garaje edo parkinaren kontribuzioaren %75eko hobaria kontu korrontean sartuko diote.



Jaione Isazelaia, Alfonso Alonso eta Joseba Ezpeleta. | TXOMIN MADINA

## San Paulo jaiak gaurtik domekara Ubera auzoan

M.B. | BERGARA

Gaur, egubakoitza, hasi eta domekara arte San Paulo jaiak ospatuko dituzte Ubera auzoan. 20:30ean hasiko dira jaiak txupinazoarekin eta Mari Justa eta Pedro Joxeren etorrerarekin. Gero, txikiteoa egongo da eta 21:00etan, afaria trikitilariekin eta baita dantzaldia ere.

Bihar, zapatua, San Paulo eguna, meza egongo da 11:00etan; 12:00etan salda eta txistorra banatuko dute eta tortilla eta tarta txapelketa egongo da, daukaten erantzun ona ikusita. Hain zuzen, tortilla lehiaketarekin urte gehiago doaz, baina tarta lehiaketa iaz egin zuten lehenengoz eta izandako erantzun ona ikusita aurten ere antolatzea erabaki dute.

Berrikuntza moduan, umeendako barik, 12:30ean nagusiendako kukainak egongo dira eta 14:30ean herri bazkaria elkartean.

Domekan ekitaldi gehiago egongo dira: 10:00etan diana joko dute Bergarako txistulariek; 10:30ean meza egongo da eta 11:30ean Alai Taldearen eta Bergarako trikitilarien eta dantzari gazteen emanaldia egongo da; baita salda eta txistorra ere bertaratzen diren guztiendako.

Ordu berean Uberako V. Ugarixo Tiraketa jokatuko da. Parte-hartzea 3 euro da eta sariak ere egongo dira.

## Parteitti auzoko jaia domeka eguerdian ospatuko dute

San Bizente eguna eguaztenean izan zen arren, Parteittin domekan ospatuko dute. Ohiturari eutsiz, eguerdiko hamabietan meza nagusia izango dute, eta, horren ostean, auzotarren artean prestatutako luntxa egongo da. Urtero moduan, Kataide txakolina dastatzeko aukera egongo da. Auzotarren festa giroa alaitzeko musika ere egongo da.

## Aratusteetan sorgin dantza egiteko ikastaroa deitu dute

Eguen Gizenean, otsailaren 27an, sorgin dantza egiteko ikastaroa antolatu du Udalak Xamatz dantza taldearen laguntzarekin, mutilendako. Ikastaroan izena emateko kultura etxera deitu behar da, 943 77 91 59 zenbakira. Izena ematen dutenen artean adostuko dituzte ikastaroaren egunak eta ordutegia.

**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



**ETXEBERRIA**

BITXITEGIA–ERLOJUTEGIA

**EGIN DUGU ZOZKETA!**

2013an gurean ezkontza-eraztunak erosi dituztenen artean zozketa egin, eta **Amaia Azurmendi eta Gotzon Zabalo** izan dira irabazleak.

Ezkontza-eraztunak gure kontura!
Zorionak, bikote!

2014an promozioak jarraipena izango du; hortaz, etorri gurera eta zorte on!



Bidekurutzeta 16 • Tel.: 943 76 23 94 • BERGARA
relojeriaetxeberria@gmail.com

## Corazonistas taldearen aurkako partiduari egingo diote aurre bihar Soraluce BKE taldeko mutilek

Eskubaloi partidu interesgarria ikusi ahal izango da asteburuan Bergaran. Hain zuzen ere, etxean jokatuko dute biharko partidua Soraluce BKE taldeko kideek. Hain zuzen ere, Labegaraietan neurtuko dituzte indarrak Corazonistas BM talde gasteiztarraren aurka, 18:45ean hasita. Une honetan, bergararrak sailkapeneko hirugarren postuan daude, 19 punturekin (eta Erandiorekin berdinduta); aste honetako aurkaria, ostera, zortzigarrena da sailkapeneko taulan.



Bergararrak partidu batean. | IMANOL SORIANO

## Udaberri Txapelketako eta Euskal Ligako ohorezko mailako pilota partiduak asteburuan Bergaran

Udaberri Txapelketako pilota partiduak jokatuko dira gaur, 19:30ean hasita, pilotalekuan. Kadeteetan, Intxurrek eta Bergarak neurtuko dituzte indarrak; gazte mailan, ostera, Zestoaren eta Bergararen arteko norgehiagoka ikusi ahal izango da. Bihar, zapatua, 18:00etan, haurren errendimenduko bi partidu jokatuko dira: Aretxabaleta -Bergara eta Gazteleku 3-Bergara. Euskal Ligako ohorezko mailan, nagusietan Uarte-Bergara izango dira aurrez aurre.

## Saskibaloi partiduak bihar Labegaraietan, eskola kirolaren hamargarren jardunaldiaren barruan

Eskola kirolaren barruko hamargarren jardunaldia izango da asteburuan Labegaraietan. Benjaminetan honakoa izango da ordutegia: Antzuola A eta S. Martin (09:30); Mariaren Lagundia eta Antzuola D (10:30); Antzuola B eta Elgeta (10:30). Aranzadikoek atseden izango dute. Alebinetan, ostera, honakoa: S. Martin A eta Antzuola B (10:30); M. Lagundia eta Aranzadi (11:30); S. Martin B eta Antzuola A (11:30); Elgeta eta Antzuola D (11:30).

# Bergarar aktiboak sortzeko asmoz, kirol programa zabala

Ikastaro motzak egongo dira Agorrosinen eta zerbitzu berriak ere bai

Z.V.D.M. /A.TXINTXURRETA | BERGARA

2014rako Agorrosingo kirol programa aurkeztu zuten martitzenean. Bergarar aktiboak sortzeko helburua du eta horren berri eman zuten Lauri Askargortak –Kirol zinegotzia–, Junkal Zubizarretak –monitorea– eta Iñaki Ugarteburuk –Kirol teknikaria–.



Askargorta, Ugarteburu eta Zubizarreta aurkezpenean. | AMAIA TXINTXURRETA

### Ikastaro laburrak

Besteak beste, ikastaro laburrak (6-8 saioko iraupenekoak) antolatu dituzte: bizkarreko arazoak saihesteko –dela lehorrean zein uretan– eta zoru pelbikoa zein lasterketarako teknikak lantzekoak izango dira. Eta *Jolasak familia artean* izenekoa ere antolatu dute, umeak txikitatik kirola egitera bultzatzeko. Dagoeneko eman daiteke izena horietan guztietan.

### Ttipi Ttapa proiektua

Bestalde, iaz Eusko Jaurlaritzarekin batera bultzatutako Ttipi Ttapa proiektua ekarri dute gogora; asmoa da jendeak paseatzeko erraztasunak izan ditzala, eta aurten, besteak beste, Osintxuko eta Labegaraietako bidegorrietan panel informatiboak jarriko dituztela eman zuten aditzera.

### Aholkularitza eta Zure Erara

Kirol aholkularitza zerbitzua herritar guztientzako doakoa dela gogorarazi nahi izan zuten martitzeneko prentsaurrekoan. "Ez da beharrezkoa Agorrosingo abonatua izatea eta herrian dauden aukeren gainean informazioa emango zaie; kirol aukeren gainean, besteak beste.

Eta beste zerbitzu bat ere jarriko dute aurten martxan: Zure Erara. Horrekin, gainera, bakoitzak nahi duen ariketa eta kirola nahi duen orduan egitea eskainiko dute.

### Kirola Kalera

Kirola Kalera ere egingo dute aurten, iazko arrakasta ikusita. Eta egun bakarrean egin beharrean, gainera, lau egunean egingo dute; apirilaren 6an, maiatzaren 18an, irailaren 21ean eta urriaren 19an, hain zuzen ere. Bada, Bizikleta Astea ere egingo dutela aurreratu dute.

### Kirol Kontseilua

Aurten, hirugarren urtez, herri mailan Kirol Kontseilua irekita egongo da eta mugikortasuna landuko dute, besteak beste.






Ikuskizuneko parte hartzaileak: Valverde, Uribe, Rueda, Mendizabal eta Urdangarin. | KAP

# 'Jainko txiki eta jostalari hura' gaur Zabalotegiko oholtzan

## Ikuskizuna 'Zaharregia txikiegia agian' egitasmoaren bigarren pausoa da

**M.B./I.G.** | BERGARA

Poesia eta musika batzen dituen *Jainko txiki eta jostalari hura* ikuskizuna izango da gaur, 19:00etan, Zabalotegi aretoan. Taularen gainean Kirmen Uribe poeta eta Mikel Urdangarin, Rafa Rueda eta Bingen Mendizabal musikariak elkartuko dira.

*Zaharregia, txikiegia agian* egitasmoa sortu eta hamarkada bat geroago, elkarrekin egoteko gogoak bultzatu ditu aspaldiko lagunak bat egitera eta *Jainko txiki eta jostalari hura* CD-liburua argitaratzera.

Ondarroako Maribilli jaialdian lagunartean erakutsita, New Yorken arrakastaz estreinatu zuten azaroan. Gasteizko Artiumen ere harrera ona izan ostean, arratsaldean Zabalotegin erakutsiko dute ikuskizun zabal hori.

### Saio zabal bezain berezia

Parte hartzaileen izenak ikusi eta gero, bateren batek emanaldia kontzertu bat izan daitekeela uste izango du, baina ikuskizuna musika soiletik haratago doa, abestiak, poema-irakurraldiak eta proiekzioak tartekatzen baitira. Diziplina askotariko lanak Uriberen poemak ditu ardatz, eta, Urdangarinek eta Ruedak ondu dituzten kantuez gain, Valverderen akuarelekin osatzen da. Hitzek bereziko garrantzia izan arren, Uribe poetak hauxe dio: "Gauza guztien gainetik musika dago, hitzen musika".

Ikuskizunaren hari nagusia Euskal Herria da. Uriberen bertso, kopla, hitzek... liburuetatik salto egin eta musikari esker bizia eskuratu dute. Ikusleek bizkor sumatuko duten moduan, hitzek ez ezik, argiek ere jantziko dute biluzik dagoen oholtza.

Berezia izango den ikuskizun hori ikusteko sarrerak zortzi euroren truke eskuratu ahal izango dira, 18:00etatik aurrera, Zabalotegiko txartel-leihatilan.

## Otsailaren 1ean izango den gospel kontzerturako sarrerak salgai daude

**I.G.** | BERGARA

Datorren zapaturako Bergarako Orfeoiak gospel kontzertua antolatu du. 20:00etan izango da, pilotalekuan. Bada, Orfeoiak, Orfeoi Gazteak eta kontzertu horretarako sortu den ganbera-orkestra batek hartuko dute parte.

Emanaldi horretarako sarrerak Pikuperen bulegoan, Lazkano oinetako-dendan eta egunean bertan pilotalekuko leihatilan erosi ahal izango dira zortzi euroren truke.

## OHARRAK

**OINARRIZKO INGELES ESKOLAK**

Helduen Eskolak urtarrilaren 27tik 31ra oinarrizko ingeles mailetako matrikulazio epea ireki du. Informazio gehiago Irizar jauregian 10:00etatik 13:00etara edo 943 76 44 52 zenbakian.

**TAILA ESKOLAREN BATZAR NAGUSIA**

Bergarako Taila Eskolak eguaztenean egingo du urteko batzar orokorra. Antolatzaileek zehaztu duten arabera, batzarra arratsaldeko zazpietan hasiko da.

## Kartzela zaharrak dantza afrikarren ikastaroa eta asteroko batzarra hartuko ditu aste bukaeran

Arratsaldeko zazpietan hasita, asteroko batzarra egingo dute Gaztetxeko kideek. Bihar, aldiz, 16:00etan, dantza afrikarren ikastaroari ekingo diote. Bi astean behin elkartuko dira eta, guztira, sei saio egingo dituzte. Antolatzaileek "beldur gabe" joateko dei egin dute.

## Domeka eguerdian (12:30) Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du pilotalekuan

Aurreko aste bukaeran Euskadiko Orkestra Sinfonikoak eskainitako emanaldiaren ostean, domeka eguerdian musika bandak hartuko du haren testigua. Alfredo Gonzalez Chirlaque zuzendariak errepertorio zabala bateratu du eta entzuleek, zarzuela eta pasodobleez gain, *My fair lady* musikala entzungo dute.



# Kurtzebarri eskolako leku arazoa konpontzear dago

## Hiru solairuko eraikina egingo dute patio aldera eta bost gela arrunt eta psikomotrizitaterako gela egongo dira

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Aspalditik dator Kurtzebarri eskolak duen leku arazoa; izan ere, badira bost urte Iralabarri plazan Udalak dituen lokaletara joaten direla lau ikastalde egunero-egunero. Baina arazoa bukatzear dago, eraikina handitzeko lanok aurten hasiko dituztelako, ondo bidean apiril inguruan.

Patio aldera handituko dute eskola, beste eraikin bat eginda. Proiektua aspaldi dago eginda, eta lanok ere esleitu dituzte: Oñatiko Moyua enpresak egingo ditu. Sei bat hilabete beharko dituzte horretarako. Aurretik, baina, beste lantxo bat egin beharra daukate: eraikina handituko den lurzorutik pasatzen den gas hodia desbideratu. Aste Santurako bukatuta izango dutela esan diete eskolakoei. "Ikusi egin behar", diote haiek. Orduan hasiko dituzte handitze obrak.


Kurtzebarri eskolak jolasteko patio aldean duen sarrera. | M.A.

**Sei gela berri**

Hiru solairuko eraikina izango da, eskolari itsatsita, patio aldera egingo dutena. Orain dauden eskailerak kendu egingo dituzte eta zuzenean izango du sarrera bertatik; igogailua jarriko dute sarreran. Jolasteko patioari kenduko diote lekua eraikinarendako, baina hiru metro eta erdi bakarrik. Sei gela egingo dituzte; beheko solairuko biak handiagoak izango dira eta horietako bat psikomotrizitaterako erabiliko dute. Beste bost gelak arruntak izango dira. Lehenengo solairuan komunak ere egingo dituzte.

Irailerako, datorren ikasturte hasierarako, zaila izango da bukatuta izatea gelok; hala ere, ez die axola horrek: "Hainbeste denboran zain egon ondoren bukatuko dituzte eta", diote zuzendaritzako kideek. Izan ere, orain dela sei urte egin zuten handitzeko eskaera, baina leku arazoak aurretik ere bazituzten: "Hirugarren mailatik gorako taldeek ez dute izan gela propiorik, konpartitu egiten zituzten. Baina gero hori ere ez zen nahikoa", argitu du Lourdes Etxeberria eskolako zuzendariak. Hala, Iralabarri plazako Udalaren lokaletara joaten hasi behar izan zuten: hirugarren mailatik seigarrenera bitarteko ikasleak joaten dira, bi talde goizetan eta beste bi arratsaldetan. Eta Arkupeko dantza gela psikomotrizitaterako erabiltzen dute. "Luxu handirik ez dugu izango gero ere, baina talde bakoitzak bere gela bai", dio.

Lanok iraun bitartean hainbat eragozpen sortuko direla ere badakite: trabak, zikinkeria, zarata… "Gainera, Udalarekin koordinatu beharko ditugu aparkalekuak, kamioien joan-etorriak, ikasleen sartu-irtenak… Eta bidegorriaren atzeko partea itxi egin beharko da", dio Etxeberriak, eta gaineratu: "Hala ere, gu gertu gaude guztia jasateko".

**Babes eskaera**

Eskolako patio gainetik errepidea pasatzen da, eta hori hobeto babesteko eskatzen ere badabiltza azken bederatzi urteotan: "Orain arte inork ez digu kasurik egin; datorren astean Aldundian eskaera egitekoak dira, ea zerbait lortzen den". Horrez gain, bidegorriaren ibilbidea aldatzeko asmoa ere agertu du Udalak.

# Martinekin eta Iturriagarekin bertso afaria otsailaren 14an

**M.A.** | ARETXABALETA

Negu partean egin izan duen bertso afaria antolatu du Loramendi Elkarteak Lekaixoka bertso eskolarekin elkarlanean. Otsailaren 14an, egubakoitza, izango da Hibai-Gain elkartean. Eta afaria girotzeko, Alaia Martin (Oiartzun, 1987) eta Unai Iturriaga (Durango, 1974) bertsolari ezagunak gonbidatu dituzte. Txartelak dagoeneko salgai dauzkate Taberna Berrin eta Loramendin (bazkideek, 18 euro; gainerakoek, 20 euro).

**Debaguneren lehiaketa**

Bestetik, Loramendiko bazkideen artean banatutako Debagune egutegiaren bueltan lehiaketa antolatu dute aurten, eta hilero sari bat banatu zuzen erantzun dutenen artean. Urtarrileko galdera hauxe da: *Zer irudikatzen du Beinke -Loramendi dantzak?*

Erantzunak honako helbidera bideratu behar dira: *debagune@gmail.com*; azken eguna gaur da, hilak 24. Eta saria izango da Loramendik antolatutako bertso afarirako lau txartel.

ARETXABALETAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIK*A

2-12 urte

KURTZEBARRI ESKOLA
HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA
Santa Kurtz 19
Tel.: 943 79 00 49
012015aa@hezkuntza.net

BILERA INFORMATIBOAK:
HH eta LHko (2-12 urte)
Urtarrilaren 28an, asteartean liburutegian
- 17:30ean euskaraz.
- 18:30ean gazteleraz.

MATRIKULA EPEA:
OTSAILAREN 3TIK 14RA.






Zaintza zerbitzua egongo da.

goieskola

www.goieskola.net



Iralabarri plazako aurrealdean dauden edukiontziak. | M.A.

# Bosgarren edukiontziaren aldekoek "adostasuna" gura dute

▶ "Zaborren bilketa sistema adostu dezagun", diote plataformako kideek

▶ Bosgarren edukiontziaren erabilerak "nabarmen egin duela gora" esan dute

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

"Zaborraren bilketa sistema adostu dezagun" esanaz orritxoa banatu die bosgarren edukiontziaren aldeko plataformako kideek, egunotan, herritarrei.

Argitu dute bilera bat egin zutela udal arduradunekin eta bosgarren edukiontzia mantendu eta atez ateko sistema ezartzea proposatu zietela bertan: "Hori bai, atez atekoaren erabilera zuzena zorrotz kontrolatuko da eta bosgarren edukiontziaren sistema sei hilabetean behin bakarrik neurtu". Eta gaineratu: "Horren erabilera okerra bada, erabiltzaileak atez ateko sistema erabiltzera behartuko dira". Eta arrazoitzat zera eman duela Udalak: "Atez atekoa ez gainontzeko sistema guztiek erraustegia eraikitzea dakartela eta guretako nahi ez duguna beste nonbait egitea bidegabea dela. Udalak ahaztu egin du hori egitera doala atez atekoarekin; hau da, derrigorrean inposatu". Horregatik guztiagatik, plataforma horrek Udalaren proposamena "gaitzetsi" zuela eta elkarrizketa "serio eta zintzo" baterako deia egin: "Gaur da eguna ez dugula jaso erantzunik".

Bosgarren edukiontziaren erabilerak "nabarmen" egin duela gora diote –daturik ez eman arren–, eta gaineratu: "Gure proposamenean jasotako neurri batzuk ezarriz uste dugu bosgarren edukiontziaren aukera bideragarri, erreal eta ekonomikoena dela". Jakinarazi dute plataformak Udalari egindako proposamen hori eskura daukatela ezagutu gura duenarendako; honako helbidean eskatu behar da: *atxabalta.5.alde@gmail.com*. Eta herritarrak animatu gura dituzte, batetik, ekarpenak egitera, eta bestetik, hondakin organikoak jasotzeko saskia eta poltsak Arkupen eskatu eta bosgarren edukiontzia erabiltzera.

**Udalak erantzunik ez**

Ana Bolinaga alkateak jakinarazi du ez dela hasiko ezer erantzuten, ezta "gerra mediatikotan" sartzen ere. Eta gaineratu du hondakinen kudeaketaren gainean orain arte landutako guztiaren berri laster emango dietela herritarrei –egindako proposamenak, jasotako ekarpenak, emandako pausoak…–. Prentsaurrekoa egiteko asmoa azaldu du.

## 16 bikote emakumeen frontenis txapelketan

**M.A.** | ARETXABALETA

Bihar, zapatua, hasiko dute Aretxabaleta kirol elkarteak eta Loramendik, Udalaren laguntzarekin, antolatutako emakumeen frontenis txapelketa. 16 bikotek eman dute izena, eta aretxabaletarrekin batera Oñatiko eta Bergarako emakumeek jardungo dute norgehiagokan. Adinari dagokionez, 16 urte ditu jokalari gazteenak eta 50en bueltan nagusienak.

**Finala martxoaren 8an**

Txapelketa liga erara jokatuko dute, eta lau talde egin dituzte horretarako. Partidu guztiak Iturrigorri pilotalekuan izango dira zapatu goizetan, 09:00etan hasi eta 14:00ak bitartean. Martxoaren 1ean finalaurrekoak jokatuko dituzte sailkatutako bikoteek eta 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, finala. Txapeldunek jasoko dute txapela, garaikurra eta 200 euroko txartela, Aretxarte merkatarien elkarteko dendetan erabiltzeko; eta bigarren geratzen direnek, garaikurra eta 100 euroko txartela.

## TXALOAK ETA TXISTUAK



M.A.

## Espaloia egoera eskasean

Geltoki plazako espaloia, bidegorriaren ibilbidea, egoera eskasean dagoela jakinarazi du herritar batek. Zuhaitzen sustraiek jaso egin dituzte harlauzak, eta oinezkoek estropezu egiteko arriskua dute; iaz, esaterako, emakume bat jausi zen bertan. Hala, Deba ibai alboan egin duten moduan, hurrengoan Geltoki plazako espaloia konpontzera animatu gura ditu udal agintariak herritar horrek.

### Puzgarriak izango dituzte ume eta gaztetxoek Ibarra kiroldegiko igerilekuan bihar arratsaldean

Kiroldegiko igerilekuan puzgarriak egongo dira ume eta gaztetxoendako bihar, eta begiraleek hainbat jolas proposatuko dizkiete. Hona ordutegia: 3 eta 6 urte artekoak –gurasoekin– 16:30etik 17:30era; 7 eta 10 urte artekoak 17:30etik 18:30era; eta 11 eta 12 urte artekoak 18:30etik 19:30era. Kiroldegiko abonatuendako debalde da sarrera; abonatu ez direnek 5 euro ordaindu behar dituzte.

## Bat-bateko sorkuntza saioak hasiko ditu Jaiki elkarteak domekan

**M.A.** | ARETXABALETA

Urte berriarekin batera bat-bateko sorkuntza saioen ikastaroari ekingo dio Jaiki elkarteak. Aurretik egindako legez, hilabeteko azken domeketan elkartuko dira, oraingoan hasita, kuartel zaharrean (18:00-20:00).

**Jolastu eta ondo pasatu**

Musika, dantza, antzerkia, argazkilaritza eta, orokorrean, arte ederrak gustuko dituztenek badute hitzordua aurten ere Jaiki elkarteari esker. Asmoa da sorkuntza lantzea, imajinazioa libre uztea, norberak barruan duen zerbait ateratzea ekintza artistikoen laguntzarekin… Izan ere, diote kontua dela jolastuz sormena berreskuratzea, eta, noski, ondo pasatzea. Dagoeneko batbateko hainbat saio antolatu dituzte Jaikiko kideek azken urteotan, eta oso gustura jardun izan dute beti. Lotsak alde batera utzi eta taldearengan konfiantza izan beharra dago; eta datorrenak askatasun osoa du gura duenean parte hartzeko.

Taldera hurbiltzeko ez dela eskarmenturik behar diote antolatzaileek. Dena den, zalantzak argitu gura izanez gero, idatzi honako helbidera: *jaikielkartea@yahoo.es*.



Jaiki elkarteko kideak kontakt saio batean. | GOIENA

## Odola ateratzera datoz astelehenean

**M.A.** | ARETXABALETA

Negu parteko odol ateratzeak egingo dituzte Arabako Odol Bankuko kideek datozen hiru astelehenetan gurean; hau da, urtarrilaren 27an, otsailaren 3an eta 10ean. Betiko legez, osasun etxean izango dira, 16:15etik 20:00etara bitartean.

Gainera, otsailaren 20an, eguena, odol ateratzeak egiten dituen autobusa etorriko da gurera. Durana kalean, Herriko Plaza parean, izango da goiz osoan (09:30-13:30), herritarrei argibideak eman eta haiek odola ematera animatzeko.

**Emaile beharra**

Bestalde, Odol Emaileen Elkarteko kideek gogorarazi gura dute emaile kopuruak behera egin duela azken urtean –batez ere, erretiratu egin direlako asko–. Diotenez, elkarte autonomoan dagoen odol beharra asetzeko, aurten 9.000 emaile berri beharko genituzke. Hala bada, sekula eman ez duten herritarrak eta batez ere gazteak animatu gura dituzte.

# Elizate, Euskara eta Kirol sailetara diru gehiago bideratuko dute aurten

Alegaziorik ez da aurkeztu eta behin betiko onartuta geratu dira aurrekontuak


Igerilekuko sakonera murrizteko 62.000 euro bideratuko dira. | GOIENA


Olazar eta hilerri arteko hegala konpontzeko 60.000 euro behar dira. | M.B.

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Abenduaren 17an, Bilduko eta Elizateetako ordezkarien aldeko botoekin hasierako onarpena eman zieten 5,3 milioiko aurrekontuei. Bada, alegaziorik ez da aurkeztu, eta, hortaz, behin betiko onartuta geratu da aurtengo proiektua.

Beñat Herce alkatearekin izan gara, eta azaldu digu gizarte beharrizanak bermatzen dituzten aurrekontuak direla onartutakoak; horrekin batera, udal zerbitzuak bermatzen ahaleginduko direla jakinarazi du, gastu korrontearen karga neurtuz eta, ahal dela, murriztuz. Enplegua sortzeko, ekintzailetasuna sustatzeko, tokiko komertzioari laguntzeko eta lehiakortasun eta dibertsifikazio nahiz internalizazioa garatzeko "esfortzu garrantzitsua" egingo dela ere aipatu du. Horren harira, iragarri du Jaurlaritzak eta Diputazioak emandako laguntzen bidez hiru kontratazio egingo direla: hain justu, IKTetako arduraduna, kontu-hartzailetzarako administraria eta Elizateetako konponketa eta mantentze-lanak egingo dituen langilea.

**Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak**

Urtero moduan, Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak sailetara bideratuko da aurrekontuaren zatirik handiena; hain justu, ia 1,8 milioi euro, aurrekontu osoaren %33,37. Kale eta eraikinen garbiketa, brigada, hirigintza, lorezaintza eta mota horretako zerbitzu garrantzitsuak daude sartuta arlo horietan.

Administrazio Orokor Saila izango da bigarrenik diru gehien jasotzen duena: 763.290 euro. Jarraian daude Gizarte Zerbitzuak 438.601 eurorekin eta Ingurunea 436.822 eurorekin. Joan den urteko aurrekontuekin alderatuta, %2,42ko igoera izan du lehenak eta %25,9koa bigarrenak. Elizate, Euskara eta Kirol sailek ere diru gehiago jasoko dute aurten: Elizateetarako partida %44,94, Euskarakoa %34,75 eta Kirolekoa %38,78 igoko dira.

**Igerilekuko sakonera**

Aurreikusitako inbertsioen gainean ere egin du berba alkateak. Honakoak dira: Olazar eta hilerri artean dagoen hegalean horma berreraikitzea (60.000 euro), kiroldegiko makina-gela konpontzea (57.000) eta igerilekuko sakonera murriztea (62.000), Olazarko eta industrialdeko bidegorriko argiteria aldatzea (12.000), Hidalga kalean inpermeabilizazio lanak egitea (8.000), hilerrian egingo diren lanak (6.000), elizateetako inbertsioak (30.000), auzo-konpostgune berriak (8.000 ) eta Mankomunitatetik bideratuko diren hondakin bilketa berrirako, edozein delarik ere sistema, aurreikusitako inbertsioak. Bestalde, martxan diren beste proiektu batzuk borobiltzeko urtea izango da: besteak beste, mugikortasun proiektua eta Zaldibar antzokia irekitzea eta martxan jartzea.

Alkateak gaineratu du urtea aurrera doala egindako aurreikuspenak betetzen badira, honako proiektuak exekutatzeko aukera ere egongo dela: Atxorrotzeko induskektak, Torrebasoko parkearen bigarren fasea eta elizateetan inbertsio gehiago.

---

BEÑAT HERCE | ESKORIATZAKO ALKATEA

## "Oposizioaren ekarpena hutsaren hurrengoa izan da kontuen lanketan"

Datozen lerroetan, aurrekontuen eta Udalaren egoerari buruz egin du berba Beñat Herce alkateak.

**Iazko aurrekontuekin alderatuta nolakoak dira aurtengoak?**

Ziurgabetasun handiagoko egoeran garatutakoak dira, baina lanketa handia izan dutenak. Kuantitatiboki, 125.000 euro handitu dira, nahiz eta zuhurtziaz garatu izan diren. Handitze honen zergatia, gehienbat, UFFFtik dator. Kualitatiboki, aurtengo erronkei egokituta daude eta, ondorioz, normala da arlo batzuetan gorabeherak egotea. Esaterako, Zaldibar antzokia amaitzear dago eta horixe da Kultura arloak %14ko jaitsiera izatearen arrazoia.


GOIENA

**Zer diozu udal taldeek kontuen bueltan izandako jarreraz?**

Elizateetako ordezkariek argi dute zein den bere papera, eta baita beharrak ere. Ez da erraza guztiari erantzuna ematea; ez, behintzat, egungo koiuntura ekonomikoan. Hala ere, eztabaida eraikitzailea da eta eskertzen dugu haien lana. Gainontzeko taldeak, aldiz, aurrekontuak garatu izan diren batzordeetara ere ez dira etorri, beste askotara etortzen ez diren moduan; beraz, haien ekarpena hutsaren hurrengoa izan da. Dena den, urtero lez, guk aurrera egin dugu. Hasiera batean guk egin eta haiek, beharrezko balitz, kritikatu egingo zutela esan ziguten. Aurten, aldiz, hori ere ez dute egin, ez onartze bilkuran ez eta alegazio bidez ere. Ez gara inor oposizio nola egin behar duten esateko, baina, gure iritziz, oso urruti daude Eskoriatzarako beharrezko den Udal Gobernuaren fiskalizazio eta opozizio eraikitzailea egitetik. Ez gara haien atzetik ibiliko, guk Udaleko batzordeetan egiten dugu lan, astero-astero.

**Nolakoa da Udalaren egoera ekonomikoa?**

Ona. Hainbat urtetatik hona ditugun maileguek nahiko zama dakarte, baina azken bi urteetan zorpetzea ez handitzeak asko lagundu du. Ez da erraza gastu korronte osoa sarrera korronteekin finantzatzea, baina betetzen dugu, eta, inbertsio gaitasunari dagokionez, behar duguna baino murritzagoa da; baina egungo egoera ikusita, Udalak behar zituen inbertsioak egiten ari gara: antzokia, biribilgunea, aparkalekua, e.a. Beste udal batzuekin konparatuz gerakin majoa dugu Eskoriatzan.

---

## AURREKONTUEN LABURPENA 2014

| | EUROAK |
|---|---|
| Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak | 1.778.195 |
| Elizateak | 84.744 |
| Euskara | 241.795 |
| Gazteria eta Hezkuntza | 370.392 |
| Kirola | 413.523 |
| Kultura eta Jaiak | 301.993 |
| Ingurunea | 436.822 |
| Turismoa, Ondarea eta Ekonomia | 240.114 |
| Gizarte Zerbitzuak | 438.601 |
| Parte-hartzea eta Komunikazioa | 153.551 |
| Udaltzaingoa | 104.951 |
| Administrazio Orokorra | 763.290 |
| GUZTIRA | 5.327.971 |

---

## UDAL TALDEEN BALORAZIOA

Udalean ordezkatuta dauden talde guztiei aurtengo aurrekontuen gaineko balorazioa eskatu diegu. Ezker Anitza-IU taldeak uko egin dio egiteari, eta EAJ-k ez du baloraziorik bidali.

**Iñaki Madinabeitia** | Elizateak



### "Alkatetzatik interpretazio murriztaileak egiten dira"

"Korporazioan gehiengoa duen alderdiarekin batera, Eskoriatzako Elizateen Elkartekoak zabaltasun osoz kolaboratzen saiatzen gara, Eskoriatzako Udalean tratatzen diren gaien kudeaketa eraginkortasunez eta ahalik eta dinamikoena izan dadin. Ildo horretatik, legealdia hasi zenetik aurrekontuen harira akordioa bilatzen ahalegindu gara, eta baita lortu ere 2013ko aurrekontuetan. Baina, akordio hori praktikara eroatean eta aurrekontuen proiektuan irudikatzean, konturatu gara alkatetzatik interpretazio murriztaileak egiten direla; izan ere, bere garaian izandako negoziazioetan inoiz ez ziren mahaian jarri.

Hori dela eta, aurtengo aurrekontuen proiektuaren alde bozkatu baldin badugu ere, esan beharra dago boto hori behin-behinekoa dela. 2013ko aurrekontua ixterakoan horretan azaltzen diren partidak sakon aztertu eta aurtengo kontuetan aurreikusita dauden partidak zelan geratzen diren ikusi bitartean, behin-behinekoa izango da".

**Jose Luis Cantero** | PSE-EE



### "Bilduren "itxurakeri" aurrerakoia agerian geratu da"

"Ezkerreko alderdia izanda, aurtengo udal aurrekontua arbuiatzen dugu, izaera antisozialagatik eta herriko interesendako oso kaltegarria delako. Bilduren "itxurakeri" aurrerakoia agerian geratu da. Aurten ere igoera handia izango du alkate jaunaren soldatak; joan den urtean salatu genuen aurrekontuarekin alderatuta %30 igo da hori. Ez du ematen krisia Udalera iritsi denik.

Atez atekoaren sistemaren ezarpena kostu eutsiezina da Udalaren diru-kutxarendako, eta, gainera, osasungaitza, kaltegarria eta herritarrek tinko arbuiatutako sistema ere bada. Ez asmatu boikotik, oposizioa da sistema horren bueltan dagoena.

Bestalde, oraingoan ere ez diote ekin etxebizitzaren arazoari; ez dute ganorazko neurririk hartzen. Krisia noiz amaituko zain daude, besoak gurutzatuta.

Azkenik, enplegua eta inbertsioa sustatzeko politiketarako laguntzarik ere ez da eskaintzen aurtengo aurrekontuan; horren harira, nabarmentzekoa da Fagorreko krisia".

# Eskoriatza Garbiaren esanetan, zaborraren %43 "desagertu" da

Gogor salatu dituzte Udalak boikota egiten dutenei helarazitako gutunak

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Eskoriatza Garbia plataforma ez dago ados proba pilotuaren bigarren hilabetearen bueltan Udal Gobernuak egindako balorazio positiboarekin. Haren esanetan, hondakinen gaikako jasotzearen datu partzialak sortutako zabor kopuru guztia izango balitz moduan aurkeztea "adarjotzea" da. Honakoa salatu dute: "Zelan esan daiteke jasotzea %92koa izan dela ontziak jaso dituzten herritarren kopurua %82koa denean eta horietako batzuek ontziak bueltatu dituztenean?".

Plataformak erabilitako datuak Udalak emandakoak direla diote; hain justu, Mankomunitateko teknikariek emandakoak. Horien arabera, 2011. urtean, eskoriatzar bakoitzeko 313 kilo zabor jaso ziren. Plataformak eskainitako datuen arabera, proba pilotuarekin, azaroan, 504 familia eta sistema berrian parte hartzen ari diren komertzioen artean 7.444 kilo jaso ziren. Horren harira, honakoa salatu du Eskoriatza Garbiak: "Askoz jota, familia bakoitzeko, urtero, 177 kilo dira. Hau da, zaborraren %43 desagertu da". Desagerpen horretarako erantzuna badauka plataformak:



Zaborra pilatuta. | ESKORIATZAKO UDALA

"Falta diren 136 kilo horiek herriko gainerako edukiontzietan daude; herritar arduratsuek esfortzu handiz utzi duten zaborra da hori; horien gizalegezko kontzientzia agerian geratzen da horrekin".

Eskoriatza Garbiaren esanetan, Intxaurtxueta, Gaztañadui eta San Pedroko eskoriatzarrak birziklatzearen alde daude eta zaborra gaika banatu gura dute, baina edukiontzi marroia erabiliz. Plataformak honakoa gaineratu du: "Abenduan egindako batzarrean alkateari hori esaten saiatu ziren, baina ezin, alkateak ihes egin zuelako. Marroiarekin batera, lehengo edukiontziak jar ditzatela gura dute".

**"Gutunak"**

Udal Gobernuak bidalitako gutunen gainean ere egin dute berba. Joan den astean Udalak iragarri zuen Mankomunitateko ordenantza aplikatzen hasiko zela; eta identifikatutako arau-hausleei jokabide ez egokiekin jarraitzen baldin bazuten zigorra jasoko dutela ohartarazten zuen gutuna bidaliko ziela esan zuen. Lehenengo gutunak heldu omen zaizkie plataformako kidei eta herritarrei ere.

Eskoriatza Garbiaren esanetan, Udalak "inposizioaren lengoaia" baino ez du ulertzen, eta hori argudiatzeko nabarmendu du atez atekoaren kontra 1.495 sinadura jasotzearekin batera, herriko 500 balkoitan zabor poltsak eskegi direla eta proba pilotuaren kontrako boikota eta manifestazioak ere egin direla. Plataformakoek honakoa ohartarazi dute: "Herria ez da geratuko bere iritzia kontuan hartua izan dadin arte, eta ez du betikoen inposiziorik onartuko".



LUIS EZEIZA IKASTETXEA

## Danborrak astindu dituzte Luis Ezeizan

Urtero moduan, San Sebastian egunean danborrada egin zuten Luis Ezeizako 220 bat ikaslek. Eguraldiak ez zuen lagundu eta Udal Pilotalekuan egin behar izan zuten emanaldia. *San Sebastian martxa, Diana* eta, bukatzeko, *Iriyarena* jo zuen, eta jarraian, txokolate beroa hartu zuten guztiek. Goiko irudian Lehen Hezkuntzako neska-mutikoak agertzen dira danborrak astintzen.

### Zabalik dago gurasoen topagunean izena emateko epea

Lehen hiruhilekoa amaitu ostean, gurasoen topagunean parte hartu gura dutenei izena emateko aukera zabaldu diete ostera. Hilaren 31 baino lehen eman behar dute izena 0 eta 6 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoek, kultura etxeko Gazteria Zerbitzuan. Antolatzaileek jakinarazi dute gehienez hamar gurasoko taldea osatuko dela.

### OHARRAK

**MAHAI JOLASAK**

Mahai jolasen txapelketa egingo dute gaur, egubakoitza, Tortolis ludotekan, 18:00etan.

**HUTSAREN KONTZERTUA**

Hutsa musika taldeak kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, Inkernu tabernan. 23:00etan hasiko den emanaldian, lan berria aurkeztuko du Maria Riverok eta Eriz Perezek osatutako bikoteak. Iaz azaroan kaleratutako *Astuh* izeneko diskoko kantak joko dituzte, bereziki; hain justu, zazpi kantu akustiko biluzi, ahots melodia ederrez lagunduta, erritmo inprobisazio eta estilo aniztasunari leku eginez.

**IKASTAROA ETA IRTEERA**

Biharko, zapatua, larrugintza ikastaroa eta domekarako mendi irteera egitea dute aurreikusita gaztelekuan.



# 'Ziklon day' eguna izango dute bihar Udal Gimnasioan

Apirilaren 5ean Oñatin izango den areto bizikleta maratoia prestatzeko balioko du

ANE ETXEBERRIA | ANTZUOLA

Apirilaren 5ean Oñatin izango den areto bizikleta maratoia prestatzeko hainbat *master class* zirkuitu antolatu dituzte eta lehena Antzuolan izango da bihar. Bertan, ordu eta erdiko eskolak egongo dira irakasle bikote batekin. Esan bezala, bihar Udal Gimnasioan izango da, baina ez da izango Debagoienean egongo den bizikleta erronkari aurre egiteko eskola bakarra; izan ere, otsailaren 8an Arrasaten beste aukera bat izango da eta martxoaren 6an, berriz, Oñatin. Halaber, otsailaren 22an Legazpiko gimnasioan entrenatzerik izango da eta martxoan 22an, Zumarragako kiroldegian.

Entrenatzaileei dagokienez, egun bakoitzean bikote bat arituko da, eta, beraz, hamar entrenatzaile izango dira lanean bost egunean. Hauek dira lantaldeko buruak: Asier Arregi, Asier Peñabad, Oskar Azkarate, Sara Perez, Ane Arando, Xabi Azkarate, Ander Agiriano, Nuria Rodrigez, Angel Zeziaga, Olatz Igartua eta Maier Irazabal.

**Izen-ematea**

Antzuolan dagoeneko ezin da izenik eman, baina bai beste herrietako *master class*-etan; *erronka@gmail.com* helbidera idatzita edo herri bakoitzeko kiroldegira deituta.



Joan den astean jokatutako mus partidetako bat. | JESUS KORTABARRIA

## Herrian jokatzen ari den mus txapelketako finala bihar Arin jatetxean

A.E | ANTZUOLA

Herriko bi kanporaketak jokatu ondoren, bihar jokatuko da final nagusia. Arin jatetxean izango da, 16:30ean hasita. Bikote hauek lehiatuko dira herriko azken fasean: Sergio Sanchez eta Jabi Berraondo, Pedro Iglesias eta Joseba Etxabe, Jon Iturbe eta Mikel Lizarazu, Joseba Azkarate eta Asier Etxaniz, Gotzon Gabilondo eta Xabier Alzelai, Felix Alonso eta Claudio Cabrera, hain zuzen ere. Biharko partidak oso lehiakorrak izango dira, horrela izan baitira guztiak.

Zapatuan txapeldun ateratzen diren bikoteak VI. Euskal Herriko Mus Txapelketan lehiatuko dira. Otsailaren 14an, 15ean eta 16an herrialdeko kanporaketak izango dira eta martxoaren 8an, final nagusia.

### OHARRAK

**ODOL EMAILEAK**

Eguenean, urtarrilak 30, odol -emate eguna izango da. Betiko legez, 17:30ean, Olaranen, interesa duten guztiek odola eman ahal izango dute.

**SAGARDOTEGIRA IRTEERA**

Otsailaren 22rako sagardotegira irteera antolatu dute Gaztetxeko kideek (zapatua). Eta dagoeneko izena eman daiteke Gaztetxean jarri duten zerrendan.

### 'Aulki hutsak' dokumentala ikusgai egunen iluntzean

Heriotzari eta doluari buruzko dokumental hori Iñaki Peña medikuak zuzendu du eta datorren eguenean, urtarrilak 30, 19:00etan, izango da ikusgai Torresoroan. Arteman komunikazio enpresak ekoiztutako dokumentala da eta bailarako beste herri batzuetan arrakastaz eskaini ondoren, herrian izango da.



Herriko argiteria konpontzeko koadro elektrikoak aldatuko dituzte. | A.E

# Aurtengo aurrekontuak onartu dituzte asteon

2.500.000 eurotik gorako aurrekontua du aurten Udalak, herrian egin beharreko inbertsioei, gastuei eta zorpetzeari aurre egiteko

**ANE ETXEBERRIA** | ANTZUOLA

Martitzenean izandako ezohiko udalbatzarrean, 2014ko aurrekontuak onartu zituzten Bilduren aldeko sei botorekin eta EAJren kontrako bi botorekin. Izatez, aurrekontuok joan den astean ziren aurrera eramatekoak, baina EAJko Maria Eugenia Arrizabalagak eta Mikel Letek mahaia utzi zutenez, bertan behera geratu zen batzarra.

**Asmoak, sailka**

Aurten 2.500.000 eurotik gora izango ditu Udalak herriko gastu eta inbertsioei aurre egiteko. Diru sarrerak aurten ere beherantz doaz, eta, iazkoarekin alderatuta, 80.000 euro gutxiago izango dira. Sailez sail, bakoitzean dauden asmo batzuk hauexek dira: Ongizate Sailak Torresoroaren kudeaketan, erretiratuen diru laguntzetan, Mankomunitatearen ekarpenean eta Mizpiruralde egoitzan gastatuko du aurrekontuaren zati handi bat. Aurten *Harrera protokoloa* egitea da plana; hau da, *Elkarbizitza plana*.

Euskara Sailak irabazi asmorik gabeko taldeetan, Kontseiluan, Goienan, Herri Urratsen eta halako proiektutan parte hartuko du. Halaber, diru gehien sentsibilizazio kanpainan erabiliko dute. AISA programaren alde ere egingo dute; bertan, euskaraz ez dakitenek hitz batzuk, behintzat, jakin dezaten lan egiten da.

Hezkuntzan, eskolan aterpea jartzea eta argiteria aldatzea izango dira aurtengo proiektu izarrak; izan ere, argi kontsumoa jaitsi egin nahi dute, faktura oso handia delako. Aterpeari dagokionez, kontua da gela prefabrikatuetan tarte bat dagoela eta, ikasleak busti ez daitezen, aterpetxoa jarri nahi dela.

**Etxebizitza eta hirigintza**

Aurtengo lan garrantzitsuenak bi izango dira: alde batetik, herriko argiteria konpondu nahi dute. Hamar koadro elektriko daude herrian eta poliki-poliki guztiak aldatzea da helburua. Gainera, autobusak herritik ateratzeko bigarren fasea ere, aurrera eramango da. Bestalde, Euskaltelek herrian egin behar zuen inbertsioaren berri ere eman zuten. Oraingoz, dena geldi dago, Euskaltelek hala erabakita. Kontua da Orangeren auzian Euskaltelek kalte-ordain handia ordaindu behar izan diola eta horrek min handia egin diola taldeari.

Kulturan, herriko jaiek aurten murrizketa izango dute. 44.000 euro izan beharrean, 39.000 euro egongo dira jaietarako. Halaber, Torresoroan jarlekuak jarriko dituzte Goizperren eta Aldundiaren laguntzari esker.

Nekazaritza eta Ingurumenari dagokionez, baserrietara ur sarea helarazten jarraituko du Udalak. Urtero egiten da ekarpen bat herriko baserri guztietara ur sarea helarazteko. Bada, aurten, Uzarraga eta Galartza auzoetara zabaltzea da helburua. Kirolean, berriz, futbol zelaian aterpe bat jarriko dute, partiduak ikustera doazen zaleak busti ez daitezen. Euskara eta kirola uztartzeko laguntza ere emango da, eta Kirol Elkartean emakumeen talde bat sortu denez, laguntza bat emango diete.

Gazteria atalerako 24.000 euro izango dira eta Gaztetxeko argi eta igogailu gastuak ordainduko dira, eta gazte txokoko instalazioetan eta kudeaketan ere erabiliko da dirua, besteak beste.

**DIRU KOPURUA**

| SAILA | EURO |
|---|---|
| **Ongizatea** | 463.384 |
| **Etxebizitza eta Hirigintza** | 400.175 |
| **Nekazaritza - ingurumena** | 126.601 |
| **Kultura** | 88.492 |
| **Hezkuntza** | 80.300 |
| **Kirola** | 48.700 |
| **Euskara** | 41.351 |
| **Gazteria** | 24.000 |

**INMA BERISTAIN** | ALKATEA

## "Nahiago genuke diru gehiago izan herrian gastatu ahal izateko "



GOIENA

Alkatearekin aurrekontuen gainean hitz egin dugu.

**2014ko aurrekontuak onartu dituzue, iaz baino sarrera gutxiago izan dira...**

2014. urtean 2013. urtean baino 80.000 euro gutxiago aurreikusi ditugu sarreretan; aurten 2.526.000 euro. Hainbat arrazoik eragin dute murrizte hori: batetik, herritarren egoera ekonomikoa aintzat hartuta tasa eta zergak %1 soilik igo ditugu, KPIren neurrian igo beharrean; bestetik, 2013ko sarreren aurreikuspenak bete ez izanak ere eragina izan du.

**Herritarrek proposatutako ideiak ere kontuan izan dituzue aurrekontuak prestatzeko orduan.**

Bai, hala da. 2012an parte hartze prozesu bidez egin genituen aurrekontuak eta aurten ere, orduan atera ziren herritarren behar eta eskaerak kontuan izan ditugu aurrekontuak egiteko orduan. Horregatik, adibidez, 2013an irisgarritasun plana jarri genuen abian eta 2014an herriko zirkulazioaren arazoari aurre egiteko seinaleztapenean inbertituko dugu.

**Ongizatean murrizketarik ez, eta aurrekontuaren zati handi bat izango du; zer dela eta?**

Ongizateko aurrekontuari dagokion zatirik handiena Foru Aldundiaren bidez sartzen da. Udal aurrekontuen %20 hartzen du ongizateari dagokion diru partidak, eta garrantzi handia ematen diogu atal honi dagozkion zerbitzuei eusteari, hala nola etxez etxeko zerbitzuak, eguneko zentroa, etxe tutelatuak eta erretiratuen lokala. Sozialki garrantzi handia daukaten zerbitzuak dira, ezinbestean mantendu beharrekoak.

**"Gastuen araua betetzeak asko eragin du"**

**Hirigintzak ere diru dezente hartuko du; ongizatearekin batera behar handien duen atala da?**

Hirigintzako atalaren zati nagusia mantentze-lanetara bideratzen da. Hala nola herriko barandak berritzea, herriko argiteriaren koadro eta kableatuak berritzea...

**Inbertsioei dagokienez, zeintzuk izango dira garrantzitsuenak?**

Inbertsioetarako ez dugu diru askorik, 6.000 eurotik gorako gastuak, inbertsio bezala sartzen ditugu. Adibidez, inbertsioetan bi partida ditugu mantenurako, bata eskolako argiteria berritzeko ( kontsumoa erdira jaisteko) eta bestea aurretik aipatu dudan herriko zirkulazioaren seinaleztapenaren hobekuntza. Inbertsio errealak izango dira baserrietako ur sarearekin jarraitzea, Arrola inguruan lursailak erostea eta auzokonposta bideratzea, *zero zabor* politikarekin jarraitzeko.

**Aurrekontuak direla eta, zein da udalbatzarraren balorazioa?**

Balorazioan ezin aipatu gabe utzi maniobretarako daukagun tarterik eza. Nahiago genuke diru gehiago izan, herritarrei zertan gastatu nahiko luketen galdetuta erabakiak hartzeko. Gastuen araua (Rajoyren lege berria) bete behar izateak ere eragin handia dauka gure aurrekontuetan.

OPOSIZIOAREN BALORAZIOA

**M. Eugenia Arrizabalaga** | EAJko bozeramailea

## "Aurrekontuaren barruan, diru sarreren politikan utzikeria sumatzen dugu"



GOIENA

EAJko zinegotziek ere euren balorazioa egin dute: "Azkenean, komeria batzuk tarteko, EAJko Antzuolako zinegotziok aurrekontuen inguruan gure iritzia azaltzeko aukera izan dugu osoko bilkuran. Bilduk, azkenean, gure iritzia emateko eskubidea aitortu behar zigun, nahiz aurreko astean gertatutako gehiegikeria zuritu nahian eman zituzten arrazoiek itxura handirik ez izan.

Bilduk bere gehiengoaz baliatuz onartutako aurrekontuari kritika egin diogu. Bi dira arrazoi nagusiak: diru sarrera politikan sumatzen dugun utzikeria eta aurrekontuaren eskasia herriak dituen –eta etorkizunean izango dituen– beharrei erantzuteko. Urtetik urtera Udalaren sarrerak gutxitzen ikusten ditugu, bereziki bere eskumeneko diren kontzeptuak, eta kontsolidatzen ari den joera horrek erabat baldintzatuko du herrigintzaren etorkizuna. Ez dago apenas dirurik inbertsioetarako, eta antzuolarren herri ekimenerako ere ez: murrizketak kiroletan, euskaran, festetan... Aldiz, badago herrikoak ez diren hainbat erakunderendako edo... zaborrarentzako. Atez atekoa ezarri aurretik bilketak 3.000 euroko zuloa eragiten zuen, aurtengoan 70.000 eurokoa aurreikusten dute, herriko jaietarako %11 kentzen den bitartean, edo euskara ikasteko laguntzetan erdia, 1.000, dagoenean.

Hiri-altzariak berritzeko ez, baina 10.000 euro jarri dituzte auzo-konposterako. Bakoitzaren lehentasunen kontua".




Urtarrilaren 18an Agurainen aurkeztu zuten 2014ko edizioa, hainbat parte-hartzailerekin. | BERTSOZALE.COM

# Arabako Bertso Kuadrilla Artekoa, nobedadez josita

Lehiarik ez da egongo eta autogestionatua izango da; 34 talde egongo dira

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Arabako bertsolaritza mugimendua saretzea eta indartzea. Hori da Arabako Bertso Kuadrilla Artekoaren helburu nagusia. Bertsolariez aparte, bertsolaritzaren komunitateko kide guztiak hartzen ditu aintzat ekimenak: bertsozale, gai-jartzaile, grabatzaile, sukaldari, trikitilari… Talde osoak du protagonismoa.

Urtarrilaren 18an aurkeztu zuten hirugarren edizioa Agurainen: "Hirugarrenez, Arabako bertsolaritza astintzea du helburu Kuadrilla Artekoak", diote. Iaz banakakoa jokatu ostean, bi urteko zikloarekin jarraitzera dator Kuadrilla Artekoa. Izan ere, lehenengoz 2010ean antolatu zena mugarri bat izan zen Arabako bertsolaritzarendako. Bi modalitate ditu ekimenak: bat-batekoa eta idatzizkoa. Bat-batekorako 15 taldek eman dute izena. Idatzizko modalitaterako, berriz, 21 talde daude. Bi modalitateak kontuan hartuta, 300 lagun inguru mugiaraziko ditu egitasmoak.

### 20 saio Araba osoan zehar

Aurten bi nobedade nagusi izango dira: batetik, ez da lehiarik izango, hau da, ez da sailkapenik egongo. Hala, apirilaren 5eko azken saioa ez da finala izango, topaketa bat baizik, eta egun horretan talde guztiek hartu ahalko dute parte. Bestetik, ekimena autogestionatua izango da; talde bakoitzak erabakiko du zenbat saio antolatuko dituen eta saioak ze formatu izango duen. Euren ardura izango da, era berean, taldekideak eta baliabide teknikoak lortzea eta antolatzen dituzten saioen berri ematea.

Otsailaren 1ean hasiko dira saioak, eta, apirilaren 5eko azken topaketa kontuan hartuta, 20 saio izango dira Araba osoan zehar. Aramaion bi saio antolatu dituzte: otsailaren 15ean eta martxoaren 29an, hain justu.

## Aramaioko Bertso Eskolatik bi taldek eman dute izena

Kuadrilla Artekoaren hirugarren edizioan Aramaioko Bertso Eskolako bi talde izango dira, biak bat-bateko modalitatean. Batetik, *Aramaioko Garratzak* talde beteranoa; honako kideek osatzen dute: Xabi Igoa, Andere Arriolabengoa, Manex Agirre, Iker Agirre, Lierni Altuna, Gillen Agirre, Oier Kortabarria, Mikel Ruiz de Azua, Jone Arriolabengoa, Eskarne Ugarte eta Iker Elexpuruk. Bestetik, talde gazteago batek ere eman du izena, *Unibertsolariak:* Maria Izaga, Sabin Aranburu, Beñat Burgi, Peru Abarrategi, Paula Amilburu, Jon Izaga, Maider Aldai eta Miren Heriz dira kideak.



*Aramaioko Garratzak* taldeko kideak. | BERTSO ESKOLA

## Santa Ageda eskerako azken entsegua hilaren 30ean

J.B. | ARAMAIO

Atzokoaren ostean, azken entsegua falta zaie Bizente Goikoetxea abesbatzako, bertso eskolako eta Tritikitxa Eskolako kideei Santa Ageda eskea prestatzeko. Datorren eguenean, hilak 30, egingo dute azken entsegua kultura etxean (19:00). Santa Ageda eguna otsailaren 5ean izan arren, Aramaion otsailaren 1ean, zapatua, irtengo dira kalera: "Aste barruan eginda ezinezkoa da adin guztietako herritarrak elkartzea", diote. Adierazi dutenez, "martxa onean" doaz entseguak eta orain espero duten bakarra da eguraldia lagun izatea egun handian dena ondo irten dadin.

### Dirua, hiru taldeendako

Santa Ageda batzearen tradizioa ez galtzeko ahalegin berezia egin zuten iaz eta, arrakasta ikusita, errepikatu egingo dute, aurtengoa "are jendetsuagoa" izan dadin. Bi nobedade nagusi izango dira aurten: batetik, jasotako dirua hiru taldeendako izango dela, herriarendako ekintzak antolatzen jarraitzeko laguntza izan dezaten; eta bestetik, bi taldetan banatuko dira, eguna arinagoa izan dadin eta parte hartzaileak arratsalderako saioetarako oraindik gogotsu egon daitezen.

# Alaiak elkarteak batzar orokorra egingo du gaur

Zuzendaritza taldeko hiru kide berriak aukeratu eta elkartearen lehen logoa aurkeztuko dute

J.B. | ARAMAIO

Alaiak erretiratu elkarteak batzar orokorra egingo du gaur –lehen deialdia 16:30ean izango da eta bigarrena 17:00etan–. Besteak beste, datozen bi urteetan zuzendaritzako kide izango diren hiru bazkide aukeratuko dituzte: presidenteordea, diruzaina eta bokala.

Zuzendaritza taldea sei kidek osatzen dute. Hala, hiru kide berriek Jesus Garitaonandia, Cristina Etxenausia eta Ana Olabarria izango dituzte ondoan. Era berean, elkartea identifikatzeko logo lehiaketako finalisten berri ere emango dute. Beraz, aurrerantzean elkarteak erabiliko duen irudia erakutsiko dute gaur. Lau lagunek hartu dute parte lehiaketan.

### Azken bi urteen balorazioa

Gainera, Alaiak-eko idazkari Cristina Etxenausiak aurreratu duenez, 2012 eta 2013. urteetako memoria onartuko dute. Hitzaldi, txapelketa eta irteerez gain, Itxaso Arantzabalen podologia zerbitzua eta 2013ko jaietan Sastiñan irekitako eskulanen erakusketa nabarmendu ditu Etxenausiak azken bi urteetan egindako ekintzen artean.

Amaitzeko, diru kontuen berri ere emango dute gaurko batzarrean.



2013ko jaietan oso harrera ona izan zuen Alaiak-en erakusketak. | J.A.

## Eski irteera antolatu du Orixol elkarteak otsailaren 14tik 16ra; izena eman daiteke otsailaren 7ra arte

Orixol mendizale elkarteak eski irteera antolatu du Formigalera otsailaren 14tik 16ra. Elkarteko bazkideek 140 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, aldiz, 150 euro. Prezio barruan sartzen dira bi gau ostatuan, zapatuko afaria, autobusa eta forfaitak. Otsailaren 16an bueltatuko dira. Izena eman gura duenak elkartearen kontu korrontean sartu behar du dirua: 3035 0161 28 1611005178. Izena emateko azken eguna otsailaren 7a da.

## Udal mendietan abereak jarri gura dituztenek eskaera egin beharko dute hilaren 31 baino lehen

2014an zehar udal mendietako larreak aprobetxatu nahi dituzten abeltzainek udaletxean egin behar dute eskaera hilaren 31 baino lehen: Arabako Diputazioko Abere Erregistroko agiria eraman beharko da eta, gainera, zehaztu egin beharko da agiri horretako zeintzuk izango diren udal mendietan ibiliko diren abereak. Eskaerarik egiten ez duena ez interesatutzat joko da, eta, beraz, abereak beste toki batera eraman beharko ditu.

## ARETO FUTBOLA

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | New Beer House | 21 | 9 |
| 2 | Electricidad Jolma | 21 | 9 |
| 3 | Galtxagorri-Gasteiz | 19 | 9 |
| 4 | Bar Gin Tonic's | 19 | 9 |
| 5 | Real Beni | 19 | 10 |
| 6 | Numero K | 13 | 9 |
| 7 | Cafeteria Manai | 10 | 9 |
| 8 | **Aramaixo** | 10 | 9 |
| 9 | Colegio San Prudencio | 9 | 9 |
| 10 | Iparra taberna | -3 | 9 |
| 11 | Bar Pura Vida | -3 | 9 |

**PARTIDUAK**

HILAK 25, ZAPATUA
**17:45** Bar Gin Tonic's - Aramaixo

### Dinamika onean sartuta

Liga hasiera kaskarraren ostean, Aramaixo taldea dinamika onean sartuta dago. Bolada on horri eusteko aukera ona izango dute bihar Gasteizen.

ELGETA




Zaborra sailkatuta jasotzeko berriki ipinitako guneetako bat. | L.Z.

# 'Egin konpostatzaile' kanpaina martxan da

## Zaborra sailkatzeko bost gune berri, eta txakur kakak botatzeko lekuak ere gertu ditu Udalak

**LARRAITZ ZEBERIO** | ELGETA

2012an Elgetako 52 familiak kudeatzen zuten euren hondakin organikoa. Iaz, 113 familia ziren. Kopuru horrek gora egiten jarraitzea gura du Udalak. Hala, *Egin konpostatzaile* kanpaina jarri du martxan. "Hondakin organikoa Elgetan bertan kudeatzen badugu, ez dago garraiatu beharrik, ez dago tratatu beharrik, ez dago zabortegietan pilatu beharrik", gogorarazi dute.

**Bonifikazioak**

Bonifikazioak ere iragarri ditu Udalak ekimenean parte hartzen duten herritarren artean. %25eko bonifikazioa iragarri dute hondakinen tasan, eta baserritarren kasuan,%50ekoa. "Hondakin organikoa baserriko abereei jaten emateko erabiltzen dutenek ere eska dezakete hobaria", esan dute. Berehala hasiko dira bonifikazioak aplikatzen: 2013an konposta egin dutenei otsailean bueltatuko zaie bonifikazioaren kopurua eta izena 2014an ematen dutenei konposta egiten dihardutela ziurtatu ostean aplikatuko zaie, urtea bukatu aurretik betiere.

Otsailaren 17ra arteko epea zabaldu du Udalak interesatuek izena eman dezaten.

**Sailkatzeko zaborrontziak**

Kalean ere zaborra sailkatzeko aukera zabalagoa dago orain. Hasieran, bost gune ipini zituen Udalak —kiroldegian, frontoian, Maala parkean, eskola aurrean, herriko plazan eta poligonoan—. Orain, beste sei gehitu ditu eta horretarako aurretik zeuden zaborrontziak egokitu ditu: "Zaborrontziak kendu eta berriro ipini ditugu bakoitzean ze hondakin mota bota behar den zehaztuz (...) Gune horietan lau frakzioendako ontziak daude: organikoa, ontzi arinak, papera-kartoia eta errefuxa". Txakur kakak botatzeko lekuak ere ipinita daude Torrealdean, Domingo Iturben, San Roke ostean, industrialdean eta Berraondokoan. "Gogoratu gura dugu txakur kakak beste guneetan ere bota daitezkeela, errefusaren ontzira".

Udalak etxean moduan kalean ere hondakinak sailkatzera animatu gura ditu elgetarrak.

NIRE USTEZ



IKER IRAZABAL

## Zaborra dala eta

Lasai... Ez noia zintzilikarioak gora edo bosgarren kontenedorea behera hastera... Ez. Zaborraren gestioaren eboluzioan bi edo hiru mailla beherago gelditu diazenetaz arituko naiz. Alde batetik, %100 kontenedore berdean "birziklatzen" dutenak dittugu: lan asko dala zaborra banatzia, etxian lekurik ez dakela... Zaborra banatziak baiño lan gehixau emoten dotze honei ez birziklatzeko aitzakixak topatziak. Badare beste batzuk kartoizko kaxak euren burua kontenedorera sartzeko gaittasuna daukela pentsatzen dabenak. Ba ez, ez dakate, normalian kontenedore urdiñaren onduan lagatako kartoi kaxak eurixak bigundu eta haixiak kalian zihar banatzen dittu. Hirugarrenak, edozein lekutan euren zaborra botatzen dabenak, desagertuko dan esperantziakin. Adibidiak? Futbitoko kamiseta berrixen plastikuak han gelditu zian frontoian edo Intxortako txabola barruko zikinkerixia edo kotxetik kamiño bazterrera botatako boteilla eta latak edo udaletxe azpixan pillatzen dian txutxien poltsak... Bai, badare beste mordo bat: kotxeko olixuak errekara botatzen debenak, etxeko obretako eskonbruak edozein lekutan botatzen dittuenak, kartutxo azalak basuan lagatzen dittuenak... Espero dot azkenengo urtian birziklatze sistema ezberdiñen arteko eztabaidak baten batzuen kontzientziak astintzen laguntzia. A! Bide batez... gora auto+auzo konpostatzea!

### Luis Piedrahita da II. Monologo Mostrako izarra aste bukaeran

David Guapok arrakasta handia izan zuen aurreko aste bukaeran Elgetan, eta bide beretik doa Luis Piedrahita. Zapatuan 22:30ean eta domekan 19:30ean izango da Espaloia kafe antzokiaren II. Monologo Mostran, eta dagoeneko agortuta daude zapaturako sarrerak.

*Showman* peto-petoa da Piedrahita, eta *Monólogo del rey de las cosas pequeñas* izeneko bakarrizketa egingo du Elgetan. Umorea egingo du eguneroko gauza txiki eta arruntetatik abiatuta. Sarreraren prezioa 16 euro da, eta 14 euro aurrez erosiz gero. Informazio gehiago jasotzeko, ikus 33. orria.

OHARRAK

**LIBURUTEGIKO LOGOA**

Udal Liburutegiko erabiltzaileek aukeratu dute logo lehiaketako lan irabazlea: Maite Barrainkuaren logoak jaso ditu boto gehien.

**KANTSATZEKE TALDEA**

Bazkide zein federatu txartelak ateratzeko kultura etxeko bulegoa zabalik izango da hilaren 29an, eguaztena, 19:00etatik 20:00etara. Azken eguna izango da.

**GOIBEKO ELKARTEA**

Goibeko euskara elkarteko bazkideendako tamaina askotariko elastikoak daude gertu Espaloian, neurria aukeratu eta eskaera egiteko.

FUTBITOA

**2. JARDUNALDIA.**

EMAITZAK

| | |
|---|---|
| Txapela - Astuan Villa | 3-9 |
| Gaztiak - Etxaon | 1-4 |
| Intxortas Crew - Jaitxo | 2-12 |
| La Kokotxa - Nahaste Borraste | 12-6 |

PARTIDUAK

URTARRILAK 25, ZAPATUA

| | |
|---|---|
| 16:30 | Gaztiak - Bandoleira |
| 17:30 | La Kokotxa - Intxortas Crew |

URTARRILAK 26, DOMEKA

| | |
|---|---|
| 10:30 | Astuan Villa - Nahaste Borraste |
| 11:30 | Txapela - Jaitxo |





L.Z.

## Haur danborrada nobleendako

Astelehenean, San Sebastian eguna, urteroko ekitaldia egin zuten Elgetako eta Uberako San Sebastian kofradiako nobleek —behean—. Egeurdian 23 lagun elkartu ziren parrokia atarian, eta meza entzutera sartu aurretik Herri Eskolako umeek eskainitako danborradaz gozatu zuten. *San Sebastian martxa, Diana* eta Realaren ereserkia jo zituzten Haur Hezkuntzako eta 6. mailako 50 bat ikaslek —goian.

LEINTZ GATZAGA

# Egutegiaren antolaketa eta beste, Gurelen batzarrean

## Etziko, domeka, egin dute batzarrerako deialdia, Gurel elkarteko bazkideendako, ludotekan

**UBANE MADERA** | LEINTZ GATZAGA

Urteko batzar orokorra da Gurel Guraso Elkarteak domekarako deitu duena. Bada, bost puntu izango dituzte mahai gainean: aurreko batzarraren aktaren irakurketa eta onespena proposatuko dute, elkarteak 2014rako antolatu gura duen egutegia aztertuko dute, balantze ekonomikoa aurkeztuko dute eta elkartea bera osatzen duten bi kide aldatu behar direnez, puntu hori ere landuko dute, hain zuzen ere.

11:30erako egin dute hitzordua; egin, berriz, batzarra ludotekan egingo dute.

**Batzarrera joateko deia**

"Jendea animatu nahiko nuke etortzera. Adibidez, urtean egin gura diren ekimenak proposatzeko momentu egokia delako domekako batzarra: irteerak, udalekuak, ikastaroak... Etziko batzarrean zehazten dugun egutegia Udalean aurkeztuko dugu gero. Bestalde, elkarteko batzordea bera berritu egin beharra dago, bi kide aldatu beharra, eta oraingoz ez dago boluntariorik. Halakoetan beti da hobe boluntario bitartez osatzea batzorde berria, ze derrigorrean tokatuz gero ez da hori gustuko izaten. Eta hain justu, domeka aukeratu dugu batzarra egiteko eguna, Gureleko bazkideei bertara etortzeko erraztasunak emate aldera", adierazi du Inazio Gabilondok, Gureleko kideak. 20 bat bazkide dira gaur egun Gurel elkarteko kide.

LEINTZ GATZAGA

### Bihar, zapatua, erretratu gehiago aterako dituzte

Gatzagarren argazkiak ateratzeko egitasmoaren barruan, Jose Felix Diaz de Tuestak, argazkiak ateratzen dihardueen arrasatearrak, jakinarazi gura du bihar, zapatua, segituko duela zeregin horretan. Hala, gatzagarrei eskatu gura die 11:00etatik aurrera Udal Pilotalekura joan daitezen, argazkia ateratzeko.



Aurreko urtean Azkoagainen jokatutako partidua. | JULIO CALLEJA

FUTBOLA

# Derbia izango dugu Azkoagain futbol zelaian

- Aloñak eta Aretxabaletak indarrak neurtuko dituzte domeka arratsaldean
- Azkoagainen ohikoa den moduan, intentsitate handiko partidua izango da

JOKIN MUJIKA | ARRASATE

Derbiak beti izaten dira bereziak. Izan ere, ibarreko bi herritako taldeek elkarren aurka jokatzen dutenean, partidua bera eta hiru puntu baino gehiago egon ohi dira jokoan. Bada, domekan Azkoagainen jokatuko den norgehiagokak normalean baino tentsio handiagoa izango du, bi taldeak puntuen beharrean daude-eta. 25 punturekin zazpigarren postuan daude oñatiarrak. Aretxabaletarrak, berriz, lau puntu gutxiagorekin hamabigarren daude sailkapenean. Behetik gora doaz Gorka Valleren mutilak. Ahazteko moduko lehen itzulia egin ondoren, azken bi partiduak irabazi dituzte. Hala ere, jaitsiera postuetatik puntu bakarrera daude, eta ezin izango dute azken partiduetan erakutsi duten irabazteko gogo eta intentsitatea jaitsi. Are gutxiago, gainera, Aloña bezalako talde bat aurrean izanda. Andoni Azkargortaren mutilek lau partidu jarraian daramate partidu bat bera ere galdu barik, eta nahiz eta lau horietatik hiru berdindu egin dituzten, garbi dago zaila izango dela Aretxabaletarentzat Aloña mendean hartzea.

Bestalde, Valleren mutilek bere arma arriskutsueneri etekina atera beharko die partidua irabazi nahi badute. Orain dela bi aste Zarautzen aurka min hartu zuen Oxel Apraiz ez da egongo, belauneko zaintiratu batengatik, baina bai bost txartel horiren osteko zigorra bete berri duen Zaitegi. Baloi luze askoko partidua izango da, eta garrantzitsua izango da bi taldeentzat baloiak goitik leihatu ostean alderatzeak hartzea. Partidua domeka arratsaldean 16:30ean izango da, Azkoagainen.

---

**ANDONI AZKARGORTA**
ENTRENATZAILEA

## "Kalitate handikoak dira erditik gora"



LARRAITZ ZEBERIO

**Nola aurreikusten duzu partidua?**
Derbia izanik, partidu estua izango dela uste dut. Behetik gora dator Aretxabaleta. Ez ziren oso ondo hasi, baina denboraldiko momentu onenean daude orain.

**Zeintzuk dira Aretxabaletaren arma arriskutsuenak?**
Erditik gora hainbat jokalari erabakigarri dituzte. Kalitate handiko futbolari eta goleatzaileekin kontuz ibili beharko dugu. Defentsan ere gogorrak dira.

**Nola ikusten duzu zure taldea?**
Taldea ondo ikusten dut. Azken hiru partiduetan ezin izan dugu garaipenik lortu. Hala ere, galdu ere ez dugu galdu. Beharbada, fisikoki zertxobait nekatuta daude jokalari batzuk, baina oraingo asteko entrenamenduak lasaiak izan dira.

---

**GORKA VALLE**
ENTRENATZAILEA

## "3 puntuen bila joango gara Azkoagainera"



GOIENA

**Nola aurreikusten duzu partidua?**
Aloñaren aurkako partiduak oso zailak izan ohi dira. Hala ere, 3 puntuen bila joan besterik ez dugu; are gehiago, sailkapeneko egoera ikusirik. Bereziak izan ohi dira derbiak, baina guretzat partidu bat gehiago da.

**Zeintzuk dira Aloñaren arma arriskutsuenak?**
Zelai nahiko txikia da, eta baloi luzeekin kontuz ibili beharko dugu. Intentsitate handiarekin jokatzen dute eurek. Guk ere beste horrenbeste egin beharko dugu.

**Nola ikusten duzu zure taldea?**
Ondo. Azken partiduetan emaitza onak lortu ditugu, eta horrela segitzea da helburua. Sailkapena oso estututa dago 5. posturaino. Lau puntura daukagu 5. sailkatua, nahiz eta jaitsierako postuak puntu bakarrera dauden.

---

PILOTA

## Mikel Goñi izango da protagonista Oñatin egingo den jaialdian

Bihar bi partidu jokatuko dira Zubikoa pilotalekuan, 19:00etan hasita. Lehenengoan, Aloña Mendi Kirol Elkarteko kadeteek jokatuko dute: Biainek eta Urrutiak, Aiastuiren eta Txintxurretaren aurka. Eta bigarrenean, Mikel Goñi eta Iñarra bergararra Uriarte eta Azkarate oñatiarren kontra arituko dira.

ESKUBALOIA

## Ford Mugarriko mutilek Zaragozan jokatuko dute asteburuan

Estatu mailan jokatzen duten mutilek Zaragoza bisitatuko dute asteburu honetan. Zapatuan izango da partidua, 18:30ean, Dominicos taldearen aurka. Aragoiko taldea bigarrena da sailkapenean eta Arrasatekoak, aldiz, laugarren bi puntura; beraz, partidu garrantzitsua izango da sailkapenean urrats txiki bat egin ahal izateko.

SASKIBALOIA

# Joan den asteko porrotak ahazteko aukera asteburuan

ANE ETXEBERRIA | DEBAGOIENA

Mondragon Unibertsitatea taldeko mutilek saskibaloi partidu garrantzitsua jokatuko dute bihar, zapatua, Iturripen. Izan ere, Biok Zerbitzuak OKE taldearen aurka lehiatuko dira, 18:00etan hasita. MU taldea bigarren postuan dago sailkapenean, nahiz eta joan den astean ezin izan zuen irabazi. Bada, aurkaria ere postu bikainean dago, puntu bakar batera hirugarren postuan baitago. Horrenbestez, tartea handitzeko partidu aproposa izango da.



MU eta Biok taldekoak, iaz. | GOIENA

**Natrak ere bihar jokatuko du**

Oñatiarrek ere saskibaloi partidu interesgarri batez disfrutatzeko aukera izango dute zapatuan; izan ere, etxekoek Zubikoan jokatuko dute Omega Peripherals La Salle taldearen aurka, 18:00etan hasita. Joan den asteko porrotaren ondoren, irabaztera irten beharko dute etxekoek.

**Eskoriatzako emakumeak**

Eskoriatzarrek ere galdu egin zuten joan den astean BKL taldearen aurka. Asteon, baina, Cafes Aitonaren aurka arituko dira eta partidua gaur bertan izango da, 20:15ean, Eskoriatzan. Bi taldeak berdinduta daude sailkapenean; beraz, tartetxoa zabaltzeko oso baliagarria izango da gaur iluntzeko partidua.

---

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**EMAKU. BIGARREN MAILA**
Mondra-Reocin
Domeka. 15:30. Mojategi.

**GAZTEAK, EUSKAL LIGA**
Aretxabaleta-Basconia
Domeka. 16:30. Ibarra.

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Aloña-Aretxabaleta
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Lagun Onak-Antzuola
Domeka. 17:00. Garmendipe.
Bergara-Berio
Zapatua. 16:00. Agorrosin.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
Lazkao-Mondra
Zapatua. 15:30. Arizti handi.

**GAZTEAK OHOREZKO MAILA**
Mondra-Ordizia
Domeka. 17:30. Mojategi
Aurrera-Bergara
Domeka. 16:30. Zaldupe
Euskalduna-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Ubitarte

**EMAKUMEZKOEN LIGA**
Arizmendi
Atsedena

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Eraso Aiara-Eskoriatza
Zapatua. 16:30. Bañueta.

**LEHENENGO MAILA**
Gure Txokoa-Aretxabaleta
Egubakoitza. 20:30. Bera.

**HIRUGARREN MAILA**
Mondrate-Gamon Jazz
Zapatua. 20:00. Iturripe.

**ESKUBALOIA**

**LEHEN NAZIONAL MAILA**
Dominicos-Ford Mugarri
Zapatua. 18:30. Zaragoza.

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Soraluce BKE- Corazonistas BK
Zapatua. 18:45. Labegaraieta.

**EUSKADIKO TXAP. EMAKUM.**
Aloña Mendi-Usurbil
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**SASKIBAOIA**

**LEHEN NAZIONAL MAILA**
MU-Biok Zerbitzuak OKE
Zapatua. 18:00.Iturripe.

**AUTONOMIKOA**
Natra Oñati-Omega
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

**GAZTE PARTAIDETZA**
Erroibide Irun-Aloña Mendi
Zapatua. 18:00.Azken portu.
Allerru-Soraluce Bergara
Egubakoitza. 20:00.Bekoerrota.

**ERRUGBIA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Kanpanzar ART-Iruña
Zapatua. 16:30. Mojategi.

**KADETE FEDERATUA**
Durango-Arrasate
Zapatua. 11:00. Elorrio.

**PILOTA**

**OÑATI**

Biain-Urrutia
Aiastui- Txintxurreta

Mikel Goñi-Iñarra
Uriarte-Azkarate

Zapatua. 19:00.

**BERGARA**

Nagusiak
Zapatua. 19:00.

TXIRRINDULARITZA

**Arkaitz Astiazaran** | 'Euskal altxorretan barrena' proiektuko protagonista

# "Gellao auzotik dauden bistek eman zidaten atentzioa, Untzillara igotzen"

Arkaitz Astiazaranek Espaloian erakutsi zuen eguaztenean errepideko bizikleta gainean 4.400 kilometro egin ostean osatu duen dokumentala



Arkaitz Astiazaran. | WWW.EUSKALALTXORRETANBARRENA.WORDPRESS.COM/.

**XABIER URZELAI** | ARRASATE

Biziketa gainean baino ordu gehiago egin ditu ordenagailu aurrean Arkaitz Astiazararek (Lastur, 1983), iaz grabatutako *Euskal altxorretan barrena* lana editatzeko denbora luzea behar izan duelako. Horrenbestez, zenbat denbora erabiliko zuen irudiak hartzen? Izan ere, zati handiena bere buruari grabatutako irudiekin osatu du, eta denbora behar da horretarako, baita pazientzia ere. Baliabide xumeekin egindako proiektua dela onartu digu, baina ez ditu zifra makalak batu: 4.400 kilometro egin zituen bi hilabete pasatxoan, 800 herri inguru pasa zituen eta 180 mendate igo. Eta dena Euskal Herrian.

**Bizikletan ibiltzen jarraitzen duzu ala nazkatuta amaitu zenuen?**

Ez, ez... [Barre] Egia esan, bizikleta baztertuta daukat, baina mendiko lasterketetan parte hartzen nabilelako. Baina bueltatuko naiz bizikletara, seguru. Hori bai, onartu behar dut proiektu polita izan bada ere, nekatuta amaitu nuela, ez horrenbeste bizikletan ibiltzeaz, baina bai hartu nuen lanaz: grabatu, bloga elikatu...

**Iaz ez zuen bizikleta gainean ibiltzeko udaberririk egin.**

Ez, eta horrek ernegatu ninduen dezente. Gozatzea zen helburua, ez bizikleta gainean miseriak pasatzea, eta euria egiten zuenean ez nintzen ibiltzen. Horrek esan nahi du nahi baino egun gehiagotan itzuli behar izan nuela etxera, eguraldi ona noiz bueltatuko zain.

**Horrenbestez, ez zenuen bidea jarraian egin.**

Ez, eta ez zen hori asmoa. Zorionez, Euskal Herrian distantziak ez dira horren luzeak, eta, tarteka, etxera itzultzen nintzen. Eta eguraldi ona itzultzen zenean, ostera ekiten nion bideari, utzi nuen tokian. Eibarren hasi nuen abentura, arrazoi askorengatik herri berezia delako niretako, eta Hendaian amaitu nuen, 4.400 kilometro egin ostean. Egun batzuetan, gainera, lagunen konpainia ere izan nuen, eta egun haiek aprobetxatu genituen beste grabaketa batzuk egiteko, autotik-eta. Hala, lagun batek utzitako kameraz hartutako irudiekin egin dut dokumentala, soinean eramaten nuen kamera, eta tabernetan geratzen nintzen bateria kargatu eta bitartean kafe bat hartzera.

> **"Iaz ez zuen bizikletan ibiltzeko udaberririk egin, hori izan zen txarrena"**

**Debagoiena ere zeharkatu zenuen. Zer gustatu zitzaizun?**

Aretxabaletatik Untzillarako igoera ez nuen ezagutzen, eta Gellaoko auzoa asko gustatu zitzaidan. Bista ederrak ditu. Eta Leintz Gatzagan furgoneta batean ogia saltzen zebiltzala ikusi, eta ogitarteko ederra jateko aprobetxatu nuen. [Barre]

**180 mendate igo dituzu abentura honetan. Ederrena?**

Asko daude, paraje ederra da Euskal Herria. Gipuzkoan Azurki nabarmenduko nuke, ez etxe ondoan dudalako, berez oso polita delako. Baztan inguruan Arteziaga mendatea oso polita da eta Zuberoan Ahuski ere ikusgarria. Bestalde, paraje eder asko nabarmenduko nituzke, baina, esaterako, Arabako Errioxan Rivas del Tereso ez nuen ezagutzen, Toloño ondoan, eta ederra da paraje hura, Bastida inguruan, Izkiko parke naturala...

> **"Debagoienean Elgeta izan da lana erakutsi dudan lehen lekua"**

**Fisikoki prestakuntza berezia egin zenuen?**

Apur bat ibili nintzen, bai, baina aurreko urteetako oinarria ere banuen, urteetan ibili naizelako zikloturista moduan. Baina onartu behar dut hasierako etapa batzuk nahiko justu amaitu nituela. Kilometroak egin ahala joan nintzen sasoia hartzen, eta ondo amaitu nuen bidea.



# Historiari, gertuko begiratua

- '1808-1813. Inbasio Napoleonikoak' erakusketa datorren astean Aroztegi aretoan
- Historiari gainbegiratuz, giza eskubideak, kultura eta bake-ituna ditu mami oinarrian

A. ARANBURUZABALA | BERGARA

*1808-1813. Inbasio napoleonikoak* erakusketa ekarriko dute Bergarako Aroztegi aretora urtarrilaren 29tik martxoaren 2ra bitartean. Gipuzkoako Foru Aldundiak, DSS2016 Fundazioak eta Bergarako, Irungo eta Tolosako udalek elkarrekin bultzatutako proiektua da. 2013 urtean zehar Donostiako San Telmo eta Ontzi Museoan, Tolosan eta Irunen ibilia, Bergaran bukatuko du ibilbidea.

Helburu nagusia diskurtso historikoa probintzian zabaltzea eta ezagutaraztea da; horretarako, XIX. mende hasieran Gipuzkoan gertatutako ekintza nagusiak azpimarratuta. Erakusketak, era berean, hausnarketa sortu gura du iraganeko eta gaur egungo gizartearen inguruan, etorkizuna eraiki beharreko zerbait bezala erakutsiz horrela.



Soldaduekin batera emakumeak ere etortzen zirela erakusten duen ilustrazioaren zatia. | DSS2016 FUNDAZIOA

**Zergatik Bergarara?**

Kultura, giza-eskubideak eta bake-ituna dira oinarrian erakusketaren mamiak. "Erakusketaren helburuak eta Udalak bultzatzen duen museo berriak harreman zuzena dute; izan ere, museoa mintegiaren gorpuzte berria izango da; eta mintegia zen, hain zuzen ere, euskal ilustrazioaren gotorleku nagusia; ondorioz, garai hartako ideien talkaren erakusle nagusietakoa", azaldu dute Udaleko Museo Sailetik.

Hainbat dira, bada, erakusketa herrira ekartzeko gakoak: Bergara Europako ilustrazioaren topalekua izatea, bereziki, Errege Mintegiaren garrantzia aintzat hartuta eta Bergarako Besarkada bake hitzarmen ezaguna.

**Bergarartutako erakusketa**

Aroztegiko erakusketak bost ardatz ditu; honakoak: Napoleonen inbasioa; inbasioari erantzuna eman zion gerrillari buruzkoa; frantsestuak, garai hartako Cadizko Konstituzioa eta inbasioaren amaieran izandako azkeneko euskal borrokak.



Kartelaren panela. | DSS 2016 FUNDAZIOA

ESANAK

**"Erakusketak eta museoak harreman zuzena dute"**

**"Bergarako berezitasunak erantsiko ditu Udalak"**

DAVID ZAPIRAIN | UDAL MUSEOA



Armaden panela. | DSS 2016 FUNDAZIOA

Hirugarren arloa da Bergararekin lotura zuzenena duena: "Ilustrazioak jarraitzaile asko zituen Gipuzkoan, gehienbat Bergaran. Gerraren aurretik, nukleo ilustratu oso altua zegoen herrian; Vascongada ez ezik, Bergarako mintegia garatu zuena. Mintegiaren beraren historiarekin batetik, eta herriko ilustrazio-giroaren bitartez gure ekarpena egingo diogu erakusketari. Hirugarren eremua erakusketa herrira ekartzeko aitzakia perfektua zen, bide batez, Donostia 2016 ekimen erraldoiaren olatua gurera ekarrita. Era berean, Bergara gaur egungo mapa kulturalean jartzeko balioko du, erakusketa aitzakia ona da-eta Bergarara bisitan etortzeko", azaldu du Udaleko Museo Sailak.

Forma aldetik erakusketa klasikoa da, panelak eta objektuak erakutsita. Horien artean, Udalaren hainbat osagai daude: Udal Artxiboko agiri bat, hau da, Jose Bonaparteri egindako fideltasun zina eta garaiko mintegi historikoaren bi ale: platinoa purifikatu zuen mintegiko Chavaneau irakasle eta ikerlari frantsesaren argitalpenak eta XVIII. mendeko teleskopioa, alegia.

**Mahai gainean asmo gehiago**

Erakusketako edukiak ez ezik, Bergarak bere berezitasunak erantsi gura ditu: "Erakusketa ibilbide zabalagoan txertatuko dugu eta horretarako, asteburuetan, erakusketan bisita gidatuak egiteko asmoa dugu. Bergaran jaiotako Mendizabal jeneralaren erretratua eta Irizar jauregian Udalak duen oroigarriarekin osatuko dugu ibilbidea. Mendizabal aitzakia hartuta, garaiko Gipuzkoaren gizartea landuko dugu eta Irizarrekin, erakusketak eta baita Donostia 2016ko proiektuak sustatzen dituen balioak aldarrikatuko ditugu; hau da, bake itunak, giza eskubideak eta gatazka bati amaiera nola eman ere aztertuko dugu".

## Bergarako mintegia museo bilakatzeko egitasmoa, bidean

XVIII. mendearen bukaeran, Europako ikerketa zientifikorako gune garrantzitsua izan zen mintegia. Bertan sortu zuten, besteak beste, wolframioa, elementu kimikoa, eta baita platinoa xaflakor egiteko metodoa ere. XIX. mendean zehar, Errege Mintegia edo Seminarioa nabarmendu egin zen Gipuzkoako goi mailako institutua izan zelako (Gipuzkoako lehenengo institutua izan zen, eta hamarkada batzuetan zehar bakarra).

Bergarako mintegiko laborategietan gordetzen dituzte oraindik aurreko mendeetan erabilitako 3.012 objektu zientifiko; horien artean daude, besteak beste: zientzia-tresnak, anatomia modeloak, zoologia bildumak, mineralak eta fosilak.

Bergarako Udalak lan handia egin du bakarra den bilduma horretako osagaiak berreskuratzen, ikertzen eta berritzen. Gaur egun bilduma prest dago museoan erakusteko zain. Dagoeneko abian den proiektua da museoarena; une honetan, museografia lantzeko fasean daude, beste modu baten esanda, edukiak (bildumaren osagaiak) edukiontzira (egoitzara) egokitzeko proiektuak lantzeko deialdia eginda dute).

Museoaren kokapena, oraingoz, Errekalde jauregia litzateke, nahiz eta Udalaren helburu nagusietako bat, museoa lehenbailehen mintegira eramatea den. Museoaren irekierarako data zehatzik zehazterik ez duten arren, urte amaierarako emaitzak izatea espero dute.



Herriko plazan dago Errege Mintegia. | BERGARAKO UDALA


Arrasate!
Atxabalta!
Eskoitza!
ELKAR HEZI
ikastetxea,
aukera berri bat
zure esku.
EURI TANTETAN
EGUZKI IZPITAN,
IRUDIMENAREN
OSTADARRA:
ELKAR HEZI
ELKAR HEZI ikastetxea
ATE IREKIAK: OTSAILAK 1 (10:30etik aurrera)
Matrikulazio epea Otsailak 3tik 14ra
www.elkarhezi.com
Haur Eskola, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza:
Arantzazu kalea 18, Tel.: 943 71 82 72
DBH eta Batxi: Santa Marina plaza 2, Tel.: 943 78 28 70
Bakarkako bisitak egiteko edota informazio gehiago eskatzeko deitu 943 71 82 72 telefonora



4. edizioa

# Kantari

## Eskerrik asko denoi:

Babeslea:
Laboral Kutxa

Laguntzaileak:
Aretxabaletako Udala
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Eroski Bidaiak

Ikastetxeak:
Antzuola:
Antzuolako Herri Eskola
Aramaio:
San Martin Herri Eskola
Aretxabaleta:
Kurtzebarri Herri Eskola
Arrasate:
Arrasate Herri Eskola
Arizmendi Ikastola
(Arimazubi, Santa Teresa eta Gazteluondo)
Bergara:
Aranzadi Ikastola
Mariaren Lagundia
San Martin Agirre Eskola
Eskoriatza:
Luis Ezeiza Herri Eskola
Arizmendi Ikastola
(Almen)
Elgeta:
Elgetako Herri Eskola
Oñati:
Elkar Hezi
Txantxiku Ikastola
Errekalde Herri Eskola

Dekoratua:
Lanbide Heziketa (Arrasate)

Jantziak
Belar Meta

Soinua eta argia:
Danatek

Diskoetxeak:
Elkar Argitaletxea
Gaztelupeko Hotsak
Baga Biga

goiena

LABORAL KUTXA ETA SUPER BAT KANTARIREKIN!

LABORAL kutxa

**Luis Piedrahita** | Monologista

# "Merezitako errespeturik jasotzen ez duten izaki txikien gainean jardungo dut"

'Monólogos del rey de las cosas pequeñas' ikuskizuna eskainiko du Espaloian bihar eta etzi

MIRARI ALTUBE | ELGETA

Elgetako II. Monologo Mostraren barruan Luis Piedrahita (Coruña, 1977) monologistaren saioak izango dira bihar (22:30) eta domekan (19:30) Espaloian. *Monólogos del rey de las cosas pequeñas* ikuskizuna dakar.

**Barre egiteko ikuskizuna, zalantza barik...**

Bai; etxean pixa eginda etortzea aholkatzen dut, gorabehera lotsagarririk ez gertatzeko gero.

**Zer kontatuko diguzu?**

Merezitako errespeturik jasotzen ez duten izaki txiki horien guztien gainean jardungo dut.

***Kontu txikien erregea* deitzen dizute; zer dute kontu txikiek, bada?**

Izugarrizko potentziala. Potentzialtasun gaiztoaren adibide bat da Taj Mahal eraikinaren edertasuna txikitu egiten dela ointakoan harri koskor bat baduzu. Eta harri hori giltzurrunean baduzu, zer esanik ez! Eta orain, potentzialtasun miresgarriaren adibide bat: guztia oker doa eta itoginak dituzu etxean eta bizitza gris batean harrapatuta zaude, eta bat-batean, telefono mugikorrean dei bat; pantailan agertu den izenari begiratu eta guztia konpondu da. Kontu txikiak dira bizitza benetan handi egiten dutenak.



Luis Piedrahita. | PIEDRAHITA

**Eta kontu txiki horiek behar beste baloratzen ditugu?**

Kontu handiek atentzioa ematen dute, urrundik ikusten direlako. Kontu txikiak, baina, gertuagotik ikusi behar dira eta gertukoak barrurago sartzen dira.

**Elgeta herri txikia da, 1.100 biztanleren bueltan; halako herrietan jardun izan duzu?**

Bai, horixe. Bi lagun egonez gero, bat berba egiteko eta bestea entzuteko, bakarrizketa eginda dago.

**Zein da Luis Piedrahitaren sekretua publikoarekin bat egiteko?**

Esanez gero ez da sekretua! Beharbada, sekretua da ez dagoela sekreturik. Ez dago ezkutuko mekanismorik, guztioi gertatzen zaizkigun kontuen gainean jardutea bakarrik.

**Edozein konturekin egin daiteke barre?**

Bai, baina talentua izanez gero. Umorea da bizitza orain arte azaldu ez dizuten eran kontatzea; arazoa da kontu batzuk beste batzuk baino samurragoak direla azaltzeko. Holokaustoarekin egin daiteke umorea? Tonino Guerra –*Amarcord* filmeko gidoilaria– kontzentrazio-esparru batean egon zen Alemanian, eta handik irtendakoan txiste ederra egin zuen: "Pozik, pozik... sarritan egon naiz pozik, gehien Alemanian askatu nindutenean; tximeleta bat ikusi eta jateko gogo barik begiratu nion". Anaiek elkar hiltzen duten gerraren gainean egin daiteke umorea? Gila bazara, bai. Umoristaren talentuaren baitan dago, bizitza ulertzeko eta azaltzeko duen ahalmenaren baitan.

**Momentu gogorretan zer hobe, barre egitea ala negar?**

Negar egitea barre egitea besteko beharrezkoa da. Benetan garrantzitsuena da zergatik egiten dugun barre eta zergatik negar.

# Debagoieneko piano-jole gazteek kontzertua dute hilaren 29an

M.A. | ARRASATE

Debagoieneko piano-jole gazteak Arrasateko Amaia Udal Antzokian elkartuko dira eguaztenean, hilak 29 (18:30). Oñatiko, Bergarako, Elgetako, Eskoriatzako, Aretxabaletako eta Arrasateko musika eskoletako ikasleek emango dute kontzertua, 50 bat piano-jolek, guztira.

**Andoaingo jaialdira**

Eguazteneko kontzertu hori Andoainen egingo den bederatzigarren piano jaialdiia gertatzeko da. Otsailaren 15ean eta 16an izango da, eta 18 urtez azpiko 800 ikaslek hartuko dute parte; tartean, aipatutako 50 debagoiendarrek.

Bi modalitatetan dago banatuta Andoaingo jaialdia: piano bakarlariak, batetik, eta pianoa lau eskutara, bestetik. Eta horrez gainera, hiru maila izaten dira, A, B eta C, adinaren arabera banatuta. Pianoaren aurrean norberaren nortasuna erakutsita saio polita eskainiko dute guztiek. Hori eskertzeko, parte-hartzaile bakoitzak domina eta diploma bana jasoko ditu.

Ikasle gazteok honako irakasleekin dabiltza jaialdia gertatzen: Araceli Guridi, Amaia Urdangarin, Ainhoa Galdos, Elisabeth Mendirarantz, Paul San Martin, Lorea Larrañaga, Mentxu Pierrugues, Isabella Blezien eta Rakel Hernandez.

## 'Amaraun' diskoa aurkeztuko du Oñatiko Ganbara abesbatzak domekan, parrokian

M.A. | OÑATI

XX. urteurrena ospatzeko egin du *Amaraun* diskoa Oñatiko Ganbara abesbatzak, eta domekan, hilak 26, dute aurkezpen kontzertua, parrokian (19:00). Diskoko kantuak eta apirilean Gran Premio Nacional lehiaketan abestutako kantuak eskainiko dituzte. Sarrera doan da.

Azken urteotako lana jaso dute diskoan Ganbarakoek, eta oso pozik daude emaitzarekin: "Harrera ona izatea espero dugu, ilusio eta mimo handiarekin egin baitugu".

Diskoa astelehenetik aurrera egongo da eskuragarri, tartean Ganbararen webgunean: *www.ganbara.org*.





Telmo Trenado, Aretxabaletako unibertsitatean trukua egiten.

JOKIN MUJIKA

Telmo Trenado | Magoa

# "Truku bat egin ondoren jendeari irteten zaion irribarre horrek guztiz betetzen nau"

**JOKIN MUJIKA** | ARRASATE

Telmo Trenadok (Zumaia, 1995) Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasten dihardu Aretxabaletan eta astean zehar Debagoienean bizi da. Magoa da Trenado, eta Youtuben arrakasta handia izaten ari den kanal bat dauka.

**Nondik datorkizu magia egiteko zaletasuna?**

Txikia nintzenean, *Magia Borras*-eko kaxa erregalatu zidaten. Orduan hasi nintzen lehenengo joko eta trukuak egiten. Gainera, telebistan agertzen ziren magoek egiten zituzten ikuskizunek asko harritzen ninduten. Hasieran, zaletasuna besterik ez zen, baina 2012an eta 2013an serio jarri nintzen. Eta orain, berriz, denbora luzea pasatzen dut magiaren munduan murgilduta.

**Nola hasten da bat magia serio egiten?**

Nik neure kabuz ikasi nuen, eta oraindik ere ikasten dut. Badaude hainbat aukera adituekin ikasteko; magia eskoletan, elkarteetan, magia kurtsoak ere badaude... nik, ordea, bakarrik ikasten dut, lortzen ditudan baliabideekin: liburuak, bideoak, DVDak, Interneteko tutorialak...

**Nola lortzen dituzu baliabideak?**

Egun, aukera paregabea daukagu Internetekin. Ordainpekoak diren hainbat baliabide debalde eskura ditzakegu sarean. Hainbat liburu, esate baterako, PDF formatuan jaits ditzakegu eta, horrez gainera, Youtubek ere aukera ezin hobea ematen digu beste mago batzuen bideo tutorialak ikusteko.

**Zer ikasten duzu liburuekin eta zer bideo tutorialekin?**

Liburuetan, ohikoa den moduan, teoria izaten da, gehienbat. Alde batetik, hainbat truku eta jokoren tekniken nondik norakoak erakusten dituzte. Beste zati askotan, jendearen aurrean nola antzeztu, hainbat egoeraren aurrean nola jokatu... azaltzen dute.

**Zuk zeuk zer lortzen duzu magia eginda?**

Asko disfrutatzen dut magia egin osteko jendearen erreakzioekin. Truku bat egin ondoren harrituta gelditzen da jende asko eta barrutik irteten zaien irribarre horrek guztiz betetzen nau. Gainera, asko miresten ditut magia trukuak asmatzen dituztenak. Esaterako, kartekin magia sortzea izugarria da niretzat.

**Zein momentutan erabiltzen dituzu magia joko edo trukuak?**

Momentu askotan egiten dut magia. Ez da eguneroko gauza bat, baina ezagutzen nauen jendeak hainbat momentutan eskatzen dit trukuren bat edo beste egiteko. Bazkarietan, zapatu gauetan, lagunartean...

**Zein izan zen ikasi zenuen lehenengo trukua?**

Zehazki, ez nago ziur zein izan zen, baina, seguruenik, kartekin eginiko bat izango zen, gehientsuenak kartekin egiten baititut. Txikitako joko automatiko horietako bat izango zen, matematikoak direnak. Kartak pasatzen joaten zaren horietako bat, eta bai edo bai beti karta bera irteten denetako bat.

**Youtuben kanal bat daukazu, eta, hain zuzen ere, zure trukuak erakusten dituzu bertan.**

Hasiera batean, jendaurrean egongo banintz bezala erakusten nituen trukuak. Musika pixka bat jarri, eta kamera aurrean magia egiten nuen. Hala ere, ikusten nuen Youtuben jarraitzen ninduen jende askok gero eta gehiago eskatzen zidala trukuak nola egiten ziren erakusteko. Gainera, horietako asko hegoamerikarrak ziren, eta ez dute Internet ez den beste baliabiderik lortzeko aukerarik. Beraz, trukuak nola egiten diren erakustea erabaki nuen.

**Zenbat harpidedun dituzu, gutxi gorabehera?**

8.000ko ikusle kopurua gainditu nuen joan den astean.

**Zer ekarpen egiten dizu zuri Youtubeko kanalak?**

Egia esan, diru pixka bat irabazten dut honekin, eta, gehienbat, magia egiteko material egokia eta kalitatezkoa erosteko erabiltzen dut. Erabiltzen ditudan kartak, esaterako, diseinuzkoak dira.

### PERTSONALA

**Euskal herriko txoko maiteena:** Algorri (Zumaia).

**Janari gustukoena:** Pizza.

**Magia truku gogokoena:** Magic Kissing Card Trick.

**Kantu gustukoena:** *Paradise* (Coldplay).

**Etorkizunerako bidaia bat:** Las Vegas.

**Pelikula gustukoena:** *El ilusionista*.

**Mago gustukoena:** Calen Morelli (Las Vegas).

**Animalia gustukoena:** Txakurra eta tigrea.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Arrasate.** 60 metro koadroko etxebizitza salgai Musakolako Sailuente plazan. Hiru logela, bainugela, sukalde hornitua, egongela, despentsa eta trastelekua. Antolamendu ezin hobea, dena kanpoaldera begira eta oso argitsua. Egoera oso onean. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 630 70 81 23 edo 646 26 34 04

### 102. EROSI

**Bi pisuren bila Arrasaten.** Eraikin berean dauden bi pisu erosiko nituzke erdialdean. Prezio ekonomikoan. 675 70 24 17

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Erguinen, Udalpe kalean. Bigarren solairua da. Egoera onean dago, guztiz jantzia. Berokuntzarekin. Bikoteak nahiago. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 620 15 15 08 edo 943 78 70 07

**Baserri etxea Eskoriatzako Mazmela auzoan.** 165 metro koadro. Guztiz berrituta. Sarrera, hiru logela, sukalde hornitua, egongela, despentsa, bi bainugela guztiz jantzita, trastelekua, kotxearentzat aterpea, baratza eta lursail gehiago erabiltzeko aukera. Kontaktua: idiaz@ikerlan.es edo. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 680 33 40 76 edo 638 86 82 50

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Bolun. Hiru logela eta bi komunekoa. Guztiz jantzia. Berritua eta bizitzera sartzeko moduan. Berokuntzarekin. Ana. Deitu telefono zenbaki honetara: 629 03 71 35

**Eskoriatza.** Duplexa (lau logelarekin) eta hiru logelako etxebizitza bat errentan ematen dira, oso merke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 645 70 36 63

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Beheko solairuan edota igogailua duen etxebizitza hartuko genuke errentan. Prezio ekonomikoan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 617 98 88 76

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan Arrasate erdialdean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 661 97 14 76

**Arrasate.** Logela bateko edo bi logelako etxebizitza hartuko nuke errentan hilabete baterako, denbora gehiago luzatzeko aukerarekin. Idatzi mezu bat laguntzen@gmail.com helbidera.

**Baserria.** Bailaran baserri edo lursaila duen etxe bat hartuko genuke errentan. Bertakoak gara eta etxea eta lurrak zainduko genituzke alokairu merke batean. Bikote arduratsua gara eta lanean gaude. 400 euroko alokairua ordainduko genuke. 675 61 09 77 edo 606 74 42 37

**Bergara.** Gutxienez bi gelako etxebizitza hartuko nuke errentan. Mila esker. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 602 03 33 56

**Bergara.** Hiru pertsonaz osatutako familia batek etxe bat hartuko luke errentan Bergaran. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 630 99 11 85

**Bergara.** Neska euskalduna etxebizitza bila, errentan. Niretzako bakarrik da. Etxe txikia eta prezio egokian. Eskerrik asko. 680 35 26 00

**Oñati.** Mutil euskaldun eta lan finkodunak etxebizitza hartuko luke errentan, ahal bada erdigunean. 697 83 56 89

**Pisu bila Oñatin.** Etxebizitza hartuko nuke errentan, 3 logeladuna. Eskerrik asko. Telefonoa: 652 70 35 29

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Grupo San Juanen, espazio komunak erabiltzeko aukerarekin. 602 69 31 56

**Arrasate.** Pertsona bat behar dut etxebizitza osatzeko San Josepen. Garbia eta txukuna izatea beharrezkoa da. 628 85 42 06

**Debagoiena.** Logela behar dut errentan, kontratuarekin eta bertan errolda emateko aukerarekin. 671 70 30 79

**Oñati.** Bi logela ematen dira errentan duplex berri bat osatzeko. Plazatik gertu. Wifi konexioarekin. 656 74 29 49

## 2. GARAJEAK

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje itxia ematen da errentan Uarkapen. Handia da eta autoaz gain motorra edota bestelakoak gordetzeko txokoa dauka. 615 73 98 30 edo 943 24 53 57

**Arrasate.** Garajea ematen da errentan Uribe auzoan, unibertsitatea eta Garaia artean. Prezio onean. 660 83 06 83

## 3. LOKALAK

### 304. ERRENTAN HARTU

**Eskoriatza edo Aretxabaleta.** 70 metro koadroko lokal bat bilatzen ari gara, tximiniaduna, tailer bat montatzeko. Kontaktua: lajaboneriadelaalmendra@gmail.com. 690 12 48 51 edo 945 10 09 54

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Emakume bat behar da bost hilabeteko umea orduka zaintzeko. Harremanetarako deitu telefono zenbaki honetara: 606 01 18 32

### 402. ESKAERAK

**Arrasate edo Bergara.** Neska arduratsua egunka zein orduka lan egiteko gertu etxeko lanak egiten zein taberna, elkartea, atari eta abarren garbitasunean. 625 86 99 51

**Arrasate.** Emakume euskalduna goizetan plantxa eta etxeko lanak egiteko gertu. 699 54 17 27

**Arrasate.** Emakumea gertu umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, nagusiak zaintzeko zein ospitalean gauak egiteko. 943 25 05 72 edo 658 70 56 94

**Arrasate.** Emakumea nagusiak zaintzeko gertu. 672 98 20 91

**Bergara.** Premiaz lana bilatzen dut. Edozein motatako lana egiteko prest. 606 24 79 09 edo 943 76 52 39

**Bergara.** Adin ertaineko emakumea, informeak dituena, goizetanumeak eta nagusiak zaindu zein etxeko lanak egiteko gertu. 610 34 97 88

**Bergara.** Neska nagusiak zaintzeko eta etxko lanak egiteko gertu. Formazioa daukat. 943 08 14 33

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIAK** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

**3. LOKALAK**
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

**4. LANA**
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

**6. MOTORRA**
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604.Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

**8. DENETARIK**
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

**10. RELAX**

**Debagoiena.** Neska arduratsu eta esperitziaduna, etxeko lan edo zainketarako. Nahiz heldu edo haur. Gidabaimena daukat. Telefonoa: 680 87 38 66

**Debagoiena eta Debabarrena.** Emakumea gertu arratsaldetan ume eta nagusiak zaintzeko. 943 75 20 98 edo 620 77 30 09

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com
KOROSTI INMOBILIARIA

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Masterreka 73 m², 2 logela. Oso ondo. Igogailua.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berriztua. Garajea aukeran. 138.000 €. AUKERA,
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250 €.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 117.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN.
- Zubiaurre 56 m². 2 logela. Igogailua, erabat berriztua. 135.000 €.
- Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekua. 150.000 €.
- Koldo Eleizalde 74 m². 3 logela. Trastelekua. 160.000 €. Aukera ona.
- Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760 €.
- Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243 €.
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213 €. Berrituta.
- Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253 €. Berrituta.
- Ibarra 65 m². 3 logela. Berriztua. 114.192 €.
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223 €.
- Zabalotegi 54 m². 2 logela. 96.000 €.
- Matxiategi 60 m². 2 logela. Igogailua. Erabat berriztua.
- Fraizkozuri 78 m². 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 205.000 €.
- Martoko 140 m², 4 logela. Berria.Oso ondo. 225.000 €.
- Koldo Eleizalde 78 m², 3 logela. Berriztua. AUKERA BIKAINA. 200.000 €.
- San Antonio 70 m², 2 logela, igogailua. Garajea. Berria. 157.000 €.
- San Lorenzo, 87 m², duplex, 3 logela. Berritua. Oso ondo. 159.000 €. PREZIO JAITSIERA
- Ibargarai, 60 m², 2 logela. Berria. Oso ondo. 229.000 €.
- Matxiategi, 115 m², 3 logela, trastelekua eta balkoia. Berritua. Oso ondo.

**ANTZUOLA:**
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Zurrategi 83 m². Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Aiherra 83 m². 3 logela. Igogailua eta balkoia.Oso ondo. Prezio ona.
- **ETXEBIZITZEN ETA GARAJEEN ERAIKUNTZA BERRIA. Leku onean eta prezio interesgarriak.**

**SORALUZE:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

**ELGETA:**
- Domingo Iturbe 90 m², 4 logela. 126.212 €. Prezio jeitsierarekin.
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m2 garajea + 90 m2 lursaila.
- San Roque, 2 edo 3 logela. Prezio onean.

**OSINTXU:**
- Osintxu 85m2. 3 logela. Igogailua. Berriztua. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua, oinarrizko sukaldaritza eta geriatria ikasketaduna, nagusiak zaindu zein edozelako garbitasun lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 615 06 28 04

**Debagoiena.** Emakume euskalduna lan egiteko gertu Debagoienean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606 50 25 67

**Debagoiena.** Emakumea lan bila. Esperientzia daukat umeak zaintzen, denetariko garbitasunak egiten, tailerrean, jatetxean.. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 943 79 96 25 edo 647 10 58 72

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Eskarmentua daukat nagusiak eta umeak zaintzen. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 673 78 08 99 edo 698 39 83 62

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu: nagusiak zaintzen zein edozelako garbitasun lanetan. Esperientzia daukat eta ordutegia adosteko gertu nago. Autoa daukat. 618 10 37 50

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu: nagusiak zaintzen, garbitasunean eta abar. Etxean bertan bizi izaten, egunez edo orduka. 602 69 31 56

**Debagoiena.** Gizona gertu etxean lan egiteko, nagusiak zaintzeko edo sukaldean laguntzeko. 658 74 94 63

**Debagoiena.** Klinika laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko, egunez edo orduka. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602 82 14 83

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko, baita baserrietan ere. Esperientzia handia dut pertsonen zaintzan. Sukaldatzen ere badakit. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 603 14 59 17

**Debagoiena.** Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaintzeko, orduka garbiketak egiteko, zein nagusiak lagundu edo pasioan ateratzeko gertu Debagoienean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 695 73 87 95

**Debagoiena.** Neska euskalduna nagusi edo umeak zaintzen zein etxe eta bulegoak garbitzen lan egiteko gertu. Baita ospitalean gauek egiteko ere. Esperientzia eta informeak dauzkat. Autoa ere bai. Erabateko prestutasuna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 671 35 22 60

**Debagoiena.** Esperientziadun mutil arduratsua nagusiak zaintzeko gertu, egunez. Ospital zein egoitzatan ere lan egingo nuke orduka eta asteburuetan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 685 42 72 80

**Debagoiena.** Neska gertu lanerako: tabernan, sukaldean, umeak zaintzen, baserriak garbitzen eta abar. Etxean bertan bizi izaten zein bestela. Gidabaimena eta autoa dauzkat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 697 20 00 86

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: furgoneta gidari, denetariko garbiketak, zerbitzari eta abar. Debagoienean. Auto eta kamioaiak gidatzeko baimena daukat eta baita autoa ere. 696 32 13 69

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: sukalde laguntzaile, pertsonen zaintzan, garbitasunean eta abar. Autoa daukat. Eskoriatzan bizi naiz baina Debagoiena guztian lan egingo nuke. 636 11 23 40

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: ume edo nagusiak zaintzen zein garbitasun lanetan. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz eta baita orduka ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 636 41 98 14

**Neska euskalduna umeak zaintzeko gertu.** 24 urteko neska euskalduna haurrak zaintzeko edota hezkuntza errefortzua emateko prest. Pedagogian lizentziatua eta haurrekin esperientzia handia. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 669 88 49 55

**Oñatiko** gaztea, 25 urtekoa, gertu baserriko lanetarako eta mantenimenduko lanak egiteko. Deitu telefono zenbaki honetara: 662 50 73 22

**Zaintza lanak.** Emakumea gertu gauez zaintza lanak egiteko, ospitalean edo bestela, baita orduka ere. Geriatria titulua daukat eta baita autoa ere. Debagoienetik kanpo joateko arazo barik. 600 00 51 60

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Bergara.** First titulua ateratzen laguntzeko irakaslea behar da. 617 80 87 85

**Klase partikularretako irakasle bila.** Bigarren batxilergoko biologia eta kimika ikasgaietako klaseak jasotzeko irakasle bila. 685 77 68 84

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**Quada.** Quada salgai. Egoera oso onean. Oso ondo zaindua. 616 60 87 81

### 602. EROSI

**Enduro motorra.** Bigarren eskuko Enduroko motorra erosiko nuke. 618 76 34 40

## 7. ANIMALIAK

### 704. BESTELAKOAK

**Perikitoa galdu Aretxabaletan.** Aretxabaletako Iturrizar plaza inguruan perikito urdin bat galdu zen urtarrilaren 7an. Norbaitek ikusi edo hartu badu, dei dezala mesedez zenbaki honetara 680 68 22 93 edo idatzi mezu bat ainereca@gmail.com helbidera.

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Conor WRC Road Ride errepideko bizikleta.** Aluminiozko kuadroa eta karbonozko horkiladun Conor WRC Road Ride errepideko bizikleta salgai. . Shimano Ultegra piezak. Interesatuok deitu telefono honetara. Interesatuok deitu telefono honetara: 687 11 07 21

**Elkarteko plaza Bergaran.** Oilagorra gastronomi elkarteko plaza salgai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 677 45 23 31

### 802. EROSI

**Bogaboo Beerako patinetea.** Bogaboo Beerako bigarren eskuko patinetea erosiko nuke. Salgai duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 627 72 35 82

**Elurretako erraketak.** Elurretako erraketak erosiko nituzke. Salgai dituenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 628 51 22 78

**Soinu txikia.** Trikitixa jotzeko bigarren eskuko soinua erosiko nuke. Salgai duenak dei dezala telefono zenbaki hauetara: 689 20 72 41 edo 943 76 07 09

**Tableta.** Tableta erosiko nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 656 75 76 98

### 803. EMAN

**Super Nannyren liburuak.** ematen dira opari. CDarekin. Seiliburu dira eta berri-berri daude. Bergaran. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 637 52 89 83

### 804 - HARTU

**Bizikletak.** Erabiltzen ez dituzun edo botatzeko dauzkazun bizikletak jasoko nituzke. Berdin da zein egoeratan dauden. Bila joango nintzateke. Inaki. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 699 06 23 95

### 806. GALDU

**Samsung S2.** Samsung S2 telefonoa galdu dut Aretxabaletan. Aurkitu baduzu, deitu zenbaki honetara, mesedez. Eskerrik asko. 639 99 33 34

## 9. HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Hizkuntza trukea.** Euskara eta espainiera ikasiko nituzke eta trukean nik ingelesa edota urdua irakats nezake. Hizkuntza trukaketa egiteko deitu telefono zenbaki honetara eta hitz egingo dugu! 632 65 54 84

**GARAJE ITXIAK SALGAI URIBARRI AUZOAN (ARRASATE)**
- **Aireztatuak** eta **4 metro baino gehiagoko** altuera.
- **Camper** estiloko **furgonetentzat** edota **kirol materiala** gordetzeko egokia.



**INFORMA ZAITEZ!**
943 31 68 68

# ASTEA GOIENAN



GOIENA

## Gure Esku Dago dimanika berbagai

Erabakitzeko eskubidearen alde egiteko sortu da Gure Esku Dago dinamika eta giza katea antolatu du Durangotik Iruñera ekainaren 8rako. Gai horixe izango dugu hizpide gaur, egubakoitza, eskainiko dizuegun *AsteOn* saioko erreportajean.

**'AsteOn'**
Egubakoitza, **21:18**



IMANOL SORIANO

## Euskadiko Orkestra Sinfonikoa Bergaran

Miguel Gonzalez Bastida omentzeko kontzertua egin zuen joan den egubakoitzean Euskadiko Orkestra Sinfonikoak Bergarako Udal Pilotalekuan. Bergara liluratu zuen kontzertu hunkigarria izan zen eta telebistan eskainiko dizuegu oso-osorik.

**'Kontzertua'**
Egubakoitza, **22:38**

## GOIENA TELEBISTA

### EGUBAKOITZA, 24

**12:00** Planik bai?
**12:20** Onein
**12:51** Kantari
**13:16** Bideo klipak
**13:36** Ikusi irratia
**14:24** Planik bai?
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Ikusi irratia
**16:01** Zorion Agurrak
**16:06** Planik bai?
**16:30** Berriak
**16:55** Eguraldia
**16:58** Zurriolako butaka
**17:28** Zorion Agurrak
**17:37** Aniztasunean bizi
**18:04** Klaketa
**18:40** Planik bai?
**19:00** Berriak
**19:25** Eguraldia
**19:30** Klaketa
**20:06** Planik bai?
**20:30** Berriak
**20:55** Eguraldia
**20:58** Planik bai?
**21:18** AsteON
**21:48** Berriak
**22:13** Eguraldia
**22:16** Planik bai?
**22:38** Kontzertua

### ZAPATUA, 25

**10:00** Kantari
**11:00** Ikusten
**11:22** Ur eta lur
**11:57** Berriak
**12:17** Onein
**12:44** Bideo klipak
**13:14** Ikusi irratia
**14:04** Elkarrizketa
**14:24** Zorion Agurrak
**14:29** Onein
**15:04** AsteON
**15:34** Planik bai?
**15:54** Berdekeriak
**16:24** Zorion Agurrak
**16:29** Kantari
**17:29** Ikusten
**17:51** Berriak
**18:11** Atik Zra
**18:59** AsteON
**19:29** Berdekeriak
**19:59** Atik Zra
**20:47** Elkarrizketa
**21:07** Kontzertua
**22:37** AsteON
**23:07** Planik bai?
**23:27** Ikusten

### DOMEKA, 26

**10:00** Kantari
**11:00** Zorion Agurrak
**11:05** Elkarrizketa
**11:25** Berdekeriak
**11:55** Onein
**12:25** Berriak
**12:45** AsteON
**13:15** Berbetan
**13:55** Ikusten
**14:17** Aniztasunean bizi
**14:37** Zorion Agurrak
**15:04** Berriak
**15:24** Atik Zra
**16:12** Kantari
**17:12** Elkarrizketa
**17:32** Kontzertua
**19:02** Aniztasunean bizi
**19:22** Bideo klipak
**19:52** Berdekeriak
**20:22** Berriak
**20:42** AsteON
**21:02** Klaketa
**21:50** Aizank!
**22:28** Berbetan
**23:03** Berriak
**23:23** AsteON
**23:53** Elkarrizketa
**00:13** Atik Zra

### ASTELEHENA, 27

**12:00** Atik Zra
**12:48** Berdekeriak
**13:18** Onein
**13:53** Berdekeriak
**14:23** Ikusten
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Zorion Agurrak
**15:20** Ur eta lur
**15:55** Onein
**16:25** Zorion Agurrak
**16:30** Berriak
**16:55** Eguraldia
**16:58** Zorion Agurrak
**17:03** Bideo klipak
**17:48** Klaketa
**18:36** Ikusten
**18:58** Zorion Agurrak
**19:03** Berriak
**19:28** Eguraldia
**19:31** Harmailatik
**20:01** Berdekeriak
**20:30** Berriak
**20:55** Eguraldia
**20:58** Elkarrizketa
**21:30** Berriak
**21:55** Eguraldia
**22:00** Harmailatik
**22:30** Elkarrizketa
**22:50** Erreportajea
**23:00** Berriak
**23:25** Eguraldia
**23:28** Gurean gaur

### MARTITZENA, 28

**12:00** Harmailatik
**12:30** Klaketa
**13:18** Onein
**13:50** Ikusmira
**14:13** Erreportajea
**14:28** Erreportajea
**14:40** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Harmailatik
**15:43** Onein
**16:10** Erreportajea
**16:24** Zorion Agurrak
**16:30** Berriak
**16:55** Eguraldia
**16:58** Zorion Agurrak
**17:03** Klaketa
**17:51** Harmailatik
**18:21** AsteON
**18:52** Zorion Agurrak
**19:00** Berriak
**19:25** Eguraldia
**19:28** Zorion Agurrak
**19:33** Kantari
**20:03** Zorion Agurrak
**20:12** Erreportajea
**20:30** Berriak
**20:55** Eguraldia
**20:58** AsteON
**21:30** Berriak
**21:55** Eguraldia
**22:00** Erreportajea
**22:25** Berbetan
**23:00** Berriak
**23:25** Eguraldia
**23:28** Gurean gaur

### EGUAZTENA, 29

**12:00** Harmailatik
**12:30** Onein
**13:02** Kantari
**13:27** Elkarrizketa
**13:47** AsteON
**14:17** Erreportajea
**14:35** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Aizank!
**15:51** Harmailatik
**16:31** Berriak
**16:56** Eguraldia
**16:59** Harmailatik
**17:29** Berbetan
**18:04** Ikusten
**18:26** Ikusmira
**18:51** Zorion Agurrak
**19:00** Berriak
**19:25** Eguraldia
**19:28** Bideo klipak
**19:48** Aizank!
**20:26** Zorion Agurrak
**20:30** Berriak
**20:55** Eguraldia
**20:57** Elkarrizketa
**21:30** Berriak
**21:55** Eguraldia
**21:58** Atik Zra
**22:46** Erreportajea
**23:00** Berriak
**23:25** Eguraldia
**23:28** Gurean gaur

### EGUENA, 30

**12:00** Harmailatik
**12:30** Onein
**13:02** Ikusi irratia
**13:52** Elkarrizketa
**14:22** Zorion Agurrak
**14:31** Erreportajea
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Berbetan
**15:48** Onein
**16:18** Zorion Agurrak
**16:24** Berriak
**16:49** Eguraldia
**16:52** Planik bai?
**17:12** Elkarrizketa
**17:42** Berbetan
**18:17** Zorion Agurrak
**18:23** Aizank!
**19:00** Berriak
**19:25** Eguraldia
**19:28** Planik bai?
**19:48** Kantari
**20:16** Erreportajea
**20:30** Berriak
**20:55** Eguraldia
**20:58** Planik bai?
**21:18** Erreportajea
**21:30** Berriak
**21:55** Eguraldia
**21:58** Klaketa
**22:46** Planik bai?
**23:06** Berriak
**23:31** Eguraldia
**23:34** Gurean gaur
**23:54** Planik bai?

## ARRASATE IRRATIA

### Ander Lipus aktoreari egindako elkarrizketa entzungai 107.7an

*Hamlet* izeneko antzezlana eskaini zuten atzo, domeka, Amaia antzokian eta lan horretako protagonistetako bat da Ander Lipus. Bada, astean harekin izan gara eta asteburuko gainbegiratuan, zapatuan eta domekan 10:00etan, hari egindako elkarrizketa entzun ahal izango duzue.

### Cobra taldearen kontzerturako sarrerak zozketan

Kooltur Ostegunak egitasmoaren barruan, eguenean gaztetxean izango dira Eibarko Cobra taldeko kideak. Rock gogorra eta metala lantzen dute, eta emanaldirako sarrerak zozketatuko ditugu. Hartu parte 943 25 05 05era deitu edo idatzi *irratia@goiena.com* helbidera.

# GUARDIAKO FARMAZIAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ARRASATE** | | | |
| **Egubakoitza, 24** | ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| **Zapatua, 25** | RUIZ | Nafarroa Etorbidea 1 | 943 79 14 09 |
| **Domeka, 26** | ETXEBERRIA | Zarugalde kalea 38 | 943 77 16 30 |
| **Astelehena, 27** | ALBERTO AZKOAGA | Ferrerias kalea 1 | 943 79 15 15 |
| **Martitzena, 28** | M.FCA. AZKOAGA | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| **Eguaztena, 29** | FERNANDEZ | Maisu Aranbarri kalea 1 | 943 79 22 26 |
| **Eguena, 30** | IRIZAR | Erguin 11 | 943 79 12 39 |
| **BERGARA** | | | |
| **Egubakoitza, 24** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza 4 | 943 76 11 74 |
| **Zapatua, 25** | ZABALA | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| **Domeka, 26** | ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| **Astelehena, 27** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Martitzena, 28** | ESTELLA | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| **Eguaztena, 29** | MOZOS | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| **Eguena, 30** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza 4 | 943 76 11 74 |
| **OÑATI** | | | |
| **Egubakoitza, 24** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Zapatua, 25** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Domeka, 26** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Astelehena, 27** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Martitzena, 28** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Eguaztena, 29** | ANDUAGA | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| **Eguena, 30** | ANDUAGA | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |

**Farmazien eskuko telefonoetarako 2014 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altiria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

# EGURALDIA ASTEBURUAN

## DEBAGOIENA



Max. 11º
Min. 6º

**ZAPATUA, 25**
Zapatuan euria egiten jarraituko du egun osoan. Tenperatura zertxobait igoko da eta elur-mailak ere gora egingo du.



Max. 12º
Min. 7º

**DOMEKA, 26**
Domekan eguraldiak hobera egingo du. Baliteke euria egiteari uztea, baina zeruak lainotuta jarraituko du.

## EUSKAL HERRIA



Egubakoitzean izandako eguraldi antzekoa izango da zapatuan ere. Domekan euria egiteari utziko dio.

# GAZTE INFORMAZIOA

## BEKAK

**Salvador De Madariaga programa.** Florentziako Europako Unibertsitateko Institutuan doktorego ikasketak egiteko zortzi laguntza. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. Baldintzak: lizentziaduna edo masterra izatea, ikasketak 2005-01-01a ondoren bukatu izana, 35 urte baino gutxiago izatea, EBko bi hizkuntza ofizial menderatzea (ingelesa eta frantsesa, batez ere). Doktorea ez izatea. Epea: urtarrilak 31.

**Formate bekak.** Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. Edukia: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren menpe dauden kultur instituzioen ekintza eta gaietan espezialkuntza eta formaziorako 76 beka. Azken eguna izango da: otsailak 1.

## LANA

**203 erizain plaza Aragoiko osasun zerbitzuan.** Aragoiko Gobernua. Baldintzak: Erizaintzako diplomatura edo Osasun -laguntzaile teknikaria. Txanda irekia: 173 plaza; barne igoerako txanda: 20 plaza; deusgaitasuna dutenentzako plazak: 10 plaza. Azken eguna izango da: otsailak 7.

**Dinamizatzailea Bagara elkarterako.** Bagara Elkartea. Bergarako Oxirondo Azoka eta lehen sektorea biziberritzeko prozesurako dinamizatzailea behar da. Baldintzak: unibertsitate mailako titulua eskatzen da gestiorako, dinamizaziorako, sintesirako, lankidetzarako eta lidergorako gaitasuna eta Bergarako eragile sarea ezagutzea. Curriculumak *bagara@bagara.net* helbidera bidali behar dira.

**INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:**
**Arrasateko Gazte bulegoa:** Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
**Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea:** Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net

OROIGARRIA

## Basilio Ugarte Urrutia



2014ko urtarrilaren 14an hil zen.

*Anboto aldeko haizeak*
*ikatz usaina dakar.*
*Horrela zaitugu zu*
*beti gure oroimenean.*

**Izpizte Elkartea.**
**Aramaion (Gantzaga), 2014ko urtarrilaren 24an.**

OROIGARRIA

## Andoni Axpe Madinabeitia



Gasteizen hil zen 2014ko urtarrilaren 3an, 76 urte zituela.

*Musakolagatik lan asko egin duen adiskidea joan zaigu.*
*Mila esker, Andoni. Beti gure bihotzetan!*

**Musakolako Alkatetza eta Jai Batzordea.**
**Arrasaten (Musakola), 2014ko urtarrilaren 24an.**

OROIGARRIA

## Eugeni Bolinaga Askasibar



2014ko urtarrilaren 19an hil zen, 82 urte zituela.

*Beti izango zaitugu gogoan.*

**Intxorta elkartean jokoan egiten genuen lagunen partetik.**
**Elgetan, 2014ko urtarrilaren 24an.**

OROIGARRIA

## Maria Angeles Gordoa Altolagirre



Inazio Arregiren ama eta Miren Arregiren amama

2014ko urtarrilaren 19an hil zen, 87 urte zituela.

Bat egiten dugu
senideen saminarekin.

goiena"

**Goiena Komunikazio Taldea.**
**Oñatin, 2014ko urtarrilaren 24an.**

ESKER ONA

## Javier Arregui Ayastuy



Bergaran hil zen 2014ko urtarrilaren 16an, 67 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
—
*Beti gure artean izango zara.*

**Bergaran, 2014ko urtarrilaren 24an.**

ESKER ONA

## Eugeni Bolinaga Askasibar



Patxi Irazabalen alarguna

2014ko urtarrilaren 19an hil zen, 82 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi
eskerrik asko, sendikoen izenean.

**Elgetan, 2014ko urtarrilaren 24an.**

ESKER ONA

## Maria Angeles Gordoa Altolagirre



Juan Arregiren alarguna

2014ko urtarrilaren 19an hil zen, 87 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
—
*Izaera gogor eta kementsu,*
*alai eta bakar.*
*Oñatiko altxor preziatua,*
*zaindu eta maitatua.*
*Betiko bihotzean, amona,*
*zure indar eta bertutez gidatuak.*

**Oñatin, 2014ko urtarrilaren 24an.**

ESKER ONA

## Segundo Lete Madinabeitia



Kontxa Unzuetaren alarguna

2014ko urtarrilaren 17an hil zen, 90 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
—
Ondra-meza domekan izango da, urtarrilaren 26an, 12:00etan,
Mendiolako San Juan Bataiatzailearen elizan.

**Bertaratuko zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Eskoriatzan (Mendiola), 2014ko urtarrilaren 24an.**

MEZA

## Xabier Irizar Bilbao



Caracasen (Venezuela) hil zen 2014ko urtarrilaren 5ean, 72 urte zituela.

Haren emaztea: Delia Zabala. Alaba: Tatiana. Suhia: Hildebrando Saavedra.
Gurasoak: Kandido (†) eta Romana (†) Bilobak: Matias eta Silvana.
Anai-arrebak: Iñaki (†) eta Ane Miren. Lehengusu-lehengusinak.

Haren aldeko meza domekan izango da, urtarrilaren 26an,
12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Bergaran, 2014ko urtarrilaren 24an.**

URTEURRENA

## Jose Fernando Unanue Biguri



Aretxabaletan hil zen 2013ko urtarrilaren 20an, 57 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da,
urtarrilaren 26an, 11:30ean,
Aretxabaletako Andra Mariaren parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Aretxabaletan, 2014ko urtarrilaren 24an.**

URTEURRENA

## Eladio Larrañaga Arizaga



Orain urtebete hil zen.

Bere anaia-arrebek eta ilobek gonbidatzen zaituzte
lehen urteurreneko mezara, domekan,
urtarrilaren 26an, 11:00etan,
Antzuolako Errukizko amaren parrokian.

**Familiak aurrez eskerrak ematen dizkizue.**
**Antzuolan, 2014ko urtarrilaren 24an.**

URTEURRENA

## Antonio Egaña Calles



2013ko urtarrilaren 24an hil zen.

Urtarrilaren 25ean, zapatuan, urteurreneko meza
izango da, 19:00etan, Mikel Goiangeruaren parrokian.
—
*Urtebete da, eguna goibeldu zela.*
*Arnasari eusteko borrokan, soseguan,*
*bihotz taupadak eten zitzaizkizula.*
*Zuk utzitako arrastoak, ordea, sendo eta tinko dirau gugan.*

**Aldez aurretik esker on bertaratzen zareten guztioi sendikoen izenean.**
**Oñatin, 2014ko urtarrilaren 24an.**

## HILDAKOAK

**Xabier Irizar Bilbao.** Caracasen, urtarrilaren 5ean. 72 urte.
**Frantzisko Odriozola Saramendi.** Arrasaten, urtarrilaren 15ean. 79 urte.
**Javier Arregui Ayastuy.** Bergaran, urtarrilaren 16an. 67 urte.
**Beatriz Sainz Lage.** Bergaran, urtarrilaren 18an. 45 urte.
**Eugeni Bolinaga Askasibar.** Elgetan, urtarrilaren 19an. 82 urte.
**Maria Angeles Gordoa Altolagirre.** Donostian, urtarrilaren 19an. 87 urte.
**Segundo Lete Madinabeitia.** Eskoriatzan, urtarrilaren 20an. 90 urte.
**Kontxita Ugalde Alberdi.** Bergaran, urtarrilaren 20an. 88 urte.
**Enrique Llamas Dorado.** Bergaran, urtarrilaren 21ean. 82 urte.
**Andrea Zuazu Martinez de Bujo.** Aretxabaletan, urtarrilaren 22an. 94 urte.
**Frantzisko Barrutia Arenaza.** Bergaran, urtarrilaren 23an. 87 urte.

URTEURRENA

## Dionisio Larrañaga Larrañaga



2013ko urtarrilaren 26an hil zen, 89 urte zituela.

Urteurren elizkizuna domekan izango da,
2014ko urtarrilaren 26an, 10:30ean,
Elorregiko San Prudentzio elizan.

**Aldez aurretik, mila esker.**
**Bergaran, 2014ko urtarrilaren 24an.**

**OROILORE**
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:*
*NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua*
*AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



***maribi 617 44 21 55***
***BERGARA***

# NON-ZER

URTARRILA 24
URTARRILA 30

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## MUSIKA

**BERGARA Mikel Uraken bakarlaria**
2012ko azaroan Bonberenean grabatutako *Folk songs fot tormented souls* diskoko kantuak joko ditu Urakenek Laino skate -gunean. Urakenek berak abestuko du, gitarra, harmonika eta perkusioaren laguntzarekin.
Gaur, egubakoitza, Laino Skate gunean, 22:30ean.

**ESKORIATZA Hutsa bikotea**
Maria Riverok (ahotsa) eta Eriz Perezek (gitarra-jotzailea eta ahotsa) osatzen dute Hutsa bikote akustikoa. 2011n hasi ziren elkarrekin lanean, eta urte berean grabatu zuten euren lehen lana. Iazko azaroan sartu ziren berriro estudioan, eta *Hutsa unea* grabatu zuten. Kantu gozoak egiten dituen bikotea da.
Gaur, egubakoitza, Inkernun, 23:00etan.

**BERGARA Amaia Txintxurretarekin disko festa**
Gaztetxoendako musika saioa egingo du Txintxurreta DJak. Sarrera doan. Gaur egungo musikarik dantzagarrienak ipiniko dituzte.
Bihar, zapatua, Zabalotegin, 18:00etan.

**OÑATI Hileroko disko festa**
Sound Proyect DJ bikoteak hileroko emanaldia egingo du topalekuan. Top zerrendatan dauden kantuak ipiniko dituzte.
Bihar, zapatua, gaztelekuan, 18:00etan.

**OÑATI Ixilik eta Odolkiak Ordainetan taldeak**
Oñatiko Ixilik punk-rock talde gazteak zuzenekoa egingo du. Eurekin batera, antzeko parametroetan ibiltzen den Tafallako Odolkiak Ordainetan taldea igoko da oholtzara.
Bihar, zapatua, Antixenan, 22:30ean.

**BERGARA Udal Musika Bandaren kontzertua**
Herritar guztiendako emanaldia egingo du bandak pilotalekuan.
Etzi, domeka, frontoian, 12:30ean.

**OÑATI Ganbara Abesbatzaren kontzertua**
20 urte bete ditu Aitor Biainek zuzentzen duen abesbatzak eta hori ospatzeko *Amaraun* delako diskoa grabatu dute. Bada, etzi, domekan, diskoa aurkeztuko dute. Diskoko kantuez gain, apirilean Ejea de los Caballerosko lehiaketara eramango dituzten kantuak abestuko dituzte. Diskoa astelehenean ipiniko dute salgai Haritzan, Izarraitz tabernan, Turismo Bulegoan, Arantzazuko dendan, Sesiñena ile-apaindegian, Pake Lekuko tabernan eta Txokolateixan, eta baita euren webgunean ere: *www.ganbara.org*.
Etzi, domeka, parrokian 19:30ean.

**OÑATI Bi Bala taldea**
Bertsoa eta musika batzen dituen emanaldia. Iñaki Gurrutxagak, Julen Goikoetxeak eta Aitzol Barandiaranek osatzen dute taldea. Umorezko kantuak egiten dituzte, ironikoak eta probokatzaile samarrak. Sarrera doan.
Etzi, domeka, Pako tabernan, 19:30ean.

**ARRASATE Cobra taldea**
Eibarko taldea izango da Kooltur Ostegunak ekimeneko protagonista. Rock gogorra eta metala egiten duen taldeak girotuko du gaztetxeko agertokia.
Hilaren 29an, gaztetxean, 22:00etan.

**BERGARA Gospel kontzertua**
Otsailaren 1ean gospel kontzertua egingo dute. Bergarako Orfeoiak, Bergarako Orfeoi Gazteak eta kontzertu horretarako hogei musikariz osatutako ganbera -orkestrak parte hartuko dute emanaldian. Sarrerak salgai daude zortzi eurotan, Pikupe Produkzioen bulegoan eta Lazkano oinetako-dendan. Musika ardatz duen ikuskizunean, soinuari arreta berezia eskainiko diote bergararrek.
Otsailaren 1ean, pilotalekuan, 20:00etan.

## IKUSKIZUNAK

**ELGETA Luis Piedrahita Espaloian**
Piedrahitak *Monólogo del rey de las pequeñas cosas* delako ikuskizuna egingo du Elgetan. Emanaldi bikoitza egingo du, zapatuan eta domekan. II. Monologo Mostra bukatzeko, Txabi Franquesa eta *El Monagillo* bikoteak egingo du ikuskizuna, otsaileko lehen aste bukaeran.
Bihar, zapatua, eta etzi, domeka, 22:30ean eta 19:30ean.

## ERAKUSKETA

**ARETXABALETA 'Jar gaitezen' egitasmorako ekarpenak**
*Jar gaitezen* egitasmoan jasotako ekarpenak eta proposamenak herritarren eskura ipini dituzte. Era berean, *Aretxabaleta argazkitan* lehiaketara aurkeztutako lan batzuk ikus daitezke erakusketa gelan. Herritarrek euren gustukoena bozkatzeko aukera izango dute.
Urtarril bukaera arte, Arkupen, arratsaldez.

**BERGARA Beart elkartekoen erakusketa**
Beart elkartekoek euren margolanak erakutsiko dituzte Aroztegi aretoan. Ikasturtean zehar egindako lanak dira.
Gaurtik urtarrilaren 26ra arte, Aroztegin.

**BERGARA 'Inbasio napoleonikoak' erakusketa**
1808tik 1813ra gertatutako inbasio napoleonikoen gaineko informazioa batzen duen erakusketa zabalduko dute hilaren 29an.
Hilaren 29tik martxoaren 2ra arte, Aroztegin.

## JAIAK

**BERGARA San Paulo jaiak**
Gaur, egubakoitza, 20:30ean hasiko dira jaiak, etxafuego jaurtitzearekin eta Mari Justa eta Pedro Joxeren etorrerarekin. Horren ostean, afaria, musika, dantza emanaldia eta beste hainbat ekitaldi egongo dira domekara arte. Gainera, V. Ugarixo Tiratzea egingo dute.
Gaurtik domekara, Uberan, 20:30ean hasita.



MAXRESDEFAULT.JPG.

**BERGARA Poesia eta musika batzen dituen ikuskizuna**
*Jainko txiki eta jostalari hura* ikuskizuna egingo dute Kirmen Uribe poetak eta haren lagun Mikel Urdangarinek, Rafa Ruedak eta Bingen Mendizabalek. Sarrerak 8 euro. *Zaharregia txikiegia* agian egitasmoaren bigarren pausua da Bergaran erakutsiko dutena.
Gaur, egubakoitza, Zabalotegin, 19:00etan.

Aurreztu.com
Debagoieneko eskaintza onenak

Debagoieneko eskaintza onenak Aurreztu.com-en dituzu.
Ezagut itzazu eskaintza hauek eta beste batzuk Aurreztu.com webgunean!

JANTZI ZAITEZ EUSKARAZ!
Kirol-jertsea eta kamiseta pack-a
24€
LEHEN: 38€
DESKONTUA: %37



GOROSTI LORADENDA
Opari egizu San Valentin perfektua izateko lore-sorta
29€
LEHEN: 49€
DESKONTUA: % 41



BERGARA PNEUMATIKOAK
Ohiko olio aldaketa zure autoan
68€
LEHEN: 90€
DESKONTUA: %25



Negozio baten jabea zara eta Aurreztu.com-en agertu nahi duzu?
Jarri gurekin harremanetan: 943 25 05 05



ARTEDRAMA

**ARRASATE 'Hamlet'**
Artedrama, Dejabu eta Le Petit Theatre de Pain taldeek bat egin dute. Ander Lipusek egingo du *Hamlet*-en papera eta harekin batera egongo dira taula gainean Ainara Gorrutxagi, Manex Fuchs, Maika Etxekopar, Iñaki Ziarrusta, Miren Tirapu eta Urko Redondo.
Etzi, domeka, Amaia antzokian, 18:30ean.

**ARRASATE San Baleixo jaiak**
Jaiak ospatuko dituzte Meatzerreka auzoan. Gaurtik domekara arte askotariko ekitaldiak egingo dituzte; besteak beste, mus txapelketa, patata-tortilla lehiaketa, auzo-afaria, txerri-harrapaketa, umeendako jokoak eta Lore Gazteak taldearen dantzaldia.
Gaurtik domekara arte, Meatzerrekan.

## ANTZERKIA

**OÑATI 'Hansel eta Gretel'**
Grimm anaien ipuin klasikoan oinarritutako lana taularatuko du Glu Glu taldeak. Oholtza gainean hiru pertsonaia, eta haiei bizitza ematen Ugaitz Alegria, Ylenia Blagietto eta Gabriel Ocina aktoreak. Sarrerak *www.barrabarra.eu* atarian.
Bihar, zapatua, Santa Ana antzokian, 17:00etan.

## UMEAK

**ESKORIATZA Mahai-jolasen txapelketa**
Mahai-jolasen txapelketa egingo dute gaztetxoendako Tortolis ludotekan.
Gaur, egubakoitza, ludotekan, 18:00etan.

**ARETXABALETA Puzgarriak igerilekuan**
Uretan jolas egiteko puzgarriak egongo dira ume eta gaztetxoendako Ibarra kiroldegian. Ordutegia adinaren arabera banatu dute: 3-6 urte artekoak (gurasoekin), 16:30-17:30; 7-10 urte artekoak, 17:30-18:30; eta 11-12 urte artekoak, 18:30-19:30.
Bihar, zapatua, igerilekuan, 16:30ean.

## BERTSOAK

**OÑATI Bertso-paper lehiaketa: sari banaketa**
Gaztelekuko V. bertso-paper lehiaketako sari banaketa ekitaldia egingo dute gaur, egubakoitza. Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleen lanak sarituko dituzte. Alaia Martin bertsolaria egongo da sariak banatzen.
Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 18:00etan.

**DEBAGOIENA Bertso Eguna 2014**
*Azalera* lelopean, generoa izango da aurtengo Bertso Egunaren sakoneko gaia eta 55 bertsolarik parte hartuko dute. Tartean, Maddi Sarasuak, Ane Zuazubiskarrek eta Ainhoa Agirreazaldegik. Azken 350 sarrerak salgai daude *www.bertsosarrerak.eu* atarian.
Bihar, zapatua, Donostian, 12:00etan hasita.

## IRTEERAK

**ARRASATE Eski irteerak**
Besaide Mendizale Elkarteak hainbat eski irteera egingo ditu otsailean; hain justu ere, otsailaren 9an (egun batekoa) eta otsailaren 22an eta 23an (aste bukaerakoa). Informazioa jasotzeko eta izena emateko, Besaideren egoitzatik pasa beharko dute interesatuek.
Astelehenetan, martitzenetan, eta eguaztenetan, Besaiden, 18:30etik 19:30era.

**ESKORIATZA Mendi irteera**
Mendi irteera egingo dute gaztendako.
Etzi, domeka, gaztelekuan, 17:00etan.

## IKASTAROAK

**ESKORIATZA Larrugintza ikastaroa**
Larrugintza ikastaroa egingo dute gaztelekuan herriko gaztetxoendako.
Bihar, zapatua, gaztelekuan, 17:00etan.

**BERGARA Sorgin-dantza ikastaroa**
Aurten, otsailaren 27an, eguena, egingo da sorgin-dantza. Hori horrela, Xamatz dantza taldeak mutilentzako ikastaro laburra egingo du, egun horretan sorgin-dantza dantza dezaten. Interesatuek kultura etxera deitu beharko dute (943 77 91 59).
Otsailaren 29ra arte, kultura etxean.

**BERGARA Dantza afrikarren ikastaroa**
Gabonen ostean berriro hasi dute dantza afrikarren ikastaroa. Bi astean behin elkartuko dira, eta, guztira, sei saio egingo dituzte kartzela zaharrean.
Bihar, zapatua, kartzela zaharrean, 16:00etan.

## ZINEMA

### ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**Carrie**
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Vaya pavos**
Zapatua: 17:00.

### OÑATI

**KULTURA ETXEA**

**A proposito de Llewyn Devis**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Rodencia y el diente de princesa**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### ARETXABALETA

**ARKUPE**

**Ismael**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:30.

**Frozen**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### EIBAR

**COLISEO**

**Vivir es facil con los ojos cerrados**
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20.00.
Astelehena: 20:30.

**La vida de Adele**
Zapatua: 17:00, 22.30.
Domeka: 16:30, 20:00.
Astelehena: 20.30.

**ANTZOKIA**

**Rodencia y el diente de la princesa**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**La ladrona de libros**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

### GASTEIZ

**FLORIDA**

**El lobo de Wall Street**
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 20:20, 21:00.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:20.

**Old boy**
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:00, 22.30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 19:30.

**En la flor de la vida**
Egubakoitza: 17:00, 18:45.
Zapatua eta domeka: 18:45.
Astelehenetik eguenera: 17.30.

**Caminando entre dinosaurios**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Nymphomaniac II**
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 19:45.

**La ladrona de libros**
Egubakoizteik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Presentimientos**
Egubakoitzetik domekara: 18:20, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:30.

**Frozen**
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30.

**Asier ETA biok**
Egubakoitzetik domekara: 20:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**Futbolin**
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30.

**La gran belleza**
Egubakoitzetik domekara: 19:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

**Mandela: del mito al hombre**
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**Vaya pavos**
Egubakoitza: 17.30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:30.

**BOULEVARD**

**Hercules: el origen de la leyenda 3D**
Egubakoitza eta zapatua: 00:00.
Egubakoitza: 18:00.
Zapatua: 16:00.
Domeka: 22:00.
Astelehena, martitzena eta eguena: 18:00.
Eguaztena: 22:00.

**Hercules: el origen de la leyenda**
Egubakoitza: 20:00, 22:00.
Zapatua: 18:00, 20:00, 22:00.
Domeka: 16:00, 18:00, 20:00.
Astelehena, martitzena eta eguena: 20:00.
Eguaztena: 18:00, 20:00.

**Mindscape**
Egubakoitza eta zapatua: 23:45.
Zapatua eta domeka: 15:45.
Egubakoitzetik domekara: 17:45, 19:45, 21.45.
Astelehena, martitzena eta eguena: 18:30, 20:30.
Eguaztena: 18:30, 20:30, 22:30.

**Gravity 3D**
Egubakoitza eta zapatua: 00:15.
Eguaztena: 17:30.

**Capitan Phillips**
Egubakoitzetik domekara: 22:45.

**Blue Jasmine**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**El lobo de Wall Street**
Egubakoitza eta zapatua: 19:00, 22.30, 23:30.
Zapatua eta domeka: 16:30.
Egubakoitzetik domekara: 18:00, 20:00, 21:30.
Domeka: 19:00.
Astelehena, martitzena eta eguena: 17:30, 18:30, 19:30.
Eguaztena: 18:00, 19:00, 20:00, 21:30.

**Madela: del mito al hombre**
Egubakoitzetik domekara: 19:50.
Astelehena: 20:10.

**La ladrona de libros**
Egubakoitza eta zapatua: 00:25.
Zapatua eta domeka: 16:10.
Egubakoitzetik domekara: 18:55, 21:40.
Astelehena, martitzena eta eguena: 17:35, 20:15.
Eguaztena: 18:55, 21:40.

**Agosto**
Egubakoitzetik domekara: 19:30, 21:50.
Astelehena, martitzena eta eguena: 17:40, 20:20.
Eguaztena: 19:30, 21:50.

**12 años de esclavitud**
Egubakoitzetik domekara: 19:40, 22:20.
Astelehena, martitzena eta eguena: 17:30, 20:10.
Eguaztena: 19:45, 22:20.

**La vida secreta de Walter Mitty**
Domeka: 19:00, 22:00.
Astelehena, martitzena eta eguena: 20:50.
Eguaztena: 22.30.

**El medico**
Egubakoitzetik domekara: 19:00, 22:00.
Astelehena, martitzena eta eguena: 19:45.
Eguaztena: 20:15.

**El hobbit**
Zapatua eta domeka: 16:30.

**Tres bodas de mas**
Egubakoitza eta zapatua: 00:50.

**Frozen**
Zapatua eta domeka: 15:35.
Egubakoitzetik domekara: 17:40.
Astelehena: 18:00.

**Caminando entre dinosaurios**
Zapatua eta domeka: 16:00.

**Lluvia de albondigas**
Zapatua eta domeka: 17:00.
Astelehena, martitzena eta eguena: 17:45.
Eguaztena: 18:15.

**Futbolin**
Zapatua eta domeka: 15:30.
Egubakoitzetik domekara: 17:35.
Eguaztena: 17:35.

**GORBEIA**

**El lobo de Wall Street**
Egubakoitza: 18:00, 21:30.
Zapatua: 19:00, 22:30.
Domeka: 17:30, 21:00.
Astelehenetik eguenera: 19:30.

**The Grandmaster**
Zapatua eta domeka: 15:30.
Egubakoitzetik domekara: 19:50.
Astelehenetik eguenera: 20:20.

**A proposito de Llewin Devis**
Zapatua: 00:20.
Egubakoitzetik domekara: 17:45, 22:10.
Astelehenetik eguenera: 18:15.

**El medico**
Egubakoitzetik domekara: 19:35.
Astelehenetik eguenera: 17:45.

**La leyenda del samurai**
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:40.

**El unico superviviente**
Egubakoitzetik domekara: 20:10, 22:40.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:30.

**Los señalados**
Zapatua: 00:50.

**El hobbit 2**
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 21:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**Gravity 3D**
Zapatua: 00:15.
Egubakoitzetik domekara: 20:20.
Astelehena eta eguaztena: 21:00.

**Blue Jasmine**
Egubakoitzetik domekara: 20:20
Martitzena eta eguena: 21:00.

**Capitan Phillips**
Zapatua: 00:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

**Frozen**
Zapatua eta domeka: 16:10.
Egubakoitzetik domekara: 18:15.
Astelehenetik eguenera: 18:45.

**Futbolin**
Zapatua eta domeka: 15:50.
Egubakoitzetik domekara: 18:00.

**Lluvia de albondigas**
Zapatua eta domeka: 15:35.
Egubakoitzetik domekara: 17:40.

**Tres bodas de mas**
Zapatua: 17:00.
Domeka: 15:40.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

**Pense que iba a haber fiesta**
Zapatua eta domeka: 16:45.

## KRITIKA



**EL LOBO DE WALL STREET** ★★★★☆
**Zuzendaria:** Martin Scorsese.
**Herrialdea:** AEB.
**Aktoreak:** Leonardo DiCaprio, Jonah Hill, Margot Robbie.

# Etengabeko zaldiko-maldikoa

Martin Scorsese eta Leonardo DiCaprio berriz elkartu dira burtsan kokatutako istorio bat azaltzeko. Zuzendariak mota askotariko filmak egin baditu ere, gehienak gangsterrekin eta zinema beltzarekin lotzen ditugu: *Malas calles*, *Uno de los nuestros*, *Casino*... Eta egia esan, *El lobo de Wall Street*-ek zerikusi handia du aipatutako filmeekin. Kasu honetan, beste gaizkile mota bat daukagu: eskuetan pistola bat eraman beharrean maleta txiki bat daraman pertsonaia. Azken honek ez ditu eskuak odolez zikintzen, baina, finean, dirua pilatzea da guztien helburua. Eta istorioen pertsonaiak nahiko antzekoak direnez, Scorsesek erabilitako hizkuntza zinematografikoa eta teknikak parekoak dira: erritmo ikaragarria, abesti ugari, eszenen muntaia zoragarria, irudi indartsuak... *El lobo de Wall Street*-en kapitalismoak sortutako pertsonaia batzuen ezaugarriak azaltzen ditu: etika falta, dirua bizitzaren helburu bihurtzea, alkohola, drogak eta sexua modu basatian erabiltzen. Pertsonaiak etengabeko zaldiko-maldikoan igota daude, eta pelikulan bizimodu horren erotasuna detaile osoz agertzen da. Sexua, drogak eta orgiak ikusten ditugu. Hori guztiori modu ironikoan agertzen da. Bukaera nahiko bihurria da: zalantzan jartzen dugun bizimodua gizartean ondo integratuta dago.

Agian, Scorsesek orgiak eta parrandak erakusteko denbora gehiegi erabiltzen du eta horren ondorioz, batez ere, lehen zatia apur bat errepikakorra gerta daiteke. Baina eszena guztiak hain modu distiratsuan filmatuak daude, ez da aspergarri egiten.

Dena den, horiei minutu batzuk kenduz gero, istorioaren jarraikortasuna hobea izan zitekeen. Adierazgarria da Scorseseren eta DiCaprioren artean sortutako kimika. Adibidez, egoera txarrean dauden drogek sortutako efektua azaltzen duen eszena zoragarria da.

ANTONIO ZABALA

IÑAKI SAN MIGUEL




goiena

2014-01-24

BUKATZEKO

# Agur Kanadako Mondragoni

- Winnipeg hiriko Mondragon kafetegi eta liburu-denda ezkertiarra itxi egingo dute oraingo zapatuan
- 18 urte egon da zabalik eta hiriko "ikur anarkista" zen, baina negozioa dagoeneko ez da bideragarria

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE

Oraingo astean Winnipeg-en bazaudete, bertako Mondragon kafetegi eta liburu-dendan hegoaldeko erara frijitutako tofuaz gozatu eta %66ko deskontua duen libururen bat erosi ahal izango duzue. Baina zapatura arte bakarrik; egun horretan, Mondragon dendak ateak itxiko ditu betiko. Hori jakinarazi dute Winnipegeko komunikabideek.

*Winnipeg Free Press* hedabideak dioenez, hiriko ikur anarkista eta ezkertiarra izan da Mondragon. Izena ez datorkio kasualitatez; izan ere, enpresa kooperatiboa izan da. Baina azken urteak gogorrak izan dira negozioarendako, eta, 18 urteko ibilbidearen ondoren, agur esango die bezeroei: "Diru aldetik urte gogor pare bat izan ditugu. Uste dut jende asko triste dagoela eta konturatzen dabilela leku honek zer esan nahi izan duen", esan zion *Winnipeg Free Press*-ko Trevor Hagan kazetariari Cora Wiens-ek, jabeetako batek.



Mondragon kafetegia, Albert Street-en. | TREVOR HAGAN/WINNIPEG FREE PRESS



Mondragoneko hiru langile eta bazkide; bost dira. | TREVOR HAGAN/WINNIPEG FREE PRESS

### Gero eta kostu handiagoak

Komunikabide horrek gainbeheraren eta porrotaren zenbait faktore aipatzen ditu: gero eta kostu handiagoak, kale horretan gero eta oinezko gutxiago ibiltzeak eta beste kafetegi eta liburu-denda batzuen lehia. Horrek eragin garbia izan zuen Mondragonen negozioan, eta, garai baten 12 bat bazkide langile bazituen, orain bost bakarrik ditu.

Negozioaren berezitasuna azpimarratzen du *Winnipeg Free Press*-ek: "Mondragon zen Winnipegeko talde ez hierarkiko ezagunena; langileak berdinak ziren, lan guztia eurek egiten zuten eta ez zegoen buruzagirik".

Negozio-antolaketa horrek porrotean zerikusirik izan ote duen galdetuta, langileek ezetz esan dute. "18 urte asko dira negozio baterako, eta jatetxe baterako ere bai; berdin dio zelan dagoen antolatuta", esan dute.

### Tradizio antifaxista

Albert Street-en Autonomous Zone delako eraikinean egon da Mondragon. 1995ean sortu zen A-Zone, zenbait mugimenduk eta elkartek hiru solairuko eraikin bat erosi eta bertan ezarri zirenean. Bada, Albert Street dagoen Winnipegeko auzoak tradizio luzea du mugimendu ezkertiarren eta antifaxisten artean, 1919ko Greba Handia ezkero.

AZKEN BERBA



**AGURNE BARRUSO**

# Herri poza

Azken asteak mugituak izan dira Euskal Herrian. Urteak kartzelan zeramatzaten presoak irtetea, EPPKren adierazpena, Durangon preso ohiek adierazpenarekiko atxikimenduz egindako agerraldia, EPPKren bitartekarien atxiloketak, manifestazio-debekuak eta deialdi berriak…Aste gutxitan, gauza asko…

Bilboko manifestaziorako bigarren deialdiak, hainbat alderdi politikok eta sindikatu abertzalek egindakoak, herri-poza sortu zuela iruditu zitzaidan niri. Ezker Abertzaleko jendearengan, EAJren oinarriarengan, herritar askorengan.

Horrela nahi gaituzte herritarrek: elkarrekin herria egiten eta Madrili aurre egiteko elkartuz. Gure esku, guztion esku, egon daiteke elkartze horretan sektore eta alderdi gehiago batzea eta elkarrekin Euskal Herriaren burujabetzaren bidean urratsak ematea.

Mezua pasa digute herritarrek, dagokion moduan erantzutea da orain gu guztion egitekoa.

Zertarako utzi galtzen aukera hau hain garbi ikusi denean hori dela herriak nahi eta eskatzen duena.

b+b
batu-banatu
banaketak neurrira
Tel.: 943 08 10 50
banaketak@batubanatu.com

**Banaketa aukera ezberdinak**
- Banaketa **masiboa**.
- **Autoz auto** banatzea.
- **Kartelak** ipini.
- Banaketa **pertsonalizatua** (bezero edo hartzaile konkretuei).
- **Goiena papera**rekin batera (astelehenetan eta ostiraletan).

***Banaketaren jarraipena eta kalitate kontrola egiten dugu.***



Eskatu aurrekontua konpromiso barik!

Gure langileak Gizarte Segurantzan alta emanda daude eta lan-arriskuen prebentzio legedia betetzen dugu.